

ISILLIK

Pedagogi Aldizkaria - 12

1990

erreforma

irakaskuntzan



Erreforma honek gure
sistema gauzatzeko
eta taxutzeko ahalmena
ukatzen digu



BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S. A.

Fermin Calbetón, 30 - tel. 420930

Esterlines, 10 - tel. 420224

DONOSTIA - 3

Fermin Calbeton 30ean, euskal liburu eta diska guztiak
aurkituko dituzue.

Esterlines 10ean,

Pedagogia, Psikologia, Ekonomia,
Literatura, eta abar...., aurkituko dituzue.

ekar s. a.

EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S.A

Esterlines, 10
Telef. 426319
DONOSTIA-3

Haur eta gazteentzako liburu eta ipuin aukera ugaria.
AXUT, PERKAX, ITZUL, SOR, eta abar....

UR 5888
UR-02818

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALZAINDIA
BILBO
76887
1992 MAL. 22



Argitaratzaile:
G.I.L.E.

Egileak:
Irakasle, guraso,
sikologo, pedagogo
eta beste.

Diseinugile:
Irakasle Elkarte

Inprimaketa:
Gertu, S. Coop. Oñati

Fotokonposaketa:
Impel. Legazpi


Dep. Leg.:
S.S. 509/82
GIPIZKOAKO
IKASTOLETAKO
IRAKASLE
ELKARTEAREN
ardurapean.

Oharrak:
Idazlanak bidali nahi
dituenak jo beza
helbide honetara:
Plz. Amezketan, 12 - 8.a F
Donostia
Tfnoa: 445100-22


IRAKASLE ELKARTEA
EZ DA HEMEN
AZALDUTAKO
ERITZIEN ARDURADUN
EGITEN

350 pezta.

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA,
UNIBERTSITATE eta IKERKETA SAILAK
onetsia. (89-VIII-14)



EDITORIALA	4
HEZKUNTZ SISTEMAREN ERREFORMA	5
GEMA ZABALETArekin ELKARRIZKETA	12
OINARRIZKO KURRIKULUM DISEINUA	21
SAN BARTOLOME IKASTOLAKO ESPERIENTZIA	28
BIGARREN MAILAKO IRAKASKUNTZAREN ALDEKO APOSTUA ..	31
ERREFORMAREN HISTORIA	37
HIZKUNTZAREN IKUSPEGIA OINARRIZKO DISEINU KURRIKULARREAN	40
ZER DAGO LOGSEren AZPIAN? (Eritzia)	44



Editoriala

Oinarrizko Kurrikulum-Diseinuaren inguruan

A

le honen helburua, "Oinarrizko Kurrikulum-Disenuaz" (L.O.G.S.E.="Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo" deiturikoa) informazio zabalago bat eskaintzea zen baina, zenbait erakundek ezintasuna agertu badigu ere, beste zenbaitek denbora luzatzearen truke, bere ezezkoa eman digu.

Halere, aportazio handiak jaso ditugu, alde batetik lege honen aldeko eritziak eta bestalde, aurkakoak.

Aldekoen artean, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza Pedagogikoko Sailburu den Gemma Zabaletarekin egindako elkarrizketa doakizue, non, Hezkuntz Sistemaren Erreforma berriaren aurrean ditugun zalantzak argitzen diharduen, zalantzen hiztegi-praktiko bat antzo.

Gainontzekoek, beraien kezkek eta zalantzak azaltzen dizkigute, nolabait esateko. Ezin bait dugu alde batera utzi, Euskal Herriari egiten zaion iraina lege honekin, hots, euskal heziketa-sistema propio baten jabe izateko eskubidea ukatzean, alegia, eta euskara eta euskal kultura baztertu eta Estatu osoko herrialde desberdinak **bat eta bakar** balira bezala kontsideratzean.

Bestalde, lege honekin, Hego Euskal Herriaren zatiketa areagotzez gainera, hemengo Gobernuak Madrileko Gobernuaren agindupean daudela argi eta garbi gelditzen da, ez bait dute inolako aukerarik izan lege hau garatzean.

Eta Euskal Herriaren nazio arazoa baztertzen duen legea, har al daiteke progresistatza?

Eta Euskal Herriari bere Heziketa-sistemaren egituraketa ukatzen dion legea, har al daiteke progresistatza?

Hona hemen artikuluetan agertzen diren galderak. Eta, ... zuk zer diozu?

Hezkuntz Sistemaren Erreforma

Lan honen helburua, helbururik baldin bada, ez da Erreformaren azterketa zehatz eta sakon bat egitea, aitzitik, Erreformarekiko agerpen orokor bat egitea, eta batez ere, Eskolaurreko nahiz Derrigorrezko Irakaskuntzaren lehen ezagupen bat egitea.

Honetarako erabili dudan informazio iturria, "Libro Blanco para la Reforma del Sistema Educativo" izan da, eta hemendik, 91-135 bitarteko orrialdetako informazioa.

Bestalde, eta argibide gisa ere, zera esan nahi nuke lanaren metodologiaz: orrialde hauetako fideltasuna, ahalik eta gehien mantentzen saiatu naizela eta lortu ez badut, ez dela asmo txarrez izan (beraz, beharbada, ez da beharko luken guztia egongo). Halaber, nire aipamenak egin ditudanean (gutxitan izan da), izartxoez-asteriskoez-azaltzen dira, eta ez dira noski, Liburu Zurian agerturikoak.

Lan honen atalak, hiru dira:

I.- ERREFORMAREN HELBURUAK.

II.- HEZKUNTZ GARAI DESBERDINEN BERRANTOLAKETA

III.- HEZKUNTZ GARAI DESBERDINEN ANTOLAMENDUA ETA EGITURA.

I.- ERREFORMAREN HELBURUAK.

1.- Hezkuntz sistemen berriztapenak, aldaketak eta faktore bultzagileak

Hezkuntz sistemak beren prozedurak, metodoak eta beren antolaketaren zati bat, etengabe berritzera sentitzen dira behartuta neurri batetan, behar hau Hezkuntzako sektore desberdineko arduradunen eskakizunetik dator; beste batean, **ingurune aldakorrara egokitzearen beharretik dator.**

* Eskolak, ezin du erakunde geldo bat izan, eta askotan **Gizartearen aldaketa azkarrek behartzen dituzte hezkuntz sistemak aldatzera**; ikusi besterik ez dago teknologiaren erritmo aldaketa azkarrak eta Hezkuntzaren ahaleginak erritmo horietara egokitu nahian.

Bestalde, badago irakaskuntza berritzera bultzatzen duen beste faktore bat ere; **presio sozialarena**, hain zuzen. Estatu sozialak eraiki eta eskubide politikoak ezezik sozialak ere eskaini dizkieten herrialdeetan, funtsezko zerbitzu publiko batean bilakatu da irakaskuntza. Zenbait lekutan gainera, Espainia kasuko, gizartean ematen diren desberdintasunak zuzentzeko eta bene-

tako aukeren berdintasuna lortzeko jotzen da irakaskuntza.

2.- Eduki nahiz metodologiaren berriztapena

Espainian indarrean dirauen hezkuntz egiturak, jakina denez, zenbait akatsen zuzenketa onartzen du. Baina aldaketa honek akats horien arazoak beren jatorrietatik zuzentzea eskatzen du. Honela, gaztaroan ematen diren "eskola porrota" "eskola uztea" edota Lanbide Heziketak, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasketekiko duen gutxiegiako balorazioa, aldaketa honen adibide batzu baino ez dira. Beraz, eduki nahiz metodologiaren berriztapena aldentezinak dira Erreformaren egitura eta antolaketatik.

3.- Oinarrizko Irakaskuntzaren luzapena.

1970ean Espainian arautu zen Hezkuntz Orokorreko Legeak aurre-rapen bikaina suposatu bazuen ere beste herrialde europarreko hezkuntz ereduekin parekatzeko eta homologatzeko, gaur egun, oraindik, 8 urtetako beharrez nahiz dohanezko eskolatze garai hau, herrialde gehienetan dagoen 9 eta 10 urtetako eskolatze garaia baino motzagoa da.

Badirudi bada, 8 urtetako eskolatze garai hau ez dela nahikoa herritar guztien beharrezko oinarrizko hezkuntza bermatzeko eta badirudi ere, gizartearen sektore gehiengoengandik datorkiola Hezkuntzari luzatze eta aldatzearen beharra, baina garbi dirudi ere, luzapenak besterik gabe ez dakarrela irakaskuntzaren kalitatearen hobetzea, hobetze hau, lehen aipatzen zen bezala, eduki eta metodoen aldaketa batera ez badao.

4.- Baina zer da **IRAKASKUNTZAREN KALITATEA, ZER ULERTZEN DA HONETAZ?**

Liburu Zuriak dioenez, komunitate sozialak irakaskuntzari atxekitzen dizkion helburu orokor nahiz zehatzak, irakaskuntza berak hasetzeko duen ahalmenaren baitan neurtuko litzateke irakaskuntzaren kalitatea. Irakaskuntzaren kalitatea eta bere hobakuntza, beraz, irakaskuntzaren xedeei lotuta agertzen da: zertarako hezitzen da, zein helmugatara jo nahi duen irakaskuntzak.

Hezkuntz sistema baten irakaskuntzarekiko kalitatearen erizpi-deak, egon badaudela, dio kalitate horren

adierazleak dauden bezalaxe, baina, batzuk zein besteak ezin direla mugatu. Halere, irakaskuntzaren kalitate maila ezartzeko eta eskolari dagokionez, unibertsalki onartuak dauden ERITZI hauek aipatzen ditu:

1.- Ikasleen nortasun pertsonala ahalik eta gehien aberastea eta herri bateko kultur ondarearen jabe izan daitezela inongo sexu, arraza, kapazitate edo jatorri sozial arrazoien diskriminaziorik gabe.

2.- Ikasle bakoitzaren berezitasun eta interesei egokitzea, hezkuntz behar zehatz dutenak, barne daudelarik.

3.- Gizarte teknifikatu, konplexu eta demokratiko baten eskabideei erantzutea.

4.- Ikasleengan eman litezken sexu, kultura nahiz gizarte desberdintasunak konpentsatu, guztien eta bakoitzaren gehienezko garapena lagunduz.

5.- Bizitza eraginkorrean sartzeko eta helduen gizarte erantzunkizun eta profesionalak betetzeko prestatzea.

* Aldi berean kalitate hau hobeagotu dezaketen FAKTORE zerrenda bat aipatzen du, eta nik, interesgarri iruditzen zaizkidan, zenbait aukeratu dut:

1.- **Irakaslego kompetentea**, oinarriko formazio sendoarekin, eta lanean ari dela, **prestaketaren aukera izango duena**, kualifikatu, motibatu eta **pizgarritua** (inzentibatua).

2.- Ikasketa prozesuetan, hezkuntz metodologia eraginkor eta ikasleen partaidetza bultzatuko duena.

3.- Hezkuntz sistemaren, eta ez bakarrik ikasleagoarena; **EBALUAZIOA**, prozedura egokien bidez.

4.- Ikasleen **GARAPEN PROZESUARI** eta Etapa bakoitzeko **HELBURUEI** ongi egokituko zaizkien edukin kurrikularrak.

5.- Epe motz eta luzera egitasmo eta programazioak **ANTOLATU** eta **GAUZATZEKO GAI** izango diren irakasle talde **IRAUNKORRAK** -estableak-.

6.- Baliabide -leku egokiak, ekipamendua, materiale didaktikoa e.a....- **UGARI** eta **RAZIONALIZATUA**.

7.- Ikastetxe bakoitzean nahiz kanpoan **-PAT** e.a....- eman daitezken



Hezkuntza eta Lanbide Orientazio Zerbitzu edo Departamenduen garapena.

II.- HEZKUNTZ GARAI DESBERDINEN BERRANTOLAKETA

II.1.- Haur Hezketa edo Eskolaurrea.

Garrantzi gutxi eman zaion garaia dela, esaten da; askotan **zaintze edo asistentzi sozialaren kutsu handiagoa izan duela, pedagogikoarena baino**. Garai hau hezkuntz garai bat bezala hartuz, ikastegietako antolaketan eta hezkuntz esperientzi aldaketak ekarri behar ditu.

* Dena den, ni neu ez nago ados, Eskolaurreak zaintze edo asistentzi sozialaren kutsua gehiago izan duela, esaten denarekin. Ezagutzen ditudan esperientziengatik, hori hala gertatu bada, 2 urtetako haurrekin gertatu dela, deritzot, baina ez, 3-6 urtetako hezkuntz garaiarekin; haurra bere osotasunean hartzea, bere gorputzaren ezagupenik abiatuz ingurune hurbila ezagutzea, hizkuntzaren garapenarekiko planteamenduak eta antzekoak, ez dira zaintze kutsuaren planteamenduak, oinarri pedagogikoetan antolaturikoak, baizik.

II.2.- Derrigorrezko Lehen Mailako Iraskaskuntza.

Garai honetan emango diren aldaketa, erlatiboak izango dira:

-EGITURA, aldetik, urte bat erantsiz gehituko da, hots oraingo O.H.O.ko Lehen Etapak 5 urte baldin baditu, garai honek 6 urte izango litzuke.

-PEDAGOGIA aldaketan alorrean,

hauak, hiru ataletara mugatuko lirateke, batipat:

1.- Esperientzia eta ezagupen arloen definitze berri bat egingo litzateke.

2.- Hezketa Artistikoa eta Fisikoa indartu egingo lirateke.

3.- Atzerriko hizkuntzaren sarrera, aurreratu egingo litzateke.

II.3.- Derrigorrezko Bigarren Mailako Irakaskuntza.

Hasteko, ikasleok hezkuntz garai hau bukatzerakoan ez litzuke bi titulazio izango, **bat bakarra baizik**.

Garai hau definitzerakoan, gero askotan errepikatzen den definizioa azaltzen da: **IRAKASKUNTZA ULERGARRI** eta **BALIOANITZDUNAREN** garaia dela, hots, adin tarte bereko ikasle guztientzat ikasketa berdina, baina, eta hemen dator berrikuntza: ikasle hezkuntza behar eta interesei erantzun-go dien hezkuntza aukera desberdinak eskaintzea. Iadanik aurreikusten da, alde batetik, **ENBOR AMANKOMUNATU BAT**, baina bestetik, batez ere 9 eta 10gn. mailetan **ALOR DESBERDINEN ARTETIK AUKERAK EGITEKO PROPOSAMENA**.

II.4.- Batxilergoa.

Erreformen proposatzen den Batxilergoak, oraingoak duen iraupena baino motzagoa izango luke: 16-18 eta gainera U.B.I. desagertuko litzatekeelarik.

Batxilergoaren aldaketa nabarmenenak modalitate desberdinen antolaketari dagozkie, modalitate bakoitzean aukera desberdinak emango direlarik.



Modalitate eta aukeren multzoak, hiru bloke desberdinetan oso egitaratu eta anizturiko Batxilergo ikasketak itxuratzen ditu:

- 1.- Batxilergo guztirako arlo berdina.
- 2.- Modalitate bakoitzarekiko arlo espezifikoa.
- 3.- Aukerako arloak hertsiki.

Bestalde, Batxilergoko ikasketek berezko balioaz gainera, ondorengo ikasketa unibertsital edo motzagoak eta izaera profesionalagoaz osaturiko ikasketen prestakuntzako balioa izan beharko dute. (Balio "propedéutico"-a aipatzen da "Liburu Zurian").

II.5.- Hezketa Tekniko-Profesionala.

Aurrerapen nahiz aldaketa teknologiko eta merkatuaren eskabideei erantzungo dien hezkuntz egitura antolatu nahi da, egitasmo honetan sektore guztiak (enpresari, sindikatu e.a....) inplikatu nahi direlarik.

Garai honen egitura sistema, MODULOEN bitartez gauzatuko litzateke; hau da; unitate motzeko ikasketa garaiak, eta osakin PRAKTIKO HANDIAZ ingurune eskabide profesionalari erantzuteko asmotan.

III.- HEZKUNTZ GARAI DESBERDINEN ANTOLAMENDUA ETA EGITURA

III.1.- Haur Hezketa edo Eskolaurrea. (0-6 urte).

Garai honen garrantzia hezkuntz sistemaren osotasunean bi arrazoiengatik azpimarratzen da:

1.- Ikastetxeak lehenengo urtetako garapen prozesuan laguntza erabakiorra eskaini behar dio haurrari.

2.- Haur Hezketa, kultura, ekonomia eta gizarte ingurune desberdintasunengatik haurrengan sor daitezken hutsuneak, era eranginkorraz konpentsa ditzateke.

A) Helburuak:

Haur Hezkuntzaren irakas-ekintzak, haurra gaituko duen hezkuntza eta ikasketa prozesuak garatzeko, zenbait helburu hartu beharko ditu kontutan.

* Hauek dira, nik sailkatu ditudanak:

1.- Haurren gaitasun eta mugak kontutan hartuz, bere GORPUTZA EZAGUTZEN ETA KONTRO-

4.- Besteak ulertu, eta berak esan nahi duena ADIERAZTEKO GAI IZATEA.

5.- Talde sozial desberdinen PARTAIDE SENTITZEA (familia, gela, lagunak...).

6.- Besteekin elkarjartze batetan, astiro, astiro besteen ERITZI eta EKARPENEZ jabetzea.

7.- KOMUNITATEKO ZENBAIT BEREZITASUN KULTURAL EZAGUTU (ohiturak, musika, dantzak...).

B) Antolamendua:

Hezkuntza garai hau bi ziklotan banaturik antolatzea, erabaki da: 0-3 garaia, eta 3-6 garaia.

1.- (0-3) garaian, haurren irakaskuntza, GORPUTZAREN KONTROLEAN, MUGIMENDUAREN AUTONOMIAN ETA IKASLEAREKIKO INDEPENDENTZIAN, bideratu beharko litzateke, batez ere.

2.- (3-6) garaian, gune hauei eskaini beharko litzateke arreta berezia:

- GORPUTZAREN KONTROL AURRERAGARRIARI (progresiboari).

- HIZKUNTZAREN GARAPENARI, KOMUNIKAZIO TRESNA BEZALA.

- SORMEN, BEHAKETA ETA KURIOSITATEARI

- HAURRAK BEREKIKO IZAN BEHAR DUEN IRUDI BAIEZKOR ETA OREKATUARI.

Garbi dago luzapenak besterik gabe ez dakarrela irakaskuntzaren kalitatearen hobetzea eduki eta metodoen aldaketaz lagundurik ez badoa"

LATZEN IKASI BEHAR DU, bere buruaren garbitasun eta zaintzeaz jarrera ona agertuz.

2.- Eskolan nahiz eskolaz kanpoko ekintzetan BERE GISA PARTE HARTZEKO GAI IZAN.

3.- BERE INGURUNE-FISIKO NATURALA BEHATU, ARAKATU, berezitasun garrantzitsuenak identifikatuz.

D) Metodologia:

Irakas-ekintzek, IZAERA OROKOR ETA INTEGRATZAILE bat izan behar dute garai honetan; gaiak, arloetan baino esperientzi gunetan landu behar direlarik. Haurren ikasketak JOKU, ESPERIENTZIA ETA LAGUNEN ARTEKO HARREMANEN bidez landuko dira, hezkuntz ingurunea zenbat eta aberats eta motibagarriagoa, orduan eta hezitzailegoa izango delarik.

Leku, mobiliario eta materiale didaktikoak ere bere garrantzia izango du, IRASKASLEEN ONGI PLANIFIKATURIKO AKTIBITATEAK AHAZTU GABE.

Garai honetan oso kontutan hartzekoa izango da, GORPUTZ NAHIZ HUTSUNE PSIKOLOGIKOEN TRATAMENDUA ETA HEZIKETA ERE.

Hezkuntz lana egokiro egiteko, GELAKO/HAUR KOPURUA urrazten da:

8tik-15tera, 0-3 zikloan eta 18tik-25era, 3-6 zikloan. Eta azken honetan, dena den, talde bakoitzean **25 baino gehiago izango ez delarik.**

Garai hau, Derrigorrezko Irakaskuntza Garaia ez dela, ere, aipagarria da

III.2.- Derrigorrezko Lehen Mailako Irakaskuntza (6-12).

Lehen Mailako Irakaskuntzak, mutil eta nesken sozialgarritasuna eta kulturen sartzea erraztu behar ditu. Neska eta mutil, bere osotasunean kontutan hartuko dituen helmuga zabalak proposatu behar harko ditu.

Eskolak, harreman pertsonal aberatsen aukera eskainiko die neska eta

3.- Adin eta sexu desberdineko pertsonekin **harreman orekatu eta sortzaileak ezarri.**

4.- Inguruneaz lortu dituzten ezagupenak **beren eguneroko arazoak konpontzeko erabiltzeko gai izan.**

5.- Arazo soilak konpontzeko, informazioa lortu, sailkatu, antolatu eta **erabakiak hartzeko prozedura egokiak urratu.**

6.- Eritzi, sentipen eta nahiak **adierazpen era desberdinez** (ahoz, musikaz, gorputz eta marrazkiz) komunikatzeko gai izan.

7.- Komunitate Autonomoko hizkuntzan nahiz gazteleran, ahoz nahiz idatzizko mezuak ulertu eta sortzeko gai izan, komunikazioko testuinguru eta asmo desberdinak kontutan hartuz, eta hizkuntza kanpotar batean mezu erraz eta testuinguruak ulertu eta sortzeko gai izan.

8.- Ariketa fisiko, garbitasun nahiz elikadurarekiko oinarriko ohiturak praktikatu, gorputz garapena lagundu eta sendotu.

9.- Bizitzako oinarriko balore eta jarreraren garrantziaz jabetuarazi.

B) Antolamendu:

Egitura eratzailari dagokionez,

1.- Hizkuntza kanpotarraz:

Arlo bat etapa guztiaren zehar mantentzeaz ematen den salbuespen bakarra, hizkuntza kanpotarren arloan ematen da, zeren Lehen Mailako Irakaskuntzako le-

Irakasle bera talde batekin eta zikloan zehar, mantentzearen aldeko joera azaltzen da"

hen ziklotik ematen hasteko arazoak falta ez badira, Espainiako Estatuko hizkuntz aniztuen egoera kontutan hartuz, eta zenbait Komunitate Autonomotan bi hizkuntza ofizialez gainera, hizkuntza kanpotararekin, hiru izango lirategela gogoetatzen badugu, ez da egokitzat jotzen lehen ziklotik ikasten hastea, **bigarregotik**, baizik. Dena den, lekuko baldintzen arabera, lehenago hasteko ahalmena ere, eskaintzen da.

* Guri dagokigunez 3gn. mailatik ematen hasi beharko ginateke? Dena den, ez litzateke batere desegokia izango Erreforma indarrean jarri baino lehen, maila honetatik, edota beste batetik hasita, esperientzi batzuk urratzen hastea, hizkuntza kanpotarra, babes adierazpide bezala batez ere landuz.

2.- **Ikastalde/irakasle antolaketaz:**

Maisu/maistra bera talde batekin eta zikloaren zehar, mantentzearen aldeko joera azaltzen da, normala den bezala. Beste zenbait arlotarako (musika, plastika eta hezketa fisikorako) irakasle espezializatuen gomendioa eta beharra aipatzen da.

* Ea, hau egia bihurtzen den!

3.- **Garai honetako irakasle taldeari edo plantilari dagokionez:**

Irakasle/ikastalde kopuruak ez duela zergatik berdina izan behar, aipatzen du ere, Liburu Zuriak. Heziketa Berezirako egingo diren proposamenez gainera, eta ikastetxearen unitateak kopuru batetik pasatuz gero (*ez du kopuru hori zehaz-

Lehen mailako irakaskuntzak, neska-mutilen sozialgarritasuna eta kulturen sartzea, erraztu behar ditu"

mutilen beren desberdintasunak onar ditzaten eta onartu dituzten arau eta konpromezuak bete ditzaten.

A) **Helburuak:**

* Ikasleen gaitasun desberdinak osatuko litzatekeen helburuen artean, hauek izan dira, nik Liburu Zuritik aukeratutakoak:

1.- Beren ingurunean (familia, eskola, lagun auzo eta herrian) eta ohizko ekintzetan AUTONOMIAZ jokatzeko eta murgiltzeko gai izan, bakoitzaren baldintza eta mugak onartuko dituztelarik, beti ere beren buruarekiko konfiantza maila egoki bat landuz.

2.- Talde ekintzen planifikazio eta burutzean parte hartu, ezarritako arauak onartuz.

D.L.M.I. honek, orain Hasera eta Erdi Zikloek dituzten urteak gehi Goi Zikloko lehenengoa izango litzateke, host, **6 urte guztira, eta bi urtetako hiru ziklo osatua geratuko litzateke: (6-8), (8-10), (10-12).**

Arloei dagokionean, hauek izango lirateke Liburu Zuriari jarraituz:

Hizkuntza eta Literatura

Matematikak

Ingurunearen ezagutza (giza eta naturala)

Heziketa artistikoa (musika-plastika)

Heziketa fisikoa (gimnasia)

Erljioa (derrigorrezko eskaintza ikastetxearentzat eta nahiaren arabera ikasleentzat)

ten), irakasle bat gehiago beharko litzateke, gutxienez, laguntza eta orientazio lanak egingo lituzkeelarik.

* Ez du zehazten ere, orientazio lan hau zein izango litzateken eta irakasleak zer prestakuntza beharko luken lan hau egiteko.

Gelako ikasle kopurua, gehienez 25-30 bitartean finkatzen da eta hezkuntz behar bereziko ikasleak dauden geletan, kopuru hau, ez litzateke inoiz gaindituko.

4.- Ikasle batek emaitza asegarriak lortuko ez balitu zikloa amaitzerakoan egin liteke errepikatzearen planteamendua, baina beti ere salbuespen kasuetan, eta ez ohituraz. **Derrigorrezko irakaskuntza osoan zehar bi aldiz baino ez da errepikatuko.**

Ziklo batean urte bat gehiagoz egotearen erabakia, ikasle horren hezkuntzarengan eragina duten guztien aldetik hartzea, proposatzen da. Irakasle, tutore eta ikuskarien eritziak hartu beharko dira kontutan, bailarako talde piskopedagogikoaren aholkularitza hartu beharko den bezalaxe.

* Ados nago, errepikatzea ez dela

erraz egin behar, eta ahalik eta infomazio aberatsena lortu behar dela errepikatu behar duen ikasleaz, baina, bestalde, gehigarria deritzot hainbeste sektoretako jendeak parte hartzea.

D) Metodologiaz:

Garai honetako kurrikuluma **ezagupen eta esperientzia alorren inguruan antolatzen da.** Alor hauen planteamendu orokor eta arloartekoek, ikasleen interes zehatzenak eta eguneroko bizitzaren alor nagusienak, sartzen dituzte gelan. Honela, lor daiteke ikasleek eraginkorrago lan egin dezaten eta motibatuagoak egon daitezen, bere eguneroko bizitzarekin loturik dagoelako ikasketaren tarte batean.

III.3. Derrigorrezko Bigarren Mailako Irakaskuntza (12-16).

12 urtetatik aurrerako irakaskuntza garaia, hezkuntz sistema gehienetan alor eztabaidagarri eta konplexuenerariko batetan bilakatzen da.

Bigarren Mailako Irakaskuntzak (12-18), egitura sistema berrian, bi etapa bereizi izango ditu: **Derrigorrezko Bigarren Mailako Irakaskuntza (12-16) eta Derrigorrezko Ondorengo Biga-**

rren Mailako Irakaskuntza (16-18), Batxilergo eta Lanbide Heziketa Tekniko Profesionalez osaturiko garaia.

A) Helburuak:

D.B.M. Irakaskuntza bi funtzio betetzera dago deitua:


1.- Ikasleek gure garaiko kulturaren oinarrizko elementuak era kritiko batez barnera ditzaten, eta gizarte demokratiko baten eskubide eta beharrak betetzeko gai izango diren herritarrak izatea, lortu nahi da alde batetik, eta:

2.- Derrigorrezko Ondorengo Batxilergo nahiz H.T.P. ko etapetarako oinarriak jarri daitezen, lortu nahi da.

Halaber, gari honek, **EDUKIN BERTINEZ OSATURIKO MUIN SENDO BATEKO HEZKUNTZA BALIOANITZDUNA** eskaini nahi die ikasleei, hosts, kurrikulum amankomunatu sendo bat mantenduz, ikasleen interes eta beharrei erantzungo dien **AUKERAZKO KURRIKULUMA ESKAINI.**

* Beste helburu zehatzagoren artean, hauek aipatzen ditu:

1.- Gazteleran eta Komunitate Autonomoko hizkuntzan ahoz nahiz idatzizko mezuak, zuzen, autonomiaz



eta sormenez sortu eta ulertzeko gai izatea; hizkuntzaren erabilpenean ematen diren prozesuez gogoeta egin eta besteekin elkar komunikatzeko nahiz norberaren pentsamenduak antolatzeke erabili.

2.- Hizkuntza kanpotar batetan, gutxienez, ahoz nahiz idatzizko mezu zuzenak ulertzeko eta sortzeko gai izan, ohizko asmo eta testuinguruak kontutan hartuko direlarik.

3.- Hitzezko kode nahiz hizgabeak erabiliz, komunikazio asmo desberdinetako mezuak sortu eta interpretatzeko gai izan.

4.- Ingurunean ematen diren informazio iturri nagusienak (prentsa, irrati, ETB, aldizkari espezializatu, bildumak e.a....) era autonomo eta kritiko batez erabili.

5.- Gizarte bat gidatzen duten oinarriko balore eta mekanismoak aztertzeke gai izan.

6.- Arrazonamendu objektibo, sistematikoa eta zehatza erabili ezagupenezko eremu nagusienetan eta gero eguneroko arazoetan aplikatzen jakin.

(* Norbaitek helburu hauekin jarraitu nahi balu, 120, 121 eta 122 orrietan daukatela, jakinerazten diot).

B) Antolamendua:

Garai honek 4 MAILA IZANGO DITU, BI ZIKLOETAN BANATUTA (7, 8gn. mailak) eta (9eta 10gn. mailak), edo nahi bada, Derrigorrezko Bigarren Mailako Irakaskuntzaren 1 eta 2gn mailak, eta 3, 4gn. mailak.

Emango diren arloak, hauek izango dira:

Natur Zientziak
Heziketa Fisikoa
Heziketa plastikoa eta ikusmenekoa
Geografia. Historia eta Giza Zientziak
Atzerriko Hizkuntzak
Hizkuntza eta Literatura
Matematikak
Musika

Erljioa (derrigorrezko eskaintza ikastetxeentzat eta nahiaren arabera ikasleentzat)

Teknologia

1.- Alor kurrikular bakoitzak, asteko, gutxienezko beharrezko ordutegi bat izango du Estatu mailan, zenbait ikastorduren aukera Komunitate Autonomoei eta MEC berari eskainiz, bere gestio gintzako esparruan, behar dituzten ordu gehitzeak egin dituzten.

2.- Badirudi, **D.B.M.I.ren eskola ordutegia 27koa izan daitekela lehen zikloan, eta 30koa, bigarrenean, orain O.H.O.ean dagoena**, gehituko litzatekelarik.

Arlo amankomunatuena ordutegiak, **garai honen hasieran %90ean koka daiteke, azkenengo urteetan %65-75 tartean gera daitekelerik.**

Bestalde, garai honetako Oinarriko Diseinu Kurrikularrak, arlo bakoitzeko helburu orokor eta edukin blokeez gainera, irekitasun eta malgutasuna beharko du **AUKERAZKO KURRIKULUMARI** bere lekua uzteko.

3.- Baina, nola antolatu nahi da **AUKERAZKO KURRIKULUMA** edo **HEZKUNTZ ESPAZIO HORI?**

* Liburu Zuriak eredu hauek proposatzen ditu:

Derrigorrezko 2. Hezkuntzaren Lehen Zikloa 1. eta 2. ikasturteak

* Adar orokorra:
Natur Zientziak
Heziketa Fisikoa
Geografia. Historia eta Giza Zientziak
Hizkuntza eta Literatura
Atzerriko Hizkuntza
Matematikak
Musika/Plastika eta ikusmenekoa
Erljioa (derrigorrezko eskaintza ikastetxeentzat eta nahiaren arabera ikasleentzat)
Teknologia

* Aukerazko espazioa:

Astean 27 orduko ordutegi batean oinarriturik, etaparen bi lehenengo ikasturteetan, aukerazko portzentaia %10aren inguruan ibiliko da.

* Lehen ziklo honetan ikasleak izango luken aukeratzeko tartea, **2,7 ordutako** izango litzateke.

Begira dezagun orain bigarren ziklora. Hemen Liburu Zuriak, eredu bat poposatzen du 3gn. mailarako, baina bi aukera 4gn. mailarako. Ikus ditzagun:

Derrigorrezko 2. Hezkuntzaren Bigarren Zikloa. **Hirugarren Ikasturtea**

* Adar orokorra:
Natur Zientziak
Heziketa Fisikoa
Geografia. Historia eta Giza Zientziak
Hizkuntza eta Literatura
Atzerriko Hizkuntza

Matematikak
Musika/Plastika eta ikusmenekoa
Teknologia
Erljioa (derrigorrezko eskaintza ikastetxeentzat eta nahiaren arabera ikasleentzat)

* Aukerazko espazioa:

Astean 30 orduko ordutegi batean oinarriturik, etaparen hirugarren ikasturteko aukerazko portzentaia %20aren inguruan ibiliko da.

Hirugarren mailari dagokionez, aukerazko tartea bada, **6 ordutako.**

Derrigorrezko 2. Hezkuntzaren Bigarren Zikloa. **Laugarren Ikasturtea**

1. Alternatiba

Proposamen honetako elementurik nagusienak hauek dira, alde batetik, Matematikaren bi aukera desberdin egin daitezkeela eta, bestetik, ikasleak, hiru arloren artean bi arlo hauta ditzaketenaren posibilitatea, duela.

* Adar orokorra:

Heziketa Fisikoa
Hizkuntza eta Literatura
Atzerriko Hizkuntza
Matematikak (bi aukeraketa desberdinez)
Erljioa (derrigorrezko eskaintza ikastetxeentzat eta nahiaren arabera ikasleentzat)

* Hiru honokoon artean bi arloren hautaketa:

Natur Zientziak (Fisika eta Kimika)
Geografia. Historia eta Giza Zientziak
Teknologia

* Aukerazko espazioa:

Astean 30 orduko ordutegi batean oinarriturik, etaparen laugarren ikasturteko aukerazko portzentaia %30 eta %35en artean ibiliko litzateke.

2. Alternatiba

Kasu honetan ikasleak arloetako bi blokeren artean hautatu behar du, eraberean bloke bakoitzaren barnean beste bi posibilitate dituelarik.

* Adar orokorra:

Heziketa Fisikoa
Geografia. Historia eta Giza Zientziak
Hizkuntza eta Literatura
Atzerriko Hizkuntza
Erljioa (derrigorrezko eskaintza ikastetxeentzat eta nahiaren arabera ikasleentzat)

* Arloetako bloke baten hautaketa bi honokoen artean:

- Matematikak (A aukera)
- Natur Zientziak (Fisika eta Kimika)
- Teknologia ala Musika/Plastika
- Matematikak (B aukera)
- Musika/Plastika
- Teknologia ala Natur Zientziak

* Aukerazko espazioa:

Astean 30 orduko ordutegi batean oinarriturik, etaparen laugarren ikasturteko aukerazko portzentaia %25 eta %30aren inguruan kokatuko litzateke.

Aipagarria da bi alternatibotan azken ikasturte honetako adar orokorrean azaltzen ez diren arlo orokorrak, hasieran hautatu ez duten ikasleentzat aukerazko gisa eskaintzen zaiela. Era berean, arlo orokorren murrizketa bi alternatibotan, lehen hiru ikasturtetako funtsezko edukinen banaketa suposatuko luke. Azkenik, beste posibilitate bat litzateke astean zehar ordu batzu eskaintzea Elkarbizitzarako Heziketari, ikasle guztiak, beti ere, Geografia, Historia eta Giza Zientzietako edota, Filosofiako irakasleen ardurapean egingo litzatekeelarik.

Laugarren mailako lehen aukeran,

tartea **9-10,5koa da**, eta bigarren aukeran **7,5-9koa**.

Arloekin bukatzeko, **bigarren hizkuntza kanpotar bat ematearen planteamendua ere, egiten da.**

4.- Kurtso batetik bestera eragintzari dagokionez, pasatze hau automatikoki egingo da, errepikatzea, etapa honetako lehen zikloan edota etapa bukaeran da bakarrik, eta urte bete batez eta salbuespen bezala, egingo litzatekeelarik. Bestalde, aurreraxeago aipatuz bezala, Batxilergo eta H.T.P.era pasatzeko, etapa honen bukaeran titulazio bakarra emango litzateke.

5.- Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzak dionenez, 12-18 urte bitarteko garaia, hots, Bigarren Mailako Irakaskuntza guztia bere gain hartzen duen ikastetxea, izango litzateke egokiena, antolamendu aldetik.

6.- Iraskaslegoaren espezializazioaz: gaur egun, O.H.O.ko. Goi- Zikloko irakasle espezialistek ematen dituzten arloak emateko aukera, gero ere izango dute etapa honen lehen zikloan (12-14), honetarako inongo titulazio berezirik eskatuko ez zaielarik.

lanpostuak O.H.O.ko irakasle eskainiko zaizkie. Denbora honetan, O.H.O.ko irakasle lizentziatuei, behar diren neurriak jorratuz, Bigarren Mailako Irakaslego Taldera pasatzeko aukera emango zaie.

D) Metodologia:

* Etapa honetan, Desberdintasunerako Hezkuntzak, bere garrantzia izango du, horregatik, Liburu Zurian, talde malguak gela barruan antolatzearen proposamena, egiten da, hots, maila bakoitzean errendimendu maila desberdinak ezarri; nahiz eta ikasle guztiak arlo berdina landu, arlo batzuetan ESKAKIZUN MAILA DESBERDINETAKO taldeak antolatu.

1996raino, lehen ziklo honetarako

TAULA OSAGARRIAK

Hezkuntz Erreformeraren Ezartze Egutegia:

	LEHEN HEZKUNTZA						DERRIGORREZKO BIGARRENA				1 MODULU P.	BIGARREN HEZK. BATXILERGO (2.2)		3 MODULU P.
	1.º	2.º	3.º	4.º	5.º	6.º	1.º	2.º	3.º	4.º		1.º	2.º	
	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15		16	17	
1989-90	Legearen aladarrikapena. Kurrikulum eztabaida. Hezkuntz sistemaren hobakuntzarako neurri berezien ezarpena													
1990-91	Legearen garapena. Edukin kurrikularren definizioa. Hezkuntz sistemaren hobakuntzarako neurri berezien ezarpena.													
1991-92	x	-	-	-	-	x	-	-	-	-	x	x	x	x
1992-93	x	x	-	-	-	x	x	x	-	-	x	x	x	x
1993-94	x	x	x	-	-	x	x	x	x	-	x	x	x	x
1994-95	x	x	x	x	-	x	x	x	x	x	x	x	x	x
1995-96	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
1996-97	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
1997-98	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x

OHARRA:

Erreformeraren prozesuan zehar, moduluak ipintzen joango dira. 1997-98 ikasturtean, Batxilergo berria bukatu duten ikasleentzat modulu 3 deiturikoen eskaintza gehituko da.

* Dirudienez, Erreformeraren ezartze egutegia urte betez atzeratuko da



Gemma Zabaletarekin Elkarrizketa.

(Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaria)

ISILIK: Nola planteiatzen da Hezkuntz Sistemaren Ordenamendu berria?

Gemma Zabaleta: Irakaskuntz Ertainen Erreformaren (I.E.E.) esperimentazioak Erreformaren orokortasunarekin eduki dezakeen diferentziak suposatzen duena zera da, arau orokor batzu eskaintzen dituela, alegia.

Ikastetxe gutxi batzu direla medio Hezkuntz sistema gauzatu duen diseinu eta eredu baloratu ahal izateko ikasleen partaidetza handiagoz, zeinetan ikasleen ikasketak eta ahalmenak gehiago garatzen ahalegintzen bait zen, ikasketa akademikoak baino, eta horri gehitzen badiogu, Sistema orokorrean somatzen zen eskola porrotaren gehikuntza eta, Irakaskuntza Ertainetara iristen zireneko deseskolatze nabaria, besteak beste, eta Lanbide Heziketa egungo lan mundura moldagaitza bilakatzen ari zenez, egungo beharretara hurbildu eta gertatzen ari den gizarte eta teknologialdaketa mugatuko litzatekeen sistema egokiago baten beharrez geundelako, batipat.

Noski, Erreforma esperimental hau lan inportante bat izan da, batez ere, datorkigun Sistemaren antolaketan dakusagun eta ikasketa/irakaskintzaren printzipio sikopedagogikoen oinarrietan datzan lan praktikak aurrera eramane eta beroietatik ondorio garrantzitsuak atera ahal izateko. Beraz, Erreformak, une honetan planteiatzen den Sistemaren antolaketak, ikasketa konstruktivistaren inguru orokor bat planteiatzen digu, Sistema tradizionaletik erabat desberdina; azken honek zituen akatsak konpondu nahi ditu, hala nola; 16 urte bitarteko eskolatzearen derrigortasuna, Lanbide Heziketaren ezarpena Irakaskuntzaren sisteman (ez Heziketaren zati pobregoa bezala edota, orain arte zegoen gisan) eta une honetan, guk Euskal Komunitate Autonomoan daukagun marko orokor hau

Estatu osorako izango da, nahiz eta gure Komunitateak zenbait xehetasun erantsi beharko dituen, ez diseinu kurrikularrean bakarrik, baizik eta Lege diseinua izango den guztian.

ISILIK: Zehaztuko al zenituzke xehetasun horiek?

G. Z.: Une honetan, Komunitate Autonomoetako Ministeritzen artean eta ikuspegi teknikotik kontsentsuatzeko ari dena da, etapetako eta kurrikulumeko arlo bakoitzeko helburu orokorrak. Guk, kurrikulumeko arlo guztiei, edukien diseinukurrikularren proposamena egingo diegu. Hau, datorren ikasturteko 1^a hiruhilabete arte ez da aztertuko, baina ordurako prestaturik dauzkagu diseinukurrikularren proposamena egingo duten lan-taldeak, gero guk kontsetsura eramango duguna, alegia. Jakina, ez dugu uste, zergaitik egin behar den Kurrikulum-diseinu alternatibo bat, hots, guk uste dugu gaurko lege markoak laguntzen digula, Komunitate Autonomo bezala gure ekarpena egin dezagun. Non egiten dugun gure ekarpen hori? Batez ere, zehatzago den horretan, beraz, arloetako edukinak diren horretan eta noski, gero, Ikastetxe-Proiektu kurrikularra den zati bat legoke, hori Ikastetxe bakoitzarentzat autonomia litzateke eta hortaz gainera gela-programaketa ere, Ikastetxe bakoitzaren eta gela bakoitzarenak direnak izango lirateke; ondorioz, marko honek askoz gehiago laguntzen du (eta hau puntu inportante bat da noski), orain arteko kurrikulumak zen baino, askoz ere kurrikulum irekiago eta malguago duen irakaskuntza batetik abiatzen garelako. Guzti honek, irakasle eta irakasle taldeen mentalitate eta jarrera aldaketa nagusi bat suposatzen du.

ISILIK: Komunitate Autonomo barnean, kurrikulum proposamen bat, alegia?

G.Z.: Bai, bai. Guk egingo duguna zera da; Diseinu Ku-

rikularraren proposamen bat. Nik horrela deitzen diot, zeren eta, etapa eta arlo bakoitzean lortu nahi diren helburu orokorretan, kontsentsu bat dagoelako Komunitate Autonomo guztietan. Komunitate Autonomoari dagokiona bereziki, arlo bakoitzari dagozkion edukinak izango dira. Bistan da, edukin horietako zenbait puntu elkarrekikoak izango direla, hau da, gure Komunitateari dagozkionak, baina, zerikusia dutenak bai Andaluziako edota, Galizako edota, Ministeritzako propioak diren edukinekin eta, arlo batzutan, are gehiago.

ISILIK: Hizkuntz-arloa, adibidez!

G.Z.: Hizkuntz arloa dudarik gabe, baina Zientzia arloa da batez ere, Komunitate Autonomotik egin behar den ekarpen propioa, hots, besteek egin dezaketik erabat desberdina. Grafikoki esplikatu behar bagenu, horrela adieraziko genuke; Autonomiazko hiru mailaz arituko ginatke, alde batetik, arlo orokor batzuren definizioa eta arlo horientzat helburu orokorrak dauzkagu, zeina, Komunitate Autonomo desberdinen eta Ministeritzaren arteko kontsentsu maila batetan zehazten den, eta behin kontsentsuz lorturiko oinarri orokor horretatik abiatuz gero, diseinu bat dago, eta Komunitate Autonomoak egiten dituen aportazioen bidez, lehenengo diseinu kurrikularra sortzen da, osotasun baten barnean, zenbait gauza jakina, beste Komunitate Autonomoek egin ditzaketen ekarpenekin bat datozerarik eta beste zenbait aldiz, askoz ere zehatzago direnak, hala nola, Literatura, Linguistika, Historia, Giza-Zientziak,... hots, ekarpen bereziak,; eta gero, hirugarren maila bat dago, hau da, helburu orokor horiek eta Komunitate Autonomoko kurrikulum hori nola egokitu Ikastetxe bakoitzaren proiektuan alegia, zeren eta jakina, Ikastetxe batek edota, Klaustro horrek duen proiektuaren arabera egokitu beharko bait du, hau da, gai batzuek baino gehiago landuz eta sakonduz. Hori izango litzateke egitura, hitz gutxi batzutan aipatzekotan.

Une honetan, Hezkuntza Sailak argitaratua du jadanik, zabalkunde txosten bat, non Erreformaren oinarriko

Zientzia arloa da batez ere, komunitate autonomotik egin behar den ekarpen propioa

printzipio psikopedagogikoak eta Sistemaren egituraketa, bertan esplikaten diren. Hori izango da 1^o txostena, eta Kurrikulum Diseinuaren edukinaren proposamenaz jabetzen garen neurrian, beste txostenak argitaratuko ditugu, guztien informazioarako eta Eskola-Komunitatean aztergai izan daitezten.

ISILIK: Bai al duzue inolako proposamenik?

G.Z.: Ez oraindik ez. Lanean dihardugu eta datorren ikasturteko 1^a hiruhilabeterako izango dugula, uste dut. Une honetan, Zuzendaritza-taldeak informatzen ari gara gero, Zuzendaritza-talde hori beraiek, Klaustroetan informazio hori bidenabar, aztertu eta dinamiza ahal izateko. (Zeren eta kasu askotan, edozein irakasle ez bait daki Erreformaz ezertxo ere, eta Zuzendaritza talde hauek izango dira lehendabiziko bitar-

tekoak). Ondoren eta, Erreformaren ezarpena urtebete atzeratuko balitz (eztabaidatzen ari den gisa, nahiz eta, ofizialki deus esan ez den), nahiko denbora badugula uste dut, proposamen horiek aztertzeko eta beste Komunitate Autonomoekin adostasunera eta kontsentsura iritxi ahal izateko.

ISILIK: Zernolako metodologia erabikiko duzue horretarako?

G.Z.: Datorren 1990-91 ikasturtean, gure Komunitate Autonomotik, Oinarriko Kurrikulum Diseinuaren inguruan egingo ditugun proposamenez, informazioaren banaketa egingo dugu. Eta 1991-92ra atzeratuz gero Erreforma, orduan,

Egindako azterketaren arabera, 500/600 irakasle berri gehiagoren beharra nabari da, host, ez da inor soberan.

urtebete gehiago izango genuke lanerako. Eta Ikastetxeen aldetik proposamen gehiago izan daitezten, une honetan jada, deialdi bat antolatu da Eskola Publiko, Pribatu eta Ikastolei begira, kurrikulumeko arlo guztietan berrikuntza kurrikularrari buruzko Proiektuez; Diseinu Kurrikularraren proposamenak landuko dituzten irakasle-taldeen eraketarako, zeren, etapako eta arloetako helburu orokorrei buruz lan egin bait daiteke.

ISILIK: Zein izango da antolaketa?

G.Z.: Une honetan aztertzen ari gara zernolatan geldituko diren Lehen mailako, Bigarren mailako ikastetxeak, e.a., oso gai zabala delako. Gai zabala, bai, Udaletxeak ere ukitzen dituelako eta azterketa sakona egin beharko delako herri konkretuetan.

Esku artean ditugun azterketek adierazten digute nolabait, Erreformaren ezarpenak, bi ingurune desberdinetan suposatuko ligukeen kostoen gutxigorabeherakoa. Bata, izango litzateke jendetza bildua duen herria, eta bestea, sakabanutua dueneko. Zergaitik? Bada, eman behar zaizkien erantzunak oso maila desberdinetakoak direlako, hau da, base-ri giroan baldin bagaude edota, hiri barnean. Eta azterketa horietatik zenbait ondorio atera ditugu, hala nola, adib.; Lehenengo mailako ikastetxetarako "superavit-a" dagoela, bai instalakuntza, etxe eta baita, irakasle aldaketak ere; eta Bigarren mailakoetan aldiz, "defizit-a" maila guztietan.

Orduan, hortik abiatuz, bost posibilitate edo soluziobide ikusten ditugu, eta herriz-herri boston kostoa ongien aztertu ondoren, egokiena dena hautatuko dugu, hori etxeari dagokionez eta irakaslegoari dagokionez, gauza bera, eta hemen esan behar da, azterketa honen arabera, 500/600 irakasle berri gehiagoren beharra nabari dela, hots, ez da inor soberan, alderantziz, sistemak eskaintzen duena seguru aski, lanbide berriekiko adaptazioaren beharra dela, eta ez da ahaztu behar gakoak, irakaslegoaren hobakuntza-egitasmoan datzala.

ISILIK: Irakaslegoaren titulazioari buruz, zerbait gehiago zehaztuko al zenuke?



G.Z.: Bai, bai, adib.; OHO-n baditugu hainbat lizentziatu eta errezklaia baten ondoren, etapaz alda daitezke (beti ere, berauen adostasunez horrekin, arestian aipaturiko defizita murriztu daiteke. Eta gero, erreziklai-egitasmu desberdinen bidez, hala nola; 3-6 hilabeteko erreziklaiatik hasi eta, liberazioaldiak arte, ikasketa lizentziak hau da, irakaslea urtebetz eskolatik liberatu ondoren, eta soldata kobratuz, gainera, bere ikasketak jarraitzeko edota, beste zerbait ikasi ahal izateko), horretarako ezinbestekoa da aipatu Hobakuntza Egitasmu hori.

ISILIK: Zertan datza Egitasmu hau?

G.Z.: Hobakuntza-Egitasmu honek aurrekontu handia du, une honetan, 900 milioe pta.koa da; bertan, espezializatuen irudiak sartzen dira, batetik, hau da, datorren ikasturtean agertuko dira (urteko egitasmoa datorren astean argitarauko da eta Ikastetxe guztietara bidaliko), hiru espezialisten beharra azpimarratuz; Musika arlorako, Heziketa Fisikorako eta atzerriko Hizkuntzentzako. Hirurok, lehen etaparako, hots, OHO-ko irakasleentzat, non 700/800 ordutan Unibertsitateak homologaturiko titulu baten jabe egiten diren, gero OHOk plantilan erantsi daitezten.

Bada, beste zenbait irudi **Kontsultaria**-rena OHOn edo, Ertainetan **Orientatzaile**arena diren bezala. Irudi hauek psikopedagogoen bidez beteko dira eta Ikastetxe guztietan ezarriko direlarik, eta horrela, Irakaslearen zati handi batek bere etorkizuna, alor horretan edukiko du.

ISILIK: Heziketa Fisikoaren espezializazioa martxan dago jadanik, eta Musikako espezializazioa aldiz, noizko planteiatzen da?

G.Z.: Atzerriko Hizkuntzaren eta Musikaren espezializazio, datorren ikasturterako izango lirateke. Datorren urtean argitaratuko den urteko Egitasmuan, posibilitate hauek iragartzen dira; Irakaslearen erreziklairako alternatiba horren berri ematen da eta gainera, beste baldintzak zeintzu izango diren zehazten, hala nola; noiz aterako den deiladia, zeinentzat, etab., ... Eta nere ustez, bi espezialitateok arrakastatsiak izango dira, zeren eta arlo hauen bidez, irakasle zati handi batek bere lanbide moldaketa lortuko bait du.

ISILIK: Hau dena argitaratuko al duzue?

G.Z.: Bai, bai inprimategian dago eta datorren astean argitaratzeko asmoz.

ISILIK: Erreziklaia, zer motatako irakasleentzat litzateke?

G.Z.: Gaur egun ikastetxetan lanean ari den edonorentzat da. Magisteritza Eskolak beraien espezialitate gisa planteiatzen hasiak dira, irakaslearen hasierako hezkuntza bezala eta ez hezkuntza iraunkor gisa. Hemen bait dago gakoa! eta zalantza honetan daude orain.

ISILIK: Hala eta guztiz ere, arazorik handiena 12-16 urte bitarte honetan dago, ezta?

G.Z.: Bai, bai konplexuena agian, ... Ze, lehen hezkuntzako irakaskuntza globalizatuago dela uste badugu ere, 12-16 urte bitarte honetan, globalizazioaz gainera, aukeraketa eta aniztasun edo dibertsitatearekin topatzen gara; dibertsitate kurrikularra eta aukeraketa hauek irakaskuntz konprentsiboaren hobakuntza -alternatiba bezala, beti ere, ikasleak, sistema arruntetik ihes egin ez dezan. Beraz, etaparik zailenarikoa agian, espezialitateak ere agertzen direla kontutan hartzen badugu eta bestalde, kurrikulumean gehiegi landu gabetanik zeuden gaiak (adib., Oinarrizko Teknologia) agertzen baizkigu, nahiko zaila, ...

Bestalde, hemen aipatu behar da, datorren ikasturterako Irakasle Hobakuntzaren asmo horren zati bat Oinarrizko Teknologiaren heziketara bideratuko dela, OHOk eta I.Ertaineko irakasleentzak zuzendua.

Eta landuko den beste alorra zera **Heziketa-Aholkulari** edo **Kontseilari**arena izango da, hau da, gainontzeko irakasleei proiektu hezitzaileak bideratzen lagunduko dieten aholkulariak. Eta heziketa hau ez da izango PATetan daudenentzat bakarrik, baita Ikastetxe barruan dauden beste irakasleentzat ere.

ISILIK: Hau izango al litzateke "Hezitzaileen Hezitzaile" deiturikoa?

G.Z.: Bai, hori da. Abiaturiko eta oraindik osatzeke dagoen prozesua da. Une honetan, Ministeritzako deialdietan prestatuturiko hezitzaile-talde bat dago. Egun, hiru lurraldeetan daude eta hil honetan agindu bat argitaratzeko asmoa dugu, non, pat guztien diseinua egin eta aipaturiko aholkularien beharra izango duten kurrikulumeko arlo guztiak izendatzen diren, eta aholkularitzan duaden guztiak, arlo horietan sartzeko posibilitatea eduki dezaten; eta 30 lanpostu berriren deialdia luzatuz gainera, Komunitate Autonomotik bertatik, aholkularientzat izango diren ikastaroen antolakuntza prestatuko dugu. Zer esan hani duen guzti horrek? Bada, egitaraua berbideratzea, hemengo beharretara egokituz, eta azkenik, Komunitate Autonomo honetan, irudi honen heziketa posibilitatea, alegia.

ISILIK. Eta zer diozu Hizkuntzen espezialitateari buruz?

G.Z.: Hizkuntzei dagokienez, Hizkuntz modernoaren ezarpenari buruzko esperientzia bat daukagun une honetan, deialdi bat ateratzen deneko 2. urtea da aurtengo hau, eta 76 ikastetxe badira OHOk 3. urtetik hasita, (Frantsesa ala Inglesa) esperientzia proiektua dutenak. Eta datorren urtetik aurrera, atzerriko hizkuntzetan espezializatuak diren irakasleentzat Heziketa-ikastaroaren deialdia antolatu dugu.

ISILIK: Eta hori noiztik aurrera?

G.Z.: Hori martxan dago jadanik. Gaur egun 76 ikastetxe daude atzerriko Hizkuntza, OHOk 3. ikasturteetik aurrera ezarria dutenak. Eta 120 espezialista horiek amaitzen dutenean beren ikastaroa, lehenengo 76 horiez gain, beste 120 ikastetxe izango ditugu.

Horretarako, 3 ekintza nagusi egon dira; batetik, ezarpena zegoen, hau da, OHOk 3. urtetik aurrera hizkuntz moder-

Irakasle laguntzaileak katedradunetara heltzeko ez da egongo mugaketarik, % korpuru orokor bat baizik”

noaren ezarpena esperientzia gisa egin zuten ikastetxeena. Orduan, deialdiaren zati bat **ezarpena** eta ikasketa horien **banaketa** zen, hots, gelako 15/16 ikaslekoa izan zedila; baita ere, **beken** bidez; irakasle espezialista horiek, atzerrian heitzeko edota, beren espezializazioaren erreziklaia egiteko aukera izan dute eta horretaz aparte, Irakaskuntza Ertainetara zuzendurik eta BBB-UBI 3. ikasturteko ikasleentzat ere, **beka** batzu antolatu dira, ikasten ari diren hizkuntzari buruzko ikastaro bat egin dezaten.

Hauek izan dira esperientzia honetan eman diren urratsak. Guzti hau esperientzia gisa eman da baina, aurrerantzean orokorki ezarri nahi da, eta espezializazio honek nahiko arakasta jasoko duela, iruditzen zait, zeren eta, espezializazio Ikastaro hau Unibertsitatearekin batera antolatu bait dugu, ordu kopuru batez homologaturik eta titulu baten balio administratiboz lagundurik.

ISILIK: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara pasako diren irakasleei titulazio berriren bat edota, espezializazioaren bat eskatuko al zaio?

G.Z.: Gaur egun OHOn dauden irakasleak, Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzako irakasleak izango dira, nahiz eta, Oinarrizko Hezkuntzako azken zatian, arlo desberdinetako espezializazioa agertuko den hau da, Heziketa Fisikoa, Musikoa eta Hizkuntzen irakaskuntza. Hain zuzen ere, orain irakasten ari garen ikastaldiok, egun OHOk irakasleak diren horiek gaitasuna emateko dira eta, gaitasun eta titulazio horri esker, Oinarrizko Hezkuntza horretan irakas dezaten

ISILIK: Eta gainontzeko irakasleei ez al zaie deus eskatuko?

G.Z.: Ez, deus ez. Hori bai, OHOk irakasle lizentziadunak edo lizentziatura ateratzen ari diren irakasle horiek, Bigarren Hezkuntzara pasa daitezke.

ISILIK: Bigarren Hezkuntzara pasa daitezkeen irakasleak lizentziatuak izango direla esan duzu, baina, LOGSEk epealdi iragankorraz ere dihardu,...

G.Z.: Halaxe da. Legeak honoko hau onartuko du: Erreformaren ezarpenak 8-10 urteko iraupena izango baldin badu, legeak epe iragankor bat uzten du, hau da, hainbat urtetan jendea Bigarren Hezkuntzara pasa daitekeela, alegia. (Eta orain, Bigarren Hezkuntzako irakasle katedradun eta irakasle laguntzaileak datozkit burura; lehen, Ikastetxe bakoitzeko eta asignatura bakoitzeko **katedradun bakarra** onartzen zen) eta orain aldiz, ez, katedradunak eta laguntzaileak egongo dira baina, laguntzaileak katedradunetara heltzeko ez da egongo mugaketarik, % kopuru orokor bat baizik, hau da, Bigarren Hezkuntzako irakaslego katedradunen %30a arte, katedradun laguntzaileek osatuko dute, legeak erabakitzen duen irakaskuntza-merezimenduak direla medio, hots, irakaslegoak etapaz eta zikloez pasatzeko aukera handiagoa izango du (hori bait litzateke egokiena, Irakaskuntz-sistema osoan irakasle-goaren joan-etorria, alegia; adib., Lehen mailatik, Bigarrenera edota, alderantziz, eta baita, Ikastetxean dagoen irakaslegoa Laguntza-Zerbitzura pasatzea eta alde-rantziz,...)

Beraz, legeak onartuko dituen epealdi iragankor hauek, gaurko errealitatea egokitzeke adinako denborakoak izango dira.

ISILIK: Hizkuntz erduei dagokienez, nola geldituko lirateke?

G.Z.: Gaurko A,B, eta D ereduok, berrikusiko ez balira, Derrigorrezko Hezkuntza osoan segituko lukete.

ISILIK: Eta ez dago ereduok berrikusteko asmorik?

G.Z.: Une honetan, OHOk 8. mailetan egiten ari den ebaluazioa baliagarri izan diezaiguke, 3 ereduon sistema osoan ebaluazioa, eta hori amaitzean baliteke, orduan, erabakiren batzu hartzea. Baina, une honetan behintzat, ez daude aztergai eta eritzi berarekin jarraitzez geroz, Derrigorrezko Irakaskuntza osoan jarraituko dira. Beraz, aurreko argitaratutako den EIFE liburuan eta nobedade gisa, 3 ereduotako 8. mailen ebaluazioaz lagundurik aterako da.

Eredunok, une honetan behintzat, ez daude aztergai eta eritzi berarekin jarraitzez gero, derrigorrezko irakaskuntza osoan jarraituko dira”

ISILIK: Eta Heziketa Berezia, nola geratuko litzateke?

G.Z.: Orain, pausu batzu ematen ari gara Sindikatu, Ikastetxe, Guraso, etabarrekin; ikasle-talde ugariak egon daitezten egokitutako Lanbide Heziketako sailetan, hots, OHOk irakaslearekin edota, tailerreko maisuarekin edo, dagokion laguntzailearekin, horrela, Irakaskuntz Ertainetan sar

daitezen, zeren eta, ikasle hauen eskolatzea 19 urte artekoa izan behar duela, adierazten baita. Beraz, zenolako baldintzetan eskolatzen diren ikusi beharko da eta, Sail honetako filosofia behintzat, ahal diren gehienak beste edozein ikasleren baldintza berberetan eskola daitezenarena da. Edozein modutara ere, Ikastetxe arruntetan beraien gela bereziak eduki ditzatela, alegia.

Laburbilduz: Integrazioa honela geratuko litzateke; 16 urte bitarte, Ikastetxe arruntetan egongo lirateke, gero, ahaleginak egingo lirateke piskanaka-piskanaka, bertan Lanbide Heziketaren moduluak egon daitezen, edota, Lanbide Heziketa irakasten den ikastetxeetan egokituriko Lanbide Heziketako taldeak egon daitezen, non, eskolatze eta integratzeaz gainera, lanbide batetarako trebetasunez jabe daitezen, gero beraien lanbiderako baliagarri izan dakizkien.

ISILIK: Herri berean, hiru Ikastetxe moeta desberdin dagoenean, ez al da arazorik sortuko? Zer gerta liteke?

G.Z.: Badirudi, gai askotan bederen, hurbiltasun bat bada-goela, lan arloak zeintzu diren zehaztez gainera, seriotasun



osoz ari da lanean eta antza denez, legealdi honetan Gobernu osoa adostasun batera iritsi daitekeela heziketa mailan. Beste gauza bat izango da Lege Proiektu gisa eratzeko denborarik izango denentz. Baina dena dela, oraingorako ez bada hurrengo legealdirako kontsetsu oinarri handi bat lortu bada, horrek asko erraztuko du arazoa.

ISILIK: Eta ikastetxe horien egoera juridikoa desberdina bada, zer gerta liteke?

G.Z.: Horrek benetan, egoera argitzez gainera, Sistemaren Ordenamendu berria izugarri erraztuko luke, hau da, hiru sare eduki orde bi besterik ez edukitzeak, alegia. Zeren eta, ez baita gauza bera herri batetan negoziatzea sare publiko bakarria osatzen duten Ikastola eta Ikastetxe Publikoaren artean akordio bat dagoenean (gero, antolaketa aldetik, askoz ere zehatzago ikusi beharko litzateke Ikastetxeen banaketa zenolako litzatekeen; zein izango den egokiena Bigarren Hezkuntzarako, zein Lehenengorako, etab.,... nahiz eta inplikaturikoekin beti hitzegin eta negoziatu behar den, egoera berria zein den

jakiteko,...), edota, hiru sare direnean, honek izugarriko zailtasuna ezartzen bait dio Erreformari.

ISILIK: Eta arazo guzti honi, ikasle-urritasuna eransten badiogu,...

G.Z.: Horixe, iaz ikasleen erakargarritasunerako ia-ia marketing-sistemak erabili ziren prentsa-iragarkietan. Baina hori Erreformatik kanpo dagoen faktore bat da.

ISILIK: Eta nola dago Euskal Eskola Publikoaren arazoa?

G.Z.: Posible dela ikusten da; dena den, hurbiltasun bat gertatu da.

Gai honi buruz hiru batzorde ari zaizkigu lanean: bata, Euskal Eskola Publikoaren gaia lantzen ari dena; bestea, Iraskaslego-Funtzio-Publikoa aztertzen ari dena; eta, hirugarrena, Dohantasuna, etb., ... aztertzen ari dena. Beraz, esan dezakeguna zera da, hurbiltasun bat badagoela eta legealdi honen barruan eduki dezakegula adostasun-testua.

Bestela, Erreformaren ezarpen hau adostasun hori gabetanik nahiko zaila izango litzateke.

ISILIK: Eta, 12-16 urte bitarteko irakaskuntza izango duten Ikastetxeen plangintza egiten ari den honetan, bate-ratze prozesu hori eman daitekeenaren fenomenoak, kontutan eduki al duzue?

G.Z.: Ez hemen bakarrik, baizik eta Administrazioetik konpromezu handiagoa eskatzen duten beste maila batzutan ere, guk kontutan eduki duguna zera da; Ikastolak Administrazioarekin komenioak sinatu ondoren, ikastetxe publiko gisa ez bada ere (nahiz eta modu iragankor batez) publiko izateko bidean dauden ikastetxe gisa kontsideratzen ditugu (badakigulako, Ikastolen konfederakuntza barnean eta erakunde honek berak askotan errepikatu ohi izan duenez bere ikastetxeek publiko izateko asmoa eta baita publikazio hori lortu asmoz, sinatu ere sinatu bait dute zenbait komenio Administrazioarekin), ez ikasketa arloan bakarrik, baizik eta, konpromezu bat eskatzen duten beste gaietan ere, hala nola: Ikastetxeen inbertsioen plangintzan, non, Administrazioari eskatzen zaizkion aportazioak; "extrakostoak" direnak, edota, sare publikoan kontutan hartzen ez diren zenbait gauza eta Administrazioaren aportazioak eskatzen dutenean, etab. (Iaz, adib., 3.500 milioe pta. koak izan ziren aportazio horiek).

ISILIK: LOGSEn "Lanbide Heziketa" ren kontzeptua agertzen da, eta lehen I.E.Ez hitzegiten zen. Zer dela eta, termino aldaketa hau?

G.Z.: I.E.E, Erreforma esperimental zen, eta OHO eta Batxilergo Ikastetxeetan ematen zen. Hortaz aparte, I.E.E. bi moeta Batxilergo desberdinez osatua zegoen, bata, Batxilergo Tekniko-Industrialak (B.T. deiturikoa) zen, eta Erreforma esperimental horretatik atera diren ondorioetako bat, "Lanbide Heziketa" k Batxilergo modu bat izan behar zuela, hots, egokitzen jotzen zen, modulu antzeko antolaketa eduki behar zuela ere.

Beraz, Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan Oinarrizko Teknologiarekin ezagutza irakatsiko da gero, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara iritsi daitezenean, ikasleek hautaketa egin dezaten: **Batxilergoaz** ala gero beren lanbidea izango denaren baino askoz ere maila eskasagoko ezagutza duen **Lanbide moduluaz**. Ondoren, hauta dezaketeelarik, bai Uni-

bertsitate ikasketak edota, 3. modulua. Horrela, Lanbide Heziketa askoz ere sartuago geratzen delarik.

Hobeto azaldu nahirik, esango dut:

I.E.E., orain arte I.E.E. 1 (14-16) eta I.E.E. 2 (16-18) osaturik zegoen, edukiak erabat teorikoak zirelarik eta sistema berri honekin aldiz, ezagupen teoriko eta akademikoez gain, trebetasun, teknikoak garatzen lagunduko dieten lehen ezagupen batzuek jasoko dituzte, hots, Teknologiaren Oinarrizko ezagutza. Hori izango litzateke, I.E.E. 1 horren mamia.

I.E.E. 2 aldiz, Batxilergo antzekoa zen eta orain, 16 urterekin amaitzean, ze hautabide dute? Batetik, Heziketa moduluak eta bestetik, 4 batxilergo moeta desberdin. **Heziketa modulua** honetan datza: Heziketaren ikasturte erdia teoriari eskainia eta beste erdia, heziketa praktikoa eginez ikastetxean bertan; eta beste ikasturte erdian teoria lantzen dute Ikastetxean baina, heziketa praktikoa, Ikastetxean aukeratu eta hitzegin ondoren, tutore edo laguntzaile bat duen entrepesa batetan.

Gero beste hautabidea dago, ikasten jarraitu nahi du tenentzat, Batxilergoarena, alegia. Hemen lau Batxilergo moeta daude: Zientifiko-Teknikoa, Sanital-Biologikoa, Giza-Zientziak eta Arteak.

Eta behin, aukeratu duen Batxilergoa amaitu ondoren, beste hautabidea eskaintzen zaio; bere heziketa Unibertsitatean jarraitzea ala, entrepres eta lan mundua sartzea 3. moduluak eskaintzen dizkion ezagutzei esker.

ISILIK: Orain, 16 urterekin guztiei "Graduatu" a ematen zaie eta hemendik aurrera, zein izango da?

G.Z.: Hemendik aurrera, "Bigarren Hezkuntzako Agiria" izango litzateke.

ISILIK: Eta graduatu maila gainditu ez duena, aurrera jarrai al daiteke?

Ikastetxeek beraien antolaketarako adinako autonomia izango dute"

G.Z.: Hori ere pentsatuta dago. Mundu guztiak 2. maila hau ikasi eta gainditzea da gure nahia. Baina gainditzeko ez den kasuan (marginatuak direlako edo,...) eta kalean gera ez daitezkeen "Lanbide Modulu 1" deituriko ikastaroak duade, teori ezagupen minimo batzuek eskatzen duten lanbideetarako, hau da, "Giza-Garantiaren Heziketa" deiturikoak eta gaur egun Lanbide Hasiara ikastetxeetan daukagunaren parekoak, non, eskola-antolaketak malgu batean (Heziketa konpentsagarrietako Ikastetxeetan) lanbide edo profesio bati buruzko agiria ematen zaion. Ikasketak hauek formazio praktikoz osatuak izaten dira eta entrepresekin harreman zuzenak dituztenez, askotan, ikasle beraiek egiten dituzten gauzen jesiogintza ere berauen esku egoten da.

Une honetan 2.500 ikasle ditugu Udaletxeen laguntzaz, Lanbide-Hasiara Ikastetxeetan; ikasleak bizi diren inguruko heziketa jasotzeko oso garrantzi handia bait du, heziketa horrek arrakasta izan dezan.

Gero, 2. zatia, INEMen laguntzaz egiten dute, non, heziketa okupazionalaz arduratuko den.

ISILIK: Atzera etorriaz, nola geratuko da, 0-3 urte bitarteko etapa hori?

G.Z.: Legean planteiatu dagoen bezala, Heziketa honen ardura, Hezkuntza Sailaz gain, komenio bitartez edo, Foru Diputazioekin, Udalekin, etab., beste erakundeon ardura ere izango da, baina ez, Derrigorrezko heziketa bezala.

Hemen aipatu beharko genuke; gure Komunitateak duen eskolatzeko maila, hau da, 3-6 urte bitartekoarena erabatekoa dela, % 100ena, alegia. 3 urteko haurren eskolatzeko, %70 ean dago, baina, kasu askotan, gurasoek nahi ez dutelako, zeren administrazioak bere baitan dagoen eskaintza osoa egiten bait du.

ISILIK: Baina, errealitatean 2 urteko haur-taldeak ere badaude,...

G.Z.: Bai, haur-talde hauek herrietako administrazioekin eginiko hitzarmenak direla medio daude. Adib., herriko talde batek Udalarari eskaera luzatu eta Udala prest badago ekonomi aldetik laguntzera, edota, leku librean baditu, etab.,... bada horrela.

Eta erakunde-arte adostasun honi esker, beste zenbait gai ere soluziobideak aurkitzen ari zaizkio.

ISILIK: Lege-Proiektuan, 12 urte bitarteko etapa horretan, astean 25 eskola-ordu aipatzen dira, baina irakasle espezifikoak sartzean ordu horien kopurua jeitsi egingo da, ezta?

G.Z.: Legeak ordutegi minimo batzuek aipatzen ditu, baina errealitatean, Komunitate Autonomo bakoitzak bere erara egokitu beharko du, hizkuntza sartu behar duelako,... Eta hemen ere gure Komunitateak bere aportazioak egingo ditu.

ISILIK: Eta Ikastetxeek, izango al dute autonomiarik horretarako?

G.Z.: Noski baietz. Ikastetxeek beraien antolaketarako adinako autonomia izango dute. Izan ere, heziketa fisikoan, heziketa musikalean, eta hizkuntz heziketan, orain arte garantizaturik geneukan minimoki eska zitekeen eduki kurrikularraren irakaskuntza eta berauen kalitate ona, baina, hori bakarrik ez da heziketa, hemendik aurrera, lehengokoaz gainera, eskola-urteak bukatzean norbere hizkuntzaz gainera kanpoko hizkuntza baten jabe, edota, kirol heziketa on baten jabe izateko posibilitatea edukitzea eta ezagupen artistiko musikalen jabe izatea; etab. etab. hori dela heziketa, zeren eta, orain arte "plus" tzat hartu ohi diren horiek, edozein hiritarrek ikasteko eskubidea duen minimo orokor horietan bildu nahi bait dira.

ISILIK: Baina musikaz diharduzunean, zertaz ari zara?

G.Z.: Heziketa artistikoaz. Musika Plastikarekin batera joango da, seguruenik. Nire ustetan, Lehen Hezkuntzan badaudelako heziketa intelektual maila handiagoa eskatzen duten ikasketak artistikoak; ez bait da gauza bera musika on bat entzutea edota, pintura on bat edota, eskultura on bat ikustea, eta hori kontutan izanik, ezinbestekoa da ikasketon oinarrizko edukiak irakastea.

ISILIK: Zeintzu izango lirateke arlo artistiko hauen helburuak?

G.Z.: Une honetan hori eztabaidatzen ari gara. Badirudi, Musikako eta Plastikako helburuak, helburu bakar bat bezala jotzen direla, gero, Ikastetxe bakoitzak egoki dezan bere irakaslegoaren, eta dituen helburuen, eta kokaturik dagoen lekuaren arabera. (Ez delako gauza bera adib. musika erroturik duen herri batetan, ala beste edozeinetan.)

ISILIK: Orain arte alde teknikoak ikusi dugu, baina irakaslegoari dagokionez azken bolada honetan estabilitate edo egonkortasuna nabari da, eta honek ez ote dakar arazorik zuk eginiko planteiamendu horretan?

G.Z.: Erreformaren arrakasta eta porrotaren eragilerik handienetakoa, hain zuzen ere, plantilaren egonkortasuna da. Nik

E rreformak arrakastarik lortuko badu, plantilla egonkor eta finko batez lortuko da”

uste dut, Erreformak arrakasta lortuko badu, plantila egonkor eta finko batez lortuko duela. Oraindik ez dira egonkorregiak, irakaslegoaren erreziklariak mogitzera behartzen dituelako, erreziklaria luzeak lan ordutan egiten direlako. Baina guzti hori momentukoa izango da, zeren eta, plantilaren egonkortasuna bezain inportantea baita irakasleak egin ondoren aurrera eramaten jakitea.

Bide honetatik abiatzen garen une beretik, hots, Ikastetxeko baliabideak jestionatzen eta Ikastetxearen aintzindaritzak egokiro bideratzen dakien talde zuzentzaile baten esku baldin badago, ikastetxeak dituen heziketa beharren diseinua egiteko gai izango da, hau bigarren urratsa izango litzatekeelarik.

Eta beraien beharren arabera diseinuak egiteko gai diren taldeak dauzkagunean, orduan besterik ez gara egongo berrikuntza eta ikerketa-gelan deituriko dinamika baten barnean eta hauxe da, hain zuzen, Iraskaskuntz Erreformaren arrakastarunzko bidea.

ISILIK: Horretarako ohiturarik ez dugunez, ez ote zaigu zail samarra gertatuko zuk aipaturiko guztia aurrera eramatea?

G.Z.: Nik uste badaudela horretan diharduten Ikastetxeak eta besteak, aldiz, ohitura gutxiago dutenak, arrazoin askorenatik. Askotan zail egiten da, gurasoen partaidetza egokitzen ez delako,... eta ez dago adostasunik, hau da, bizi dugun giza-errealitatea oso desberdina da eta ez da hain erraza egiten horrela lan egin beharra Ikastetxeetan.

Baina, guk Administrazio bezala hori erraztuko duten bideak ireki behar ditugu eta hasieran kalitate gehiago ala gutxiagokoak izango badira ere, garrantzizkoena zera da, bide horietatik abiatzea, alegia.

Horretarako hiru ekimen bideratu ditugu; bata, **Berrikuntza Kurrikularraren Proiektu Deialdia**, hau da, lan taldeak ipintzea, Ikastetxe batetako lan-taldee zuzenduriko bideak irekitzea, alegia. (Irakasle taldeek, edozein arlori egokituko zaizkion kurrikulum berrien proiektuak egitea eta ziklo bat osatuko balu proiektu horrek ongi, eta etapa osoa hartuz gero, hobeto oraindik; baina arlo bat, edota arloaren zati baten proiektua ere izan daiteke, zeren, interesgarriena horixe baita, lan-talde horiek sortaraztea.

Beste bigarren posibilitatea zera da, **Ikastetxe bakoitzari egokituriko Heziketaren Deialdia**. Jadanik badira urrats hori eman duten Ikastetxeak eta baita esperientziak egiten urteak daramatzaten beste Ikastetxe batzuek; orduan, Ikastetxe bakoitzak berari dagokion beharren arabera Proiektu diseinua egiteko posibilitatea eskaintzen diogu; hau izango litzateke Heziketa egokituaren deialdia. Eta hirugarrenik, hainbat urtetan esperientziatze prozesu hau hain beste landu eta eztabaidatu dutena eta, ikerketa hezgarritzat har ge-

H errikuntza proiektua aurrera daraman ikastetxeak, ikerkuntza eginez amaitu lezake”

nezakeena. Beraz, Ikastetxe hauei zuzendua izango litzateke, **Berrikuntz Deialdia**. Ikerketak burutzeko diru-laguntzaz eta merezimendu-lehiaketa mailakatuen bidez edo, lagunduko dira aparteko irakaslego plantilaren beharrea aurkitzen diren Ikastetxeok; zeren eta, berrikuntza-proiektua aurrera daraman Ikastetxeak, ikerkuntza eginez amaitu bait lezake eta ahalik eta Ikastetxe gehienetan hori zabaltzen joan behar dugulako.

ISILIK: Esperientzia hauek aurrera eramateko tenorean, gurasoengandik eduki al dute halako oztoporik edo?

G.Z.: Ez, ez. Erreforman bi protagonista daude, alde batetik, irakasleak eta bestetik, ikasleak. Beraz, Erreformaren arrakastarekin loturik dago, aldaketaz gehien oharturik dagoen protagonista den irakasleak parte har dezan; proiektu hezgarriarekiko partaidetza horrek proiektu hori garatuko duen Ikastetxearekiko lotura eta partaidetza eskatzen bait du. Horretarako ezinbestekoa da, talde formatu batek eskaintzen duen seguritateaz gainera, proiektu zehatz bat edukitzea eta parte hartzea. Bestalde, talde horrek eskuartean duen proiektu hori burutu ahal izateko baliabide egoki batzuek edukitzea. Baliabide horiez nola hornitzen den? Aipaturiko deialdiez; une honetan eta egungo egoeraren arabera aztertzen ari gara, Ikastetxe bakoitzaren egoera, bakoitzak bere esperientziak aprobetxatuz, bidea sakontzen joan dadin.

ISILIK: Baina horretarako dirutza izugarria beharko da, ezta?



G.Z.: Bai, bai.

ISILIK: Zeintzu dira aurrekontuak?

G.Z.: Erreformaren kostuetan egiten den lehen azterketan, 47.000 milioe pta.koa da.

ISILIK: Hori da publiko egin zenutena, baina benetazkoa al da?

G.Z.: Bai, bai. Guk publiko egiten duguna, egiazkoa izaten da gehienetan. Horrela atera dugu: Jendetza handiko eta sakabanaturiko herriak hautatu ditugu, (zeren kostoak desberdinak bait dira) ea ikusi zenbat herri dauzkagun bakoitzetik, gero ikusi zenbateko kostoa ateratzen den ikasleko herri moeta desberdinetan, eta guztia batu, ondoren, hortxe ateratzen da gutxi gora beherako diru kopurua.

ISILIK: Textu-liburuak, indibidualak izango al dira?

G.Z.: Nik uste, liburu kontzeptua erabat aldatuko dela, eta lan-gidaliburuak izango ditugula, materiale desberdina bilduko duten kuadernoak izango dira (Adib.; Energiak...). Horretarako, Ministeritzak jadanik, Estatu osorako izango den deialdi bat atera berri du materiale-kurrikularren lanketarako eta, Berrikuntz-Proiektuaren Deialdiak ere, materiale horien lanketarako posibilitatea eskaintzen du, hots, nahiz eta proiekturik egin ez duen arren, baina beste edozein materiale kurrikular egin duen Ikastetxeak ere Deialdi horretara aurkezteko aukera eduki dezan. Eta aurrerantzean, **Deialdi** hau zabalago eta orokorrago izango delakoan gaude eta gainera, laguntza ekonomikoa ere izan beharko luke, irakasleok berak zenbait materiale landu ditzan.

Gero besteak, didaktika-gidaliburu gisa edota, lan-gidaliburu gisakoak izango dira, hots, edukinen bloke batetako edozein unitate didaktikori buruzkoak, eta gainera, ikasturte desberdinetarako baliagarri izan daitezkeenak, agian. Beraz, irakasle-lantaldeen partaidetza eskatzen da gehienbat, materiala elaboratze garaian.

ISILIK: Ekonomiazko kalkulua egin duzuenean, ratioei buruz mintzatu zarete, baina orain dauden ratio desberdinak, kontutan eduki al dituzue?

G.Z.: Bai. Nik ez dut zerikusirik izan azterketa horren elaborazioan baina aurkeztu zenean, bi aldaera edo bariante agertzen ziren, bata, gaurko ratioa kontutan hartzen zuena, eta bestea, Oinarrizko Bigarren Hezkuntzan sortuko diren espezialitate eta aukeraketen arabeko ratioa kontutan hartzen zuena, beraz, kontutan eduki da.

ISILIK: Baina teorian aipatzen direnak, ala praktikan ematen direnak?

G.Z.: Zirkunskripzio desberdinetako datuekin jokatu da. Berez, errealitatean eta OHOkoko ratioak oso txikiak dira, hau da, 35 ikasle/gelako, akordioan hitzartu genuenez.

ISILIK: Hori, ikasle/gelaren artekoa da, baina Irakasle/gelaz, zer diozu?

G.Z.: Irakasle espezialistak sartzen ditugun une beretik, ratioa kontsideragarriro areagotzen da. (Heziketa Fisikorako irakaslea, 8 unitatez bat ezartzen badugu, Musika eta Plastika-

rako irakaslea, Arteetarako, Hizkuntzetarako eta hauei, Aholkularia gehitzen badiogu, 1/50 arte igo daiteke, gutxienez):

ISILIK: Heziketa Fisikoa, zein ikasturtetik hasiko da?

G.Z.: Heziketa Fisikoko espezialista Goi Ziklorako pentsaturik dago. Bistan da, oso handiak ez diren Ikastetxeetan, Erdiko Zikloan ere, irakas dezakeela, hori da gure asmoa behintzat.

ISILIK: Eta Hizkuntzak eta Musika, 3.dik hasita?

G.Z.: Musika ere era berean planteiatzen da. Azkenean, antolaketa arazoa izango da, orduen artekatze bat egin beharko delarik.

ISILIK: Eskolaurreko ez al da psikomotrizitate irakaslerik?

G.Z.: Ez, oraingoz ez. Edozein modutara, Heziketa Fisikorako irakasleentzat erabili den Oinarrizko Heziketaren modulua erabil daiteke, dena den, ez da kontutan hartzen, Psikomotrizitatea Hezkuntzaren proiektuaren barnean dagoelako.

ISILIK: 3-6 urte bitarteko etapa horretan, ez al da kontutan hartzen Heziketa Berezia?

G.Z.: Bai, bai tramu osoan. Horrek ez du esan nahi horretarako irakasle espezialista batek egon behar duenik; Ikastetxe guztietan Aholkularia egongo denez, honek, tutorea lagundu edo gidatu beharko du, beti ere, ikaslearen beharren arabera eta, PATeko laguntzaileen bitartez.

ISILIK: Euskarari dagokionez eta erdal-hiztunen portzentaia handia den lekuetan, laguntza berezirik jasoko al da? Ratioen bitartez, edo...

G.Z. Kasu honetan, hizkuntzaren ikasketa hobea izan dadin egin daitekeena zera da, beronen irakaskuntza indartu, ratioen bidez, edota, beste neurriren batez, halere, ratioen diferentzia ikasketetan hain baxuak izanik, ez da faktore inportantetzat jotzen. Edozein modutara ere, irakaskuntzaren hobakuntza beste faktore batzuren eraginez etorriko da, hots, beste irakaskuntz moeta bat erabili delako tresna gisa, edota, ratioaren baino eragina handiagoko beste zerbait dela medio. Noski, hori ez datza Legean, baizik eta, Oinarrizko Kurrikulum-Diseinuaren lege garapena egiterakoan Legearen puntuak zehaztu gure Komunitate Autonomora egokitze-rakoan.

Hizkuntz erduen ebaluazio horietaz ere zera azpimarratu nahi nuke; Sail honetatik bertatik, noizbait planteiatu izan da, A erduaren kasuan, Euskara asignatura gisa ikastez gainera, dakiten guzti hori gero gai zehatz batzutan praktikara eraman dezatela, baina jakina, asmo hori egingo den ebaluazio horren baitan dago.

ISILIK: Dena dela, kontutan hartuko al dira zonalde euskaldunak, zonalde erdaldunak,...

G.Z.: Nik uste hori kontutan hartzen ari dela, Ikastetxe pribatuetan, batipat. Gero badaude beste neurri batzuek, edota baldintza orokorrak direnak, baina nik uste dut, gaur egun dagoen pedagogi-autonomia, oso garrantzi handikoa dela, hau da, gero eta autonomia handiagoa lortuz goazela eta Heziketan nabarmentzen ari den beste puntu garrantzitsua, zonalde edukatiboen protagonismoa dela, hots, zirkunskripzioaren

inportantzia; Ikastetxe eta Zerbitzu laguntzaileen arteko eta zirkunskripzioan dagoen Inspekzioaren arteko topaleku bezala; eta partaidetza handiagoa oraindik, udal administrazioak Ikastetxean eta alderantziz (Udal Kontseilu Eskolarren bitartez, edota, beste bide batzuek direla medio, Herrian). Baita ere nabarmena da, Administrazioetik lortzen ari garen deszentralizazioa. Eta Ikastetxea, kokaturik dagoen lekuko delako, tratamendua ere berorren arabera izan beharko du, eta horrela, Ikastetxeak bere helburua eta nondik norakoa erabakitzeko ahalmena izango du.

Une honetan, Eskolaurreko B eta D erduetako matrikulaketen datuak ikusten baditugu (ez daiteke esan, berorretantxe OHOrak pasa daitezkeenik desbideraketak beti eman ohi direlako, baina...) halere, B eta D erduen igoera nabarmena izan da (Gipuzkoan, adib.; Eskolaurreko %93a, B eta D erduetan matrikulaturik daude, jakina, Komunitate Autonoman Euskararen presentziaren eskaerarik irmoena egiten den lurraldea da). Baina, irakaskuntza orokorreko maila guztietan gertatzen ari den prozesu geldiezina da, hots, eskaera sozial bat dago. (Esan behar dugu, Eskola Publikoan, B erdua dela nagusi).

Duela 5 urte horrelako egoera zegoen: Eskolaurrean %51/52 A erduan eta gainontzekoa, B eta D erduak zati berdinetan; gaur egin aldiz, horrela dago: 3 zati ditugu, baina lehenengo zatia B erdua, gero D erdua eta azkenik, A erdua dator (%36, %33 eta %30). Baina Gipuzkoa ez daiteke konpara Bizkaia eta Arabako errealitatearekin baina, ikusten al duzue nola aldatu den egoera bospasei urteren buruan?

Argi eta garbi ikus daiteke zernolako aldaketa eman den, eta kontutan hartzekoa da euskalduntzerakoan Eskola Publikoak egin behar izan duen moldaketa eta adaptazioa, (zeren eta Ikastolen lana begibistakoa den arren, euskaldunekin eta inguru euskalduneko jendearekin lan egiten bait dute) baina, Eskola Publikoetan berriz, 10 urteren buruan euskaraz irakasteko gaitasuna zuen irakaslearen %5etik %37ra igoa da, hau da, 8 bider gehiago da.

Horregaitik, irakasleak euskalduntzeko eskaerak egiten direnean, askotan esan ohi dugu: Irakasleak euskalduntzeko egin duen ahalegin hori, Euskal Herriko beste edozein kolektibok egin izan balu, beste egoera batetan geundeke, hori ziur.

Itzultzailea: Irakasle Elkarte



Oinarrizko Kurrikulum -Diseinua

1.- KURRIKULUMAREN KONTZEPTUA ETA EGINKIZUNAK

Kurrikulumaren kontzeptua zerbait polisemikoa da. Historian zehar esanahi asko jaso ditu, norabide desberdinak adieraziz. Kurrikulumaren nondik norakoak eskolaren eginkizun desberdinak bideratzen ditu.

Kurrikuluma irakaskuntzaren mementu desberdinetan mamitzen da: planifikazioan, zabalkuntzan, praktikan, ebaluazioan... Adibidez, J. Gimeno (1988) ondorengo maila edo faseak bereizten ditu: 1.- *Kurrikulum agindua edo legeztatua.* 2.- *Kurrikulum aurkeztua eta irakasleagoari interpretatua, gida, testuliburu eta material desberdinen bidez.* 3.- *Irakasleagoak zehazturiko kurrikuluma, bere ulermen, esperientzi eta eskolako kulturaren arabera.* 4.- *Kurrikuluma ekintzan: eskolako eta gelako aktibitate desberdinetan praktikatzen den kurrikulumari dagokio.* 5.- *Burururiko kurrikuluma: praktika horien ondorioz ikasleengan eraikitzen doazen ondorioak ezagupen, afektibitate, moral eta gizarte mailan.* 6.- *Kurrikulum ebaluatua.*

Ministeritzak eskaintzen diguna guk agindu eta lege mailan adierazi dugun planifikazioari dagokio.

Nola kontzeptualizatzen da Oinarrizko Diseinu honetan kurrikuluma? Zer da Kurrikuluma?

1.- Eskolak ikasleei eskaintzen dizkien edukin, esperientzi eta apendizai aukerak.

2.- Aukera horiek ez dira mugatzen alderdi kontzeptualetara edo ikasketa egitasmo edo plan soil batetara. Aukerak zabalagoak dira: kontzeptuak, printzipioak, prozedurak, jarrerak...

3.- Aukera hauek bideratzeko eskaintzen dituen helbideak, ikaskuntzaren prozesuan ebaluatzeko erabiltzen diren irizpide eta baliapideak.

Planifikazio honetan asmo hezitzaileak jasotzen dira. Baina eskolak, askotan formulatu gabe dauden beste aukerak ere eskain ditzake. Adierazi gabeko kurrikulum implizito edo ezkutuko elementuak eztabaidatzea, argitzea eta formulatzea komenigarri da distortsioak baztertzeko eta kurrikulumarekiko ardura arrazoitu eta kritiko bat egon dadin.

Eskolarako kurrikulumak eta kulturak harreman hestuak dituzte. Kultura bat urteetan zehar eraikitzen den zerbait da. Kultura hori barneratzeko ingurunearen interbentzioa beharrezko da. Eskolak, kulturaren zenbait elementu ikasleen garapenbide bilaka daitezen, planifikaturiko interbentzio bat gauzatzen du. Kurrikuluma eskolarako helburuen proiektu bat da eta helburu horien lorpenerako egitasmo bat proposatzen da.

Zentzu honetan kurrikulumak bi eginkizun desberdin ditu: hezkuntza sistemaren helburuak adierazi eta praktika hezitzailea gidatzeko orientabide bezala jokatu.

Eginkizun hauek aurrera eramateko kurrikulumak lau galdera nagusi hauei erantzun behar lieke: 1.- *Zer irakatsi? Erantzunean helburuak eta edukinak zehazten dira.* 2.- *Noiz irakatsi? Hemen helburu eta edukinen ordenamendu eta sekuentzializazio bat erabakitzen da.* 3.- *Nola irakatsi? Irakaskuntza eta ikaskuntza gauzatzeko aktibitateen planifikazio bat burutzen da aipaturiko helburu eta edukinak lor eta ikas daitezen.* 4.- *Zer, nola eta noiz ebaluatu?*

Oinarrizko Diseinuaren hiztegian as-

moek eta egitasmoek Kurrikulumaren DISEINUA osatzen dute eta praktikak kurrikulumaren GARAPENA. Diseinua garapena gidatzen eta aplikapenak, benetako arazoak aztertzean eta ikastetxeko eta gelako testuinguru eta baldintzekiko egokierak kontutan hartzean, diseinua aldatzeko eta osatzeko zerbitu behar du. Ziklo honen bidez kurrikuluma berrikuntzarako tresna bilakatu nahi da.

2.- ADMINISTRAZGOA ETA KURRIKULUMA

Oinarrizko Kurrikulum-Diseinuan, han eta hemen, Ministeritzaren eskuhartzearen arrazoi batzuk luzatzen dira. Arrazoi hauetan eta inguruan sor daitezkeen arrazoiengan pittin bat luzatuko gara.

1.- Ministeritzaren borondatea asmo hezitzaileak garbiki adieraztea da, Estatu guztirako elementu amankomunak agertuz. Bestalde Diseinu ireki eta malgu bat eraiki nahi da, ondoren Komunitate Autonomoek zehazpen eta egokitzapenak egin ditzaten. Irekitasunak errealitate desberdinetara moldatzea posible egiten du. Komunitate Autonomoen interbentzio bidez ikastetxeen eta ikasleen errealitate sozioekonomiko eta kultural desberdinetara kurrikuluma irekitzeko posibilitatea eragiten da.

Ministeritzaren esanetan, oinarrizko diseinuak badu zerikusirik irakaskuntzaren dohaintasun eta derrigorrezkotasunarekin. Alde batetik derrigorrezko irakaskuntzaren oinarriak antolatu behar dira eta bestetik zenbait profesiotan aritzeko akreditazio edo tituloen beharrea gara.

Modernoki asmoen zehazpen hau bi eratara egin da: 1.- Kurrikulum bat eza-



rriz. 2.- Ebaluazio sistema bat ezarri, hots, irakaskuntza gune edo tarte batzuren ondoren ikasleei azterketak eginez.

Nondik dator Administrazioaren eskuhartzearen legitimitatea? Gizarteak eskolari ezartzen dizkion jomugetatik. Baina gizartea pluralista eta multiformea izanik asmo hezitzaile horiek irekiak, zabalak eta ikastetxe eta ikasleen egoera zehatzetara egokigarriak izan behar dute.

Mementu historiko bakoitzean gizarteak eskolari eginkizun eta heziketa asmo batzuk luzatzen dizkio. Eskola espezifikoki heziketara zuzenduriko erakunde eta sistema sozial bat da. eskola eta gizartearen artean zuzenbide ugari erlazioak daude.

Gizarteak eskolari eskakizun bereziak egiten dizkio: belaunaldi berrien sozializazioa, eta lan sistema zehatz batetan eta zeregin sozialetan gerora heldu bezela izango dituzten erantzukizunetarako prestakuntza.

Eskolak helburu sozial eta indibiduali erantzun behar die. Baina gizarteko partaide izateko prestakuntzan eskolaz ere kontserbatzaile bat joka dezake, dauden erlazio sozialak erreproduzitzean. Heziketa bidez gizartearen ezagupen, teknika, prozedura... hedatzen dira. baina, baitere, gizarteko balioak eta ideologi dominatzaileak, nahiz eta zeregin hau, gehienetan, inplizitoki gertatu.

Halere, heziketaren bidez, ikasleengan jarrera eta erlazio sozial nagusiekiko

zentzu kritiko bat esna daiteke balio eta ideologi jakin batzuren aurrean urrutitasun kritiko bat piztuz. Asmo eta edukin hezitzaileak esplizitatuz, beroiekiko kritika errazagoa da.

2.- Irakaslearen profesionaltasuna kontutan hartu nahi da. Kurrikulum ireki, zabal eta malgu bat ezartzen ikastetxea eta irakaslea programa ezarriren ejekutore hutsa izan ez daitezen, ikastetxeko eta gelako proiektu kurrikularretan autonomi haundiago bat eragiten da.

Beraz, bi arazoren aurrean gaude: 1.- Administrazioaren zeregina eta, 2.- Ikastetxe eta ikaslearen autonomia eta autonomi honek jasotzen dituen zehazpenak. Hemen lehen puntua ukituko dugu, bigarren puntua gerorako utziz.

2.1.- OINARRIZKO KURRIKULUMAREN BEHARRA

Ondoren ikusiko den bezela, zenbait lurraldetan, oinarriko kurrikulumaren beharraz eztabaida gogorak daude.

Ikus ditzagun Ministeritzaren Oinarriko Kurrikulum-Diseinuan agertzen diren ondorengo arrazoi hauek: 1.- Heziketa aukera berdina nahiz eta ikasleek iaiotasun interes eta baldintza desberdinak izan. 2.- Hiritarren arteko elkarbizitza errazteko komunikazio bat sortu, ikasleei irakaskuntza eta kultura amankomun bat eman. 3.- Ikasleek toki batetik bestera, eskola batetik bestera doazenean, ezagupen, apendizai eta esperientzien jarraipen bat ziurtatua izan

dezaten. 4.- Hezkuntza etapen zehar jarraipena, aurrerapena eta koherentzia egon dadin.

Eskoletako oinarriko kurrikulumari buruz eztabaida ugari izan da azken urteetan, batez ere Ipar Europan (G. Kirk, 1989). Aldeko eta aurkako arrazoi hauen agerpen labur bat egitera mugatuko gara hemen. Arrazoi horiek kontestualizatu egin beharko lirake, lurralde desberdinetan arrazoi desberdinak luzatzen bait dira. Eta gainera kontuan hartu behar da abiapuntuak desberdinak direla, kurrikulumaren tradizioak tokian tokikoak izatean. Gure hemengo abiapuntuak kurrikulum zentralizatu bat errotu du, erabakiak ikastetxe eta irakaslegotik aparte hartzean.

2.1.1- ALDEKO ARRAZIOAK

* Kurrikulumaren oinarriko lehen-tasun batzuk nolabaiteko kontrol publiko bat eskatzen dute. Ikastetxe batzuk hartzen dituzten bideak desbideraketa batzuk ondorioztatu ditzateke. Utopismo pedagogikotik abiatuz errendimendua jaisten da, eskolatik irtetzen diren zenbaitzuk oinarriko iaiotasunak ere ez bait dituzte modu egokian lortzen.

* Eskolak garapen pertsonala eta soziala zaindu behar du baina aldi berean gaurko gizarte industrializatu eta teknikorako ere prestatu behar du. Ezin daitezke kontrajarri oinarriko ezagupenak, balio eta arauen eraiketa (pentsatu drogan, delikuentzian, krisialdi psikologikoetan...) eta gaur egungo gizarteak eskatzen duen prestakuntza teknologikoa.

* Komunitate demokratiko batetan diskriminaziorik ezin daitezke onartu. Komunitate batetako partaideen oinarriko prestakuntza bateratsu bat beharrezko da. Oinarriko kurrikulumaren ezarpenak hezkuntza diskriminazioa baztertzen lagun dezake. Arrazoi multzo hauen barruan joera desberdinak agertzen dira: 1.- Eskolak egiten duen kulturaren selekzio edo aukera batek gizarte horrek duen kulturaren analisi batetik abiatu behar du, kulturaren oinarriko dimentsioak ahaztu gabe: egitura soziala, sistema ekonomikoa, komunikazioen sistema, razionaltasunaren sistema, sistema teknologikoa, moralak, sinismenen sistema, sistema estetikoa. 2.- Komunitatearen nozioa eta kurrikulum loturik daude. Komunitatearen bizitza aztertu behar da: komunitate desberdinak, familiako bizitza, erakundearen egiturak, boterearen ba-



naketa, bizitza kolektiboan eskuartzeko beharrezko diren iaiotasunak. Eta garapen sozial honen ondoan pertsonaren esku eta gorputz ahalmenak, alderdi afektibo eta estetikoak ere garatu behar dira.

* Ezagutza edo konozimenduaren naturatik ere bideratu dira oinarrizko kurrikulumaren aldeko arrazoiak. Ezagutza eta entendimendua desberdintzen joan diren neurrian. Adibidez matematika, fisika eta etika dira kontzeptualizazio desberdinak, analizatzeko eta ikertzeko era bereziak, giza esperientzia aztertze modu jakinak, ezagupen multzo desberdinak... sortu dituzte. Kurrikulumak oinarrizko ezagumen era horietan iaiotu behar ditu ikasleak. Ikasle guztien ondare bilakatu behar luteke. Ikasleek bizimodua eta bizibidea aukeratzeko posibilitate handiagoak izango dituzte aktibitate eta ezagumen modu desberdinetan eskolan iaiotu ondoren. Zentzu honetan J. Whitek eskolako oinarrizko ikasketetarako ondorengoak proposatzen zituen: komunikazioa, matematika, zientzi fisikoak, artea, filosofia, historia eta ikasketak sozialak.

* Gizartearen erantzukizuna. Hezkuntzan hainbesteko inbertsioak egiten badira, eskolak halako kontrol publiko bat merezi du. Eskolako kurrikulumak Herriaren geroarekin zertikurrik badu, kurrikulumaren ardura ez dagokie irakasleei bakarrik. Hezkuntzaren helburuak ziurtatzekoan politika soziala gorpuzten duten arduradun eta partaideek zeresanik badute.

* Nazioarteko konparazioa. Lurreko gehienetan hezkuntz politikaren bidez adierazpen zehatzak ematen dira helburu, denbora, irakaskuntza eta ikaskuntza, testuliburu eta abarrei buruz.

* Desoreka haundiak sor daitezke eskolen eta etapa desberdinen artean oinarrizko kurrikulumik ez badago. Ikastetxeek kurrikulum arrazoitsuak eskaini beharrean, dituzten profesionalen arabera kurrikulum moldatzeko arriskua dute. Abenturazalekeriak eta maila desberdinen arteko segidazko jarraipen eza prebenitu behar dira.

2.1.2.- AURKAKO ARRAZOIAK

* Ikaslearen hautaketa. Ikasleei hautatzeko ahalmen haundi bat eskaini behar zaio, hezkuntzaren arazo garrantzitsuenak ez bait dira ezagutzaren natura edo gizartearen beharrak. Motibazio arazoak horrela hobeki askatzen dira eta ikaslea autonomi bidean jartzen da. Oinarrizko kurrikulum batetan ez al dira oposible inizatiba, ikerketa, hipotesien sorrera eta konprobaketa, komunikazioa eta abar? Bestalde, oinarrizko kurrikulumak ez du deuseztatzen ikasleen opzionalitatea.

* Ikasleen desberdintasuna, giza indibidualitatea, gaitasunen desberdintasuna... kontrajartzen dira oinarrizko kurrikulumari. Lehen esan bezala, oinarrizko kurrikulumak ez du galeratzen opzionalitatea eta indibidualizazioa. Eta zer gertatu da irakaskuntza ertainetako kurrikulumaren gehiegizko desberdintasunarekin? Ez al dira ikasleak desberdintu batxilergo irakaskuntza profesional eta konpentsatorioaren artean?

Desberdintasunak beste bide batetik etorri behar lukete. J.M. Bruner-ek dienez desberdintasunak ez dira "esplikatu" behar gaitasunen bidez; hiru aldagai izan behar dira kontutan:

1.- *Aurretik dakitena eta egin dezaketena; irakaskuntzaren bidez lan-gaiak aurretik dakienarekin erlazioatu behar dira.* 2.- *Irakaskuntzarako konpromezua edo motibazioa; autokontzeptua, aktibitateen desberdintasun eta ugaritasuna, e.a. dira aztergai.* 3.- *Irakaskuntzaren kalitatea; bakarkako atentzioa, metodoak, zalantzen eta hutsuneen argiketa, e.a. dira esanahikor.*

* Kotsensuaren ezintasuna. Eta ezintasun hau maila askotan ikus daiteke. 1.- Konozimenduaren naturari buruzko zalantza eta galderak. Epistemologiaren arazo honi ez diogu helduko (V. Benedito, 1987). Baina zientzien errelatibitatea hutsa banderatzat hartuz, errelatibismoaren ziurtasuna bera deuseztatzen da. Ezagutza pertsonok gizartean eraiki dugun sistema da. Baina egiarekin, ra-zionaltasunarekin, inpartzialtasunarekin, informazioaren analisiarekin konpromezu bat beharrezko da. Nahiz eta zientziak aurreratu eta zientzien ikuspegi aldaketak suertatu adierazpen, kontzeptualizazio eta esplikazio guztiak ez dira berdinak. Eta azkenik zientzia bat kritikatzeko zientzia horretan jakitun izan behar da. 2.- Edozein kurrikulum arbitrarioa, batzuren balioen adierazgarri dela esaten da. Kasu honetan irakaslegoaren irizpideak ere arbitrarioak izango dira. Ikasleek, beraz, nahi dutena egin al dezakete, gizarte mailan kurrikulum kontsensuatua eta onartua ez dagoelako? 3.- Helburuekiko filosofi desberdinen kontrajarritasunak edozein kotsentsu galarazten du. Adibidez, norbaitek esan dezake ikasleak lanpostuen eskakizunak betetzeko prestatu behar direla; beste batek, gizartearen automatizazio medio, denbora libre-rako prestatu behar omen dira. Desberdintasun hauek ez dira ezkontezinak. Kurrikulum baten asmoetan ezkon daitezke ikasleen profesionalizazio progresiboa eta denbora librerako iaiotasun eta afizio batzuren garapena. Kotsentsu bidean analisiak, eztabaidak, negoziaketak toki aproposa dute.

* Pluralismo kulturala. Gure gizartean, mendebaldeko edozein gizartean, aniztasun kultural bat dago. Talde sozialak, hizkuntzak, erlijioak, azpikulturak, bizibide desberdinetatik ondori-

otzen diren desberdintasun kulturalak, migrazio ondorengo taldeak, jokaera eredu eta bizitz estiloak, sexoen rola... hor daude. Oinarrizko kurrikuluma desberdintasun hauekiko ezarpen bat bezala har daiteke. Baina desberdintasun kulturala eta "ghetto"en antolaketa gauza desberdinak dira. Bi dimentsio zaindu behar dira: 1.- *Gizarte baten iraupenerako gutxienezko batzuk eraikitzen joan behar da: hizkuntz kodeen ulergarritasun amankomonatua, oinarrizko legeen batasun eta onarpena, oinarrizko moralitate zibil baten baieztapena, taldeen aukerak errespetatuz...* 2.- *Zenbait balioerako konpromezua: tolerantzia, autonomia, arrazionaltasun bat, pertsonetako errespetoa... Gizarte pluralista batetan bizitzeko zenbait balio onartu eta adostasun bat eraiki behar da. Beraz ikasleek gizarte pluralista batetan bizitzen ohitu behar dute.*

* Irakaslearen autonomia. Irakasleak kurrikulum arazoetan jakitunak dira, ikasleekiko esperientzia dute, eskolako aktibitateen planifikazioa darabate. Ikusi denez, berrikuntza emankorrenak irakaslearen inplikazio eta harremanetatik datoz. Irakaslearen profesionaltasunaren ezaugarri bezala autoerreflexioa eta lankidetzaren onartzen dira. Ingurunea eta ikasleak ezagutzen dira. Ingurunea eta ikasleak ezagutzen dira. Ingurunea eta ikasleak ezagutzen dira. Ingurunea eta ikasleak ezagutzen dira. Ingurunea eta ikasleak ezagutzen dira. Ingurunea eta ikasleak ezagutzen dira.

Oinarrizko kurrikuluma marko itxi eta hestu bat izango balitz aurreko arrazoienduek pixu bat luteke. Baina marko zabal batek esparru zabalak uzten ditu ikastetxe eta irakaslearen autonomiarentzat: planifikazioa, helburuen operatibitatea, materialaren aukera eta erabilera, ebaluazioa, berrikuntza, irakaskuntzarako estrategiak, ikasle desberdinekiko erantzunak. Posturak ez dira eman behar konponezinezko muturretara. Eskola ezin daiteke erabili helburu politiko zehatzetarako, inongo ikuspegitik. Adotrinamendu politikoa ez da onargarria gizarte ireki batetan.

3.- ESKOLAKO HEZIKETAREN PRINTZIBIOAK.

Gizarteko partaideen garapen individuala eragiteko talde sozialek bideratzen dituzten ekintza eta aktibitateak multzo bat bezala ulertu behar dira. Gizabanakoen garapena ingurune kulturalari lotua dago. Eskolaren asmoa ikasleek esanahi kulturalak eraikitzea da. Eskolaren interbentzioa aktiboa, planifikatua eta intenzionala da. Hara

hemen eskolako ekintza arautu behar luteken printzipio batzuk Oinarrizko Diseinuaren arabera:

a.- Ikasleen garapen mailatik abiatu: 1.- Aldi ebolutibo bakoitzak arrazoiendu eta ezagupen posibilitate batzuk ditu. 2.- Aurretik (etxean, kalean, eskolan...) izandako esperientzietan erai-ki dituen ezagupen, kontzeptu eta erre-presentazioetatik abiatu behar da. Informazio berriak hor itsasten dira. Beraz kontutan hartu behar dira iaio-tasun kognitiboak eta eraikitako ezagupenak.

Eskolaren asmoa ikasleek esanahi kulturalak eraikitzea da"

b.- Apendizai esanguratsuen eraiketa. Informazio eta material berriak aurretik dakienarekin erlazionatzen badira, ikasleak duen egitura kognitiboan integratzen dira eta lortutako apendizaiak ez dira errepikapen huts bat. Apendizai esanguratsu bat burutzeko baldintza batzuk daude: 1.- Edukina esanguratsua izan behar du lantzen den arlo edo disziplinatik begiratuta eta ikaslearen egitura psikologikotik begiratuta. 2.- Ikasleak aldeko joera bat izatea, hots, motibatua egotea garrantzitsua da. 3.- Horrela ikasitakoaren funtzionaltasun bat zihurtatzen da, lortutako ezagupenak bizitzan erabil dituzan, egote-ra eta edukin ugariekin erlazionatuz.


d.- Helburu bezela eta progresibitate baten barruan, ikasleak apendizai esanguratsuek bere gisara egiteko gaitu behar dira. Ikasten ikasi behar du. Planifikazio eta ikasketen aktibitateen erregulazio iaio-tasunak landu behar dira.

e.- Esanguratsuki ikastea ezagupen eskemak aldatzen dira. Ezagupen eskema bidez, informazioak, asko edo gutxi, egituratuak eta erre-aktibitateari lotuak ere egokituak daude. Baina ikaslearen maila ez da errepikatzen. Informazio berriek ikasleak ordurarte dituen ezagupenetan kontraesanak sortu behar dituzte, ezagupen eskemak desoreka ditzan. Horretarako informazioek eta eginkizunek ez dute errazegiak izan behar (automatikoki bideratuko bait dituzte) baina ezta ere zailegiak (mementuan dituen ezagupen eta informazio berrien arteko loturak ezin bait ditu ezarri).

f.- Apendizai esanguratsuek ikaslearen aktibitatea eskatzen du. Aktibitate hau, batez ere, barne aktibitate bat da. Aktibitate honek forma desberdinak jasan ditzake: 1.- *Bakarkako aktibitatea.* 2.- *Pertsonen aktibitatea.* Zein da heziketak uki dezaken eremu edo tartea? *Ikasleak bakarka ezin eginik irakaslearen edo lankide baten laguntzaz egin dezaken une edo distantzi hortan heziketak inzi-ditzen du.*

4.- IKASTETXE ETA IRAKASLEGOAREN AUTONOMIA

Ikastetxeak HEZIKETA PROIEKTU bat eraiki behar du. Ikastetxean, proiektu hori bideratzerakoan puntu ugarietan finkatu daitezke: oinarrizko helburu nagusiak,



antolakuntza eta koordinakuntza era, organigrama, funtzionamendu arauak, komunitatearekiko loturak... Hori dena kontutan izanik ikastetxeak PROIEKTU KURRIKULAR bat ere eraiki behar du: helburu eta edukinen zehazpenak, sekuentzializazioa, koherentzia, ebaluazioaren norabidea eta erak...

Gizarte pluralista batetan, talde desberdinek eskolari eskakizun desberdinak luzatzen dizkiote. Aniztasun honek ez du aholkatzen kurrikulum itxi eta oso arautu bat ezartzea, adostasunak eta askatasun maila batek tokia izan dezaten.

Ikastetxeko proiektu kurrikularra egiterakoan bide desberdinak jarrai daitezke: 1.- Diseinuko printzipio eta zehazpenak jaso eta erabakiak hartu ziklo eta arlo desberdinei buruz. Jokabide honetan printzipio logiko eta deduktiboek eragina lukete. 2.- Ziklo eta mintegi desberdinetako taldeek bere proposamenak eratu eta antolatu ditzatela eta ondoren egin diren proposamen desberdinen horien arteko koherentzia azter dadila ikastetxeko proiektura ailegatzeko. 3.- Bi bide horiek, modu batera edo bestera, nahasten dituen beste bi-deren bat.

Ikastetxeko proiektu kurrikularretik abiatuz hirugarren zehazpen maila batetara iritxi behar da: PROGRAMA-KUNTZAra. Hemen unitate didaktikoen sekuentzi bat moldatuko da, ziklo eta etapei ordenazio bat eskainiz. Irakasleen profesionaltasunari bidea irekia utzi nahi zaio, ikasleak hobekien ezagutzen dituztenak irakasleak bait dira.

5.- DISEINUAREN ASMO OROKORRAK

Oinarrizko Diseinuaren arabera hara hemen hezkuntzaren asmo nagusi batzuk:

a.- Ikasleen hezkuntza soziala eta morala. Jarrerak eta balioak eraiki nahi dira, gaur egungo gizartearen aniztasun barruan aukera erresponsableak egin ditzaten, besteen sinismen eta balioak errespetatuz.

b.- Heziketa ez diskriminatzailea, pertsonen berdintasunera eta errealtate osozko posibilitateetara irekia, diskriminazio iturriak saihestuz. Iturri horiek ugariak dira: norberaren gaitasunak, baldintza sozialak, sexua, arraza...

c.- Inguruneari, errealtate sozialei eta kultura aurrerapenei irekitako eskola. Horren arabera kurrikulumean edukin berriak, teknologi berriak, hizkuntza berriak... eskuratzen dira.

6.- OINARRIZKO DISEINU OROKORREN OSAGAIK.

6.1.- ETAPAREN HELBURU OROKORRAK

Eskolaren interbentzio bidez ikasleek



lortu behar dituzten gaitasunak adierazten dira. Ez dira area edo arlo bakoitzeko helburuak, etapa bukatzean lortu beharrezko gaitasunak baizik. Arlo desberdinetan landu behar diren helburu orokorretaz ari gara. Ikus dezagun adibide bat. Irakaskuntza primarioarako helburu orokor bat aurkezten da: "Gaztelaniaz eta bere kasuan, Komunitate Autonomoko berezko hizkuntzan, ahozko edo idatzizko mezuak ulertu eta sortu, hizkuntz eta dialektu desberdinen berezitasunak errespetatuz eta komunikazio testuinguru eta asmo desberdinak zainduz". Helburu hau arlo desberdin guztietan landu daitekeen helburua da. Arlo desberdinen lankidetzaren ezinbestekoa da. Eta gradualizazio bat eskatzen duen helburua da. Adibidez, hasiera batetan, mezuen alderdi anekdotikoa,

zuzena eta esplizitoa bakarrik jasoko dute; azkenaldean bere ikuspuntuak argumentatzeko gai izango dira, elkarriketaren arauak errespetatuz, egoerak kontutan izanik.

Helburu hauetan elkarrekin erlazionaturik dauden bost giza gaitasun multzo adierazten dira: kognitiboak, motrizak, oreka pertsonalak, pertsonen arteko erlazioak, itsaspen eta ekintza soziala.

6.2.- ARLO KURRIKULARRAK.

Irakaskuntza Primarioan eskaintzen diren arloak ez dira disziplinetara mugatzen nahiz eta jakin disziplina horiek eragina izango dutela proposatzen diren arloetan. Arlo desberdinak aukeratzekoan, helburu orokorretan adieritako helburuak garatzeko ezagupen eremu bakoitzaren erakapenak kontutan hartzen dira. Eta bestalde, derrigorrezko irakaskuntzan arloen egitura jarraitu da. Halere, arloen esanahia desberdina da etapa bakoitzean. Haur Hezkuntzarako esperientziak Bigarren Mailako Hezkuntzarako disziplinartasunera doa, nahiz eta hemen ere garrantzia izan alderdi pedagogiko, psikologiko eta sozialak.

6.2.1.- ARLOETAKO HELBURU OROKORRAK.

Arlo bakoitzean etaparen bukaeran lortu behar diren arloko helburu orokorretan adierazten dira. Hemen ere helburuek gaitasunen era hartzen dute, nahiz eta edukinen halako erreferentzi bat egon, edukin espezifikoak adieraztera ailegatu gabe.

6.2.2.- EDUKIN MULTZOAK.

Edukin multzo hauetan etapan zehar landu behar diren edukinak aurkezten zaizkio irakaslegoari eta arloko helburu orokorretan adierazitako gaitasunen garapenerako pentsatuak daude. Edukin multzo hauek ez dira gai zerrenda bat. Pentsa dezagun etapa osorako eskaintzen direla. Ikastetxeko proiektu kurrikularrak eta gelako programazioak

egituratzerakoan kontutan hartu beharrezkoak dira. Edukin multzo hoiek ziklotan, ikasturtetan... sekuentziatu behar dira. Ministeritzaren argitalpenetako edukin multzoen ordenak ez du suposatzen eta agintzen sekuentzializaziorik.

Arlo bakoitzeko helburuak gauzatzeko beste edukin multzo batzuk ere aukera daitezke, Ministeritzarenak baztertu gabe. Ikastetxeen eta irakasle-goaren esku geratzen da.

“Edukin” hitzak ohizkoa baino esanahi zabalagoa hartzen du: 1.- Kontzeptuak, gertakizunak, printzipioak. 2.- Prozedurak. 3.- Balioak, arauak, jarrerak.

Ikasteko gaitasuna berezko zerbaitzat hartu beharrean motibaziozko aldagaieki loturik

6.3.3.- DIDAKTIKARAKO ETA EBALUAZIOARAKO ORIENTAZIOAK.

Irakaskuntza eta ikaskuntza, eta ebaluazioa gidatzeko irizpide batzuk eskaintzen dira. Hemen ez da aholkatzen “metodo” jakin bat. Irakaskuntzaren indibidualizazioak, metodoen indibidualizazio bat eskatuko luke. Baina, aurrean aipaturiko “printzipioak” kontutan hartzen badira halako orientazioak ondorioztatu daitezke, zenbait “metodo” baztertzuz.

7.- IKASLEEN DESBERDINTASUNA.

Nahiz eta beharrezko eskolak ikasleei oinarritzko kultura baten elementuak eskaini, aukeren berdintasunak ez du esan nahi uniformitate bat. Aldagai indibidualak eta sozialak medio ikasle desberdinak daude eta eskolan berezitasun hauek kontutan hartu behar dira. Desberdintasunak konpentsatzeko ikasle bakoitzari behar duena eskaini behar zaio.

Ikasteko gaitasuna berezko zerbaitzat hartu beharrean, motibaziozko

aldagaiekin loturik dago. Izandako garaien eta porroten historiak, ikasleei eskaintzeko edukin funtzionaltasuna eta esanahikortasuna... ikasteko gaitasun horren oinarrian daude.

Hezkuntz behar bereziak dituzten ikasleak hor daude. Ikasleen gaitasunaz hitzegi beharrean eskaintzen zaizkien zerbitzu eta laguntzetan jartzen da azentua. Arazoa ikasleen eskastasunetan kokatu beharrean behar bereziei eskolak eskain diezaizkiekeen erantzunetan jartzen da. Eta erritmo desberdina (mantxoa ala bizkorra) duten ikasleak ere ezin dira baztertu.

Kurrikulumaren irekitasunak kurrikulumaren egokitzapenera garamatza. Ikastetxeko proiektu kurrikularretan eta gelako programazioetan ingurune eta ikasleen berezitasunak kontutan hartzen dira.

Kurrikulumaren egokitzapenetan irakaskuntzaren indibidualizazioa eragiten da gelako programazioen elementuak aldatuz: talde malguak, material desberdinak, aktibitateak, ebaluaketak, helburuak, edukinak.

Tenporalizazioak garrantzi handia du. Helburu batzuen lorpenerako denbora gehiago planifikatzen da. Adibidez irakurketa eta idazketaren ikaskuntza atzeratzen da oinarritzko beste ezagupen eta iaiotasun batzuk aurretik landu nahi direlako. Edo kurrikulumaren elementuren bati edo batzuei lehentasun bat eskain diezaiokegu.

Batzutan, egokitzapenaz aparte, laguntza eta helbide bereziak beharko dituzte: 1. Helbide pertsonalak: laguntzarako irakasleak, logopedak, fisioterapeutak, zerbitzu psikopedagogikoak... Profesional hauek ikastetxearen proiektu kurrikularren barruan kokatu behar dute ikasleekiko egin den Kurrikulum egokitzapenen zerbitzuan. Ohizko irakaslearen lehentasuna azpimarratu nahi da. 2.- Ingurune helbideak: material idatziak, ekipamendua, tresna bereziak... ikasleen ahozko eta idatzizko komunikazioa eraginez. 3.- Egokitzapen arkitektonikoak.

8.- ESKOLAKO KURRIKULUMA EUSKAL HERRIAN

Oinarritzko Kurrikulum Diseinuan, lehen zehazpen mailan, Komunitate Autonomoek diseinua egokitzeko, zehazteko eta ezaugarri sozioekonomikoak eta kulturalak jasotzeko duten ahalmenaz

hitzegiten da. Arazo honen osotasuna batez ere arazo politiko bat da. Oinarritzko kurrikulumarako erabakien iturria zein izan behar den egitura politikoa ukitzen duen dimentsio bat da.

Euskal Herriko errealitatea pitin bat ezagutzen dutenek zalantzarik ez dute eginkizun honek zailtasunak dituela. Baina zailtasunak zailtasun, arazoari ekin gabe aurrepasorik ezin da eman.

Euskal Herrian aniztasun eta pluralismo handi bat dago. Lehen teorikoki aipaturiko aniztasunaz aparte, zenbait arlotan kontsensusurik ez dago, gatazken tamaina handia izanik. Gatazken sakontasunak ez du ongi bideratzen pluralismo onartu baten posibilitate erraza.

Halere, erreflesio gisara, puntu batzuk luzatuko nituzke, proposamen edo galdera modura:

A.- Aniztasuna, pluralismoa, desberdintasunen onarketa, abiapuntuen diferentzia ez dira gaitzetsi behar, eskoletan mamitu behar den balio sozial bezela onartu baizik.

B.- Euskal Herriko eskoletarako Kurrikulumean zenbait berezitasun eta ezaugarri integratu behar dira:

* Euskal hizkuntza.

* Euskal Herriko ezaugarrien ikasketak: ezaugarri fisikoak, ekonomikoak, komunikabideak, historia, kultura, erakundeak.

D.- Erredukzionismoak ez dira kontsensu bide, muturretako postura doktrinarien errefortzagarri eta hausturen pizgarri baizik. Kurrikulum integratu baten bila joan behar dugu. Adibidez, kurrikuluma ez da mugatu behar (nahiz eta eskolako langaitzat hartu) zenbait arazo sozialen tratamendura (emakume eta familien arazoak, natura eta ekologia, langabezia...) edo zenbait datu eta ohituren tematizazioa (folklore, tradizioak, kirolak...)

*Pello Aierbe Etxeberria
UPV-EHUko Irakaslea*

Edonora zoazela ere,



eraman ezazu ongien
datorkizun dirua.

AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL



San Bartolome Ikastolako Esperientzia (Elgoibar)

ISILIK.- Jose Luis, Elgoibarko Ikastolako irakaslea eta REM proiektua aurrera eramanean dutenetako, partaide bat dugu, ¿nola joan zaizue eta nola hasi zineten, proiektu honekin?

Jose Luis: Proiektu hau orain dela 5 urte hasi zen. Goi zikloko erreforma hau planteatzen zen eta hartu zentro esperientzial baten hori aurrera eramateko eta guri eskeini ziguten. Hasera baten 7 ikastola/ikastetxe ginen.

6. mailara aplikatu zen eta gero 7. maila eta 8. mailara arte iritsi zen. Beraz orain dela 2 urte egon zen lehenengo promozioa erreforma honen barruan.

ISILIK: Beste eskoletara joan direnean, arazorik izan ahal duzue?

Jose Luis: Ditugun datuak positiboak dira. Kopuru handi bat ELGOIBARKo Institutora joan zen. Esan beharra dago Institutoarekin harreman onak eta koordinazio bat egon zela. Ume hauek joan aurretik beraiekin bilerak egin genituen, esplikatuz zer metodologia eta zer programa eman genituen, ikastolan. Gero beraiek bidali dizkiguten datuak, emaitzak, onak izan dira.

Hasieran kezka handiak genituen bai guk eta gurasoak ere. Esperientzi baten aurrean gurasoek "conejo de indias" en arazo edukitzen dute eta irakasleok ere gauza berri baten aurrean aurkitzen ginen, gure beldurrak genituen nahiz eta pentsatu planteamentu egokia zela.

ISILIK: Gelako, zenbateko haur kopurua eduki duzue edo nola izan duzue gela antolatua. Metodologi berezi bat eramane duzue?

Jose Luis: Erreforma honek planteatzen zuena ez da bakarrik metodologia aldaketa bat, gorputz osoa da desberdina, hots, bai helburuak, gaiak, metodologia, ebaluatzeko era; ez da didaktika berritze bat bakarrik, baizik gorputz, estruktura guztiaren aldaketa. Nagusienetatik hasita, gai banaketak izan ditugu, bi nukleoetan banaturik: A eta B nukleoak deitu izan ditugunak, letrak eta zientziak.

ISILIK: Txokerik suposatu ahal zuen haurrentzat honelako aldaketa batek?

Jose Luis: 6. mailan hasi ziren haurrak, beraiantzat guretzat

bezalaxe gauza nahiko berria zen, hasi terminologiatik eta, gero A nukleon historia ez edukitzea, e.a. Hitz horiek "nahaste berraste" bat izan ziren nolabait, baina umeak berehala jarri ziren. Gainera metodologi aldetik nahiko praktikoa, motibagarria, aukera zabalak eskeintzen dituen zen, eta alde horretatik ikusi genuen umeak gustora zaudela. Bainan 8. mailara hurbiltzen ziren neurrian umeek beren kezkek zituzten, inguruan ikusten eta entzuten zutenarekin gai honi buruz.

ISILIK: Gipuzkoako, beste zein eskolekin zaudete koordinatuta, gaur egun.

Jose Luis: Gaur egun ere Koordinazio hori badugu. Hasiera batean, askoz ere indartsuagoa zen. Bilerak, erreziklaiak, Ikastaroak askoz ere ugariagoak ziren. Orduan 7 Ikastetxe ginen. Horien artean koordinazio haundia zegoen. Erreforma honekin talde laguntzaile bat zegoen, 5 edo 6ko talde bat, eta horien laguntzaz posible izan zen erreforma aurrera eramatea.

Horrelako edozein erreformak, talde bultzatzaile bat behar duela, eta behar diren erreziklai, ikastaro eta mintegi, egunero-ko lanarekin lotuta egon behar dira. Hauek beharren arabera antolatu dira, eta horrek dinamika egoki bat eman dio.

ISILIK: Talde hori, nork sortu zuen eta koordinatzen jarraitzen ahal duzue?

Jose Luis: Eusko Jaurlaritzak eta bai, koordinatzen gara. Talde hori desagertu egin zen. Administrazioak esan zuen dirurik ez zegoela eta erreforma martxan zegoenez, hainbeste jende ez zela behar.

Proiektu honen buru Ramon Lertxundi eta gero bi neska, izan dira. Lehenengo promozioa irten da; nolabait erreformaren ikuspegi orokorra dugu, eta ikastetxe bakoitzak baditu ia tresnak eta kriterioak erreforma hori egokitzeko eta aurrera eramateko. Bilerak jarraitzen dute bainan epe luzeagotan, eta, egia esateko, asistentzia murriztu eginda ikastetxeen aldetik. Hala ere, Jema Zabaletak esan du bukaera eman behar ziola, ez duela zentzurik halako azpiegitura bat mantentzeak eta goi zikloko erreforma eramane duten zentro guztiek integratu egin beharko direla dauden azpiegiturretan. Hiru aukera eman ditu: "Centro de Coordinación Pedagógica", "Formación Focali-

zada" eta beste aukera batzuk. Bainan erreformaren estructures datorren urtean desegitera doa.

ISILIK: Orduan, orain arte egin duten esperientzi hori, behera erortzen da?

Jose Luis: Ez, zentro bakoitzak bere historia pertsonala ematen ari da.

Betikoa, erreformaren planteamendua eguneroko horrekin kontrastatu denean, ikusi dira zenbait hutsune: Euskera dela,... eta ikastetxe bakoitzak ikusi du nola egokitu erreforma bere egoerara.

ISILIK: Irakasle goa erreziklatua egon behar duzue edo bapatean planteiatu dizute erreforma hori, denbora, erraztasunak izan ahal dituzue irakasle goa prestatzeko?

Jose Luis: Aurretik ez. Ekainean planteiatu ziguten; baietza ematen eta Irailean hasi ginen. Izan genuen laguntza guztia ondo prestatuta zegoen: Ikastetxeen koordinazioa bultzatuz, material bat eskeinuz, e.a.

Honen aurretik, goi zikloan bakoitzak bere liburuxka zuen.

Batzuetan koordinazio gehiago edo gutxiago egon da, baina honek bultzatu gaitu benetako lan taldera. Denok sartzerakoan metodologia, berdinean eta helburuak finkatuta zeudenez, horrelako lanak bultzatu du asko.

Hasieran 6. mailarako bakarrik zenez 3 irakasle ginen. 7. mailan sartu zenean, 6 eta 8kin goi ziklo osoa. Goi ziklo osoa erreforma horren barruan sartuta, izugarrizko berpiztea izan da goi ziklo osorako.

ISILIK: Gurasoekin, zer nolako harremanak izan dituzue? Hasieran, nola planteatu zenuten?

Jose Luis: Hasiera batetan, planteatzerakoan, kezka agertu ziren baina, konfidantza boto bat egon zen Jaurlaritzatik zeto-relako. Gero Administrazioaren laguntza etabar. Aipatzerakoan konturatu ziren ez zela zentroaren erabaki bat bakarrik, baizik eta atzean bazegoela zerbait, ofizialtasun baten barruan behintzat, nahiz eta esperimentalak izan. Orduan konfidantza boto hori, mantendu izan zen nahiz eta 8. mailara heltzen ziren neurrian kezka handitu. Noski, handitu batzuetan gurasoen aldetik.

ISILIK: Hor ez zeukaten jarraipenik ez?

Jose Luis: Erreforma hau, planteatu zenean EUSKO JAURLARITZatik R.E.M. hori Ertainetan ematen ari zen. Suposatzen da aurretik erreforma ere Erdi-zikloraino emanda dagoela eta Goi-zikloa zegoela zintzilik. Orduan Erreforma hau zen nolabait, horri erantzun bat emateko, nolabait ere ziurtatuz ume horiek ere bere eskualdean R.E.M. zentro bat edukiko zutela eta espero zen R.E.M. hori leku guztietara zabaltzea.

ISILIK: Gizarteak ere badu hor bere eragina. Haurrei gaiak nola planteatzen dizkiezue: Zuek edo beraiek aukeratzten dituzte? Gai bat nola lantzen duzue, arlo honetan zer aldaketa eman diren lehendik oraina,...?

Jose Luis: Aldaketa nagusienak helburuetan daude. Helburuak ahalmenetan oinarrituak daude. Guzti honek markatzen du beste guztia. Ahalmen horiek lantzeko aspektu batzuk lantzen dira, adibidez: interpretatu ahalmena lantzeko lehenengo identifikatu ez dakit zer elemento, zerrendatu, erlazionatu...

Aspektu horiek lantzen joaten dira, 6.7. eta 8. mailan sakontze prozesu batetan, nahiz eta ahalmenak errepikatzen



joan mailaz-maila. Hori lantzeko orduan dugun banaketa, multzo nagusienak, nukleoak direla esango nuke: A nukleoa--hizkuntza; B nukleoan---Matematika arloa, Natur, e.a. eta gero proiektuak. A eta B nukleotan maixuek gidatutako lanak dira nahiz eta metodologia oso aktiboa erabili baina, maixuaren pisua nabarmena da.

Proiektu honetan aldiz, lana askozaz autonomoagoa izango litzateke, globaltasun baten barruan. Gaiak ez dira adibidez hizkuntza A nukleoa, baizik eta dena proiektu horren inguruan dagoela esan dezakegu, denak batera eta bertan helburu nagusienetariko bat da, umeen lanerako autonomi hori bultzatzea, hau da, umeak gai izatea kometa bat egiteko eta hori egiterakoan aerodinamikako zenbait kontzeptu landu beharko dituzte, informazioa bildu beharko dute, sailkatu, ondorioak atera e.a. Metodologiak alde horretatik bi momentu esberdin horiek ditu: askozaz autonomoago proiektuetan eta nukleotan ere. Lantzeko eraren ezaugarri handienetariko bat globaltasuna izango litzateke. Hots, Erdi Aroa lantzen dugunean elkarrikerria lantzen ari gara, elkarrikerria ariketak eginaz eta ondoren egin behar dutena da, Erdi Aroko pertsonai bati elkarrikerria bat prestatu.

ISILIK: Haurrek ondo hartu ahal dute esperientzi hau? Pasiboagoak ala aktiboagoak daude?

Jose Luis: Nik uste dut aktibitatea piztu egin dela. Umeentzako ere beti egon da gauza bat motibagarriagoa bestea baino, adib. kometa bat egitea urezko erloju bat egitea baino, baina umeak aktibotasunera bultzatu ditugu eta bestalde egiten dutenari buruz erreflesionatzea.

Batzuetan konparatzerakoan kezkak sortzen dira, hau da, hasiera batetan guraso batzuk esaten zuten: umea gustora etortzen da, beraz, gauza askorik ez du ikasiko". Hori sarritan irakasleen artean ere pentsatu dugu.

ISILIK: Hemen ere etxerako lanak bidaltzen dituzue?

Jose Luis: Bai. Gelatik kanpoko lanak asko bultzatzen dira. Beste gauza bat askotan failatzen duena da ez gaudela gustora egiten dugunarekin eta aldatzen hasten gara. Betiko arazoa ebaluaketa da. Nik "Gizarte" ematen nuen eta beti buruz ikasten zuten eta esaten nuen: "goazen aldatzera, eskemak egin eta abar."

Ebaluazioa iristen zenean betiko galderetara itzultzen nintzen.

Erreforma honetan ere ebaluazioa koerentea da helburuarekin eta erabili den metodologiarekin. Orduan egiten genituen frogak eta, metodologia berdintsuarekin eta ahaleginduz ez neurtzen zer ikasi duten, baizik eta beste egoera berri bat emanaz, ea gai diren, hortik ikasi dutena lantzeko eta ondorio berriak ateratzeko, inoiz ikusi ez duten zenbait material emanaz. Ikusi duten prozesu aplikatzea da bakarrik.

ISILIK: Hori, esaten duzun bezala, aberasgarria da. Eta Matematikak lantzeko sistema berdina jarraitzen duzue edo gai batzuetan betiko metodologiara jotzen duzue?


Jose Luis: Aldaketa batzuk eman dira, nagusiena matematikako kezka, mekanikoki jasotze baten beharra dago. Ikusi zuten planteamendu honekin hutsune bat egon zela, gutxi praktikatzen zela matematikako mekanika hori. Orduan, poliki-poliki alderdi hori aldatzen joan da. Ahalegintzen gara, ahal den neurrian, kontestuan integratzen, baina beti gerta daitezke horrelako desorekak.

Beste hutsune bat, hizkuntzaren tratamenduarena izan da. Tresna bat denez, utzita eduki genuen hizkuntza horren aberasutasuna, gehiago ahalegintzen ginen umeak deskribatzen, analizatzen edo interpretatzen zekiten jakiten, alde horretatik, egokitze lanak, hutsuneak betetzen aritu gara.

ISILIK: Zer ondorio txar ikusten diozu datorrenari? Nola ikusten duzu, zuk duzun esperientziarekin? Datorrigunari buruz, ari zarete prestatzen?

Jose Luis: Lehenengo gauza, niretzat, giroan ikusten den gauza da, erreziklatzen egon garela erreforma aurrera eramateko, generalizatuko zenez. Ia 5 urte daramazkigu eta beste bat dator. Esan behar da gu gauden mailan eta beste ikastetxe normal bat dagoena ikusirik, gu askoz ere hurbilago gaudela orain datorren erreformatik besteak baino.

Ondo emateko azpiegitura handi bat behar du. Ezin da testuak e.a. atera eta esan "orain aurrera, jo". Erreziklai hori aipatzen denengan, hori lotuta egon behar du eguneroko praktikarekin. Zeren 10 egun joaten ez dakit nora honetaz jabetzea, gero eguneroko beharretara ituzltzean ez diozularik fruitu handirik ateratzen. Ez dakit nola, baina talde bultzatzaile bat behar da, piska bat jendea liberatzea eta eguneroko lanei ildo horretatik erantzuna ematea. Bestela betiko arriskua dago: Oso polita paperean baina tresnarik ez digutenez ematen... teoriarik geratzen da.





Bigarren Mailako Irakaskuntz Aldeko Apostua

Bigarren mailako Irakaskuntza obligatorioak 12-16/18koen arteko periodoa hartzen du bere baitan eta, gainontzeko mailak bezala, bi urteko bi ziklotan mailakutzen da, kasu berezietan 18 urtera arte iraun dezakeelarik.

1.- BIOren EGOKITASUNA (12-16/18)

Lehendabizi esan beharra daukat, BIO barruan dagoen Heziketa Proiektua LOGSEren berrikuntzarik premiazkoena eta beharrezkoena dela, ahaztu gabe Haur Heziketari buruz eta Lanbide Heziketari buruz egin dituen aportazioak. Hiru dira, nagusiki, eskaintzen dituen berrikuntzak: a) Ziklo Bakarra izateko asmoa, bai curriculumari dagokionean bai irakaskuntzari dagokionean; b) aspaldiko obligatorietatearen kontzeptua, h.d., "sarbiderako berdintasuna", "irteerarako berdintasuna"ren esanahiarekin eguneratzea, hala nola, ikasketak 16/18 urtera arte luzatzearen legitimazioa; c) oinarrizko hezibide teknologikoa heziketa ulerkorrera inkorporatzen duelako bigarren mailako irakaskuntzan.

MECen oinarriturik BIOri buruzko eztabaida zuzendu dituzten dokumentuak irakurriko bagenu (Eztabaidarako proposamena, 1987; Liburu Txuria, 1989; LOGSE Lege Proiektua, 1990), garbi ikusiko genuke, BIOri, etapa berezi bezala, eman zaion tratamenduaren egokitasuna justifikatzeko, iharduketa erizpide bezala, erabili diren argudioak ondoren zehazten diren bezala labur daitezkeela:

1) Pedagogikoak:

Hain adin disparekoak (6-16/18) diren haur eta gazteen arteko konbibentzia ekiditzea.

Maila osoaren koherentzia, koordinazioa eta batasuna zikloez gaindi bermatzea.

Gerora Bigarren mailako Heziketa Post-Obligatiora bideratuko diren ikasleei aldaketa berriak ekiditzea.

Bigarren mailako irakaslearen aldeko apostua, bere de-



finizioan sartzen ez bada ere, Ikasketa unibertsitarioko Egitasmoen egungo berrikuntza prozesuan oinarrituz.

Zentruari dimentsio berria ziurtatzea, ondorengoak bermatuz:

irakas ekipoak sortzea.

eskaintzaren malgutasun handiagoa: aukeramena.

aniztasunarenganako arreta.

irakasleak bere irakasbidea konbina ahal izatea, bai ziklo obligatorioan bai postobligatorioan.

2) Estrukturalak:

Eskolaratze obligatorioaren amaiera, lanean hasteko adin minimoa elkartzea.

Materiale ekipamenduei, zerbitzuei eta, Goi Mailako espezialistak diren OHOeko Irakasleen kasuan bezala, irakasleak dagokienean, dauden egiturak aprobetxatzea, gutxienez Eskola Publikoan eta 1996. urtera arte.

Edozein eratarera ere, onargarria da, maila rural edo urbanoko egoerak direla-ta edota beste eskubide-konpromezua atxekiak direla-ta, beste kasuistika bat egotea. Guzti horrek bide emango luke salbuespenen kapitulua era amaigabean luzatzeko eta lehen aipaturiko zioak, tankera pedagogikodunak, zalantzan jartzeko.

Bigarren Ziklo Bakar baten aldeko Argudio ahul eta kontrajarri horiek bazter batera utziz, gogorazi beharra dago, Ziklo Bakarrak (12-16) irakaskuntz kolektiboen artean eta, bai Catalunyan (Mauri, 83), 80ko hamarkadan, bai Euskal Herrian (Ord"sez, 84), pedagogiaren berrikuntzaren inguruan

sortutako mugimenduak jada aski literatura dutela. Sintetizatzen joz gero, ondorengo arrazoi psikologiko, pedagogiko eta estrukturalak aipatu beharko genituzke:

A) Psikologikoak

Nerabetasun aldia, heldutasunerako bidea bezala hartuta, bizitzako oso epealdi konplexu bezala ikusiko genuke; bertan, periodo horretan, konbinatzen diren urratsak eta transizio pausuak asko dira, nortasunaren aspektu asko eta askorengain eragina dutelarik: esparru intelektualerengain (eragiketa formak, arrazonamendu abstraktoa, pentsamendu hipotetiko-deduktiboa, egoentrisismoaren krisialdia, objetibitatea eta deszentratze kritikoa, hiperarrazionaltasuna, autonomoki pentsatzen ikastea, hala nola, ekintza eta produktioengana erantzunkizuna eskatzen duten erabakiak hartzen ikastea,...); esparru psikologikoarengain (autoafirmazioa, autogobernua eta familiarengandiko independentzia, erizpide askatasuna, ekintzarako askatasuna, nortasun pertsonala, inizatiba, autonomia, au-

ela pertsona arteko erlazio mailan eta maila soziologikoan "tradizioa-modernizazioaren gatazka" delakoa gauzatzen duela.

Edonola delarik ere, egungo egunean, nahiko ondo ziurtaturik dago, transizio prozesu hori gehiago zehazten dela "indibiduoari bere inguru sozial eta familiarean erakusten zaizkion hezibide eta lanbide eskaintzen erabilpen alternakorra eta autozuzenduak zehazten duen bidea" bezala (Planas, 90) eta non ez eskolak ez eta lanak ere ez duten bitartekari eta arauemaile funtziorik betetzen, orain 20 urte eskas betetzen zuten bezala. Izatez, eskola eta lana premiazko bitartekariak dira, baina ez dira, inondik inora, belaunaldi berrien asmoak gauzatzeko eta asetzeko hainakoak, hori delarik, hain zuzen ere, heziketari eta lanari buruzko jarrera eta kontzepzio berrien agerpena argitzen duena: hezibidearen eta lanaren kultura berri bat, BIOk, etorkizuneko, etorkizuna duen eta etorkizunerako berrikuntza izan nahi badu, bazter ezin dezakeena.

sinplista edo asmo txarretan oinarriturik susma daitekeen bezala (geroko unibertsitarietan langileen prestakuntza), edota eskola-tzearen luzamendua aipatzen dutenengandik susma daitekeen bezala (lanean hasteko adina iritsi arteko impasse-a). Egia dena da Lege Proiektua garbia dela zentzu horretan.

Beraz, eskolatze aldia luzatzeak nerabealdiaren beharrian propioak asumitzea eskatzen du, transizioa den neurrian eta bizitzaren periodo bitala delako eta gizarteari begira, kritikoa eta dinamikoa. Metafora deportibo bat bilatzera joko bagenu, BIOk, 92. urteko etorkizunari "harrobi propio"ko hezkuntz politikan eta ez "zerebro salerosketa"n oinarriturik aurre egiten dion euskal gizartean, bere onenpen soziala irabazteko, "luxuzko haurtzaindegia"ren irudiaz baino gehiago irabazi behar du "proba banku" bezala.

B) Pedagogikoak:

Hezkuntz sistemaren gaur eguneko zatiketa, egiten den bezala 14 urterekin egitea, artifiziala eta ez bidezkoa gertatzen da, bokazio eta profesioaren aukeraketan ematen den prokazitatea, titulazio diskriminatzailearen estigma sozial bikoitzarekin legeztatzen denean.

Guzti horren aurrean, BIOri buruz Administrazioak egiten duen definizioak zuzena dirudi, Etapa bezala definitzen duenean:

Berria, genuinoa eta nortasun propioduna.

Terminala, baina, era berean, guztiontzat propedeutikoa.

Integratzailea eta konpentsatorioa, kasua denean.

Kulturala, eta zientifikoki ulerkorra.

Kualifikazio teknologikoa, oinarritzakoa.

Beraz, aspaldiko ohitura propedeutiko eta akademikeriazkoarekin hautsi egin behar du eta bere sigletan,

BIO siglan, inplizituki daramatzen osagaiak berreskuratu behar ditu:

Heziketa: - Balore eta ahalmenen hezibidea.

Ezagumenen eraikuntza, hau da, haztea eta pentsatzea.

Egiten jakitea.

Bigarren Mailakoa: - nerabeen

Beraz, eskolatze-aldia luzatzeak nerabealdiaren beharrian propioak asumitzea eskatzen du..."

tokontzeptua,...); giza inguruaren esparruarengain (jarrerak eta balio ideologiko eta etikoak norbereganatzea, justizi erritributiboari buruzko hipersentiberatasuna, sexu-rola asumitzea, hala nola gazte-rola, helduarena edo lanekoa, joku sozial intersubjetibo arauak onartzea, esparru pribatuari, politikoari, ekonomikoari edo laboralari dagokien joku makrosoziala ere onartzea eta asumitzea); esparru profesionalarengain (okupazio edo lanbide abileziak eta trebetasunen kualifikazioa eta ekinean jartzea, eskubide eta betekizun sindikalen ezagumena eta defentsa, an-kultura berria norbereganatzea,...).

Kontuan izanik, begien aurrean eta era ulerkorrean eskaintzen zaizkion transizio guzti horiek osotasun konplexu bat osotzen dutela eta, bide batez, gizartean hierarkizaturik daudela, esan dezakegu, guzti horrek "belaunaldien arteko gatazka" delakoa gauzatzen du-

Hain zuzen ere, garapenaren kontzeptzio berri horrek, pertsonalki eta sozialki asumitua dagoen bilakaera horrek, justifikatzen du BIO barruan interbentzioaren tratamendua, nor bakoitzaren arteko aniztasunari eta nor bakoitzaren barruko diferentziei ekiteko bazter ezinezko printzipio bezala harturik, aldarrikatzea eta indartzea.

Azken finean, psikologoaren ikuspuntutik begiraturik, haurtzarolikozko ziklo terminalaren aurrean gaude, non, obligaziozko zat definitu den ziklo batean, ulerkortasuna konpetibitateari, meritokraziari, prekoizitateari eta eskolaz gaindiko diskriminazioari aurre egiteko bermea den.

Esanak esan, obligatorietatea 16/18 urte arte luzatzeak ez dakar berarekin bat haurtzaroa 16/18 urte arte luzatzea, BIOren izaera propedeutikoan intsititzen dutenek egiten duten irakurketa

garapen aldiko beharrezane kasu egitea. Kultura, zientzia eta teknologiaren ul-
erkortasuna eta espezializazioa konbi-
natzea.

Helduen bizitza aktiboan txertatzea.

Obligatorietatea: - Irteeran berdina-
tasuna denontzat.

Kontuan izanik egungo eskola sis-
tema barruan ematen diren eskola porro-
taren maila altuak, hala nola, gai horri
buruz dagoen sentiberatasuna, komeni-
garri dirudi BIO 12 urterekin hasia
(OHoko 7. maila), zikloa 16/18 urtere-
kin amaitzea erabat koiunturala izango
litzatekeelarik. Halere, eskola porrotari
aurre egin nahi baldin bazaio eta neurri
zuzentzaileei heldu, premiazkoa egiten
da zehaztasun batzu egitea:

arte bakarrik egon ahal izango dira” -6,2
art.a- eta “kasua balitz, ziurtapenen bat
jasoko lukete...” -22,3 art.a-) datza titu-
lurik lortuko ez duen jendetza bat egongo
dela, eta, kontuan izanik bizi garen
gizarte hau erabat kredentzialista dela,
horrek esan nahi duena da titulazio
bikoitza emango dela azpitik eta era
diskriminatzailean. Eta guzti hori ez da
horrela izango titulua duenari lehen-
tasuna ematen zaiolako, baizik eta titu-
luak lehen aukeraketa bat egiteko era-
biltzen direlako, hau da titulurik ez duena
diskriminatzeke.

3) Batxilergoa eta Lanbide Heziketa
egin dutenentzako titulu bakar bat
ematea, Lanbide Heziketaren
eskubideak onartzeko proposamen

lortzen ez duten ikasleek EPA bidez
edota Giza Bermearen bidez lor dezaten”
(23,2 art.a).

4) Eskola porrotari kurrikulumaren
egokipen bidez aurre egitea edo aukera-
bidez edo oinarritzko teknologi bidez,
aurrean adierazi den bezala neurri
horrek izan dezakeen alde eztabaidaga-
rriak bazter batera utziz, hutsaren huts
gera daiteke, azpiegitura eta material eta
irakasle ekipamendurik ez dituzten
zentruak BIOra zentru bihurtzen
badira, une honetan zentru kontzertatu
askoren demandekin gertatzen ari den
bezalaxe.

5) Aniztasunari ematen zaion
tratamendua, eskola porrotaren normali-



1) Luzamendua ez da “Berres-
kuraketarako ikasgela”tzat hartu behar,
hala gertatzeko arriskua badago ere, 10.
ikasturteari buruzko dokumentazioari
egiten zaizkion zehaztapenen irakurketa
arina eginez gero, edo 18 urte arteko
ikasle errepititzailei zuzendutako ku-
rrikulumaren egokipenarena eginez
gero, edo gaur egungo egitarauak,
Hezkuntza Konpentsatzailearenak eta
Giza Bermearenak, BIO n integratzea
planteatuz gero. LGEa indarrean jarri
zenetik, 70an, nahiko esperientzia izan
da, OHoko 8. mailan egin diren ku-
rrikulum egokipenei buruz edo LHri bu-
ruz, beren inefikazia edota beren porrota
demostratzeko.

2) Titulu bat proposatu bada, bakarra
izanik ere, legegilearen burmuinean eta
LOGSE Proiektuaren hitzetan (“18 urte

baikorra da, baina eskola porrotaren
ikuspuntutik begiratuta, aipatu titulu
bakar eta obligatorio hori ez badator
kurrikulumaren berrikuntza efektibo
batekin batera, eta eskolaratzearen
luzamenduari BIO proiektuaren kon-
tura lehentasuna ematen bazaio, eskola
porrota mantentzea ekar dezake edo,
areago, gehiketa, LHk ez lukeelako
funtzionatuko “eskolaren porrota”ren
biktimak direnentzat irtenbide bezala.
Nire ustez, MEC delakoaren
erantzunkizuna airean geratzen da, garbi
geratzen ez den bezala, proiektuan ber-
tan iragarritako porrotari ematen zaion
tratamendua:”MEC delakoak zehaztuko
ditu bide espezifikokoak nolakoak izango
diren, derrigorrezko eskolaratzea (18
urte gehienez) egin ondoren etapa honen
helburuak kreditatuko dituen titulua

zaziorako erizpide bezala edo ikasketara-
rako zailtasunak dituzten ikasleentzako
erizpide bezala, ekintzarako printzipioa
da, Administrazioak berak hainbat aldi-
tan aldarrikatu duen bezala, baina prakti-
kan jartzeko orduan, irakaslearen eta
eskola sistemaren aldetik jartzen
zaizkion zailtasun eta eragozpenen
eraginez, hutsaren huts bihur daiteke,
Administrazioak berak bere proiektu
propioan duen jarrera kontradiktorioen
ondorioz:

a) Ez dirudi zentruetako proiektuei
laguntzeko borondate garbirik dagoenik,
batipat proiektu hori “fidantzapeko
autonomia” eman zaienean heziketa
administrazioaren aldetik, zeintzu beren
eskurako gordetzen duten lehentasunen
definizioa, hala nola, pertsonalari bu-
ruzko politikarena.

b) Berarekin irakaslegoari eta ikaslegoari buruzko jarrera, dedikazio eta ratio desberdinak dakartza, zoritxarrez ez zaizkienak arreta gehigirik eman.

c) Kurrikulumaren diseinuari buruzko autonomia ikaslegoaren, irakaslegoaren edo inguru naturalaren beharrezanetara egokitzeko. Halere, LOGSE Proiektuan eta Liburu Zurian kurrikulumaren malgutasunari buruz hitzegiten da, baina kurrikulum horretan Administrazioak duen zeregina gehiegizkoa da: eduki minimoak, amankomuntasuna eta fidantzapeko aukeraketa, fidantzapekoa aukeraketa erizpideak proposatzen direlako, eta batzutan area batzuk inposatu egiten dira (klasikak edo hizkuntz modernoak).

Batzutan, area batzuk inposatu egiten dira (klasikak edo hizkuntz modernoak)"

d) Eskolako eta eskolaz kanpoko irakas agenteen autonomia eta partizipazioa, proiektuen kudeaketa eta buruketan. Halere, kontrol publikoaren ereduak, proposamenerako benetako autonomia baino besterik ez du onartzen, lehentasunen definizioa administrazioaren eskura geratzen delako, publikotasun izaera duenari irakurketa politikoa eginez, jectio publikoari irakurketa soziala egiten dioenean.

LOGSEak egiten duen beste bazterketa inportante bat da, BIOren ziklo diferenteak aurrera eramanez nahi dituzten Zentru diferentei beharrezkoak zaizkien edo exigi dakizkiekeen ekipamendu eta zerbitzu atalek berez eskatzen duten garapen eskasa. Badirudi kurrikulumaren diseinua aldatzearekin, helburu batzu zehaztearekin, ikasgelen kopurua zehaztearekin edo irakaslego motibatuarekin aski dela. Lehengo LGEak, 70ekoak, bere akatsak akats, askoz ere gehiago interesatu zen ekipamenduen eta zerbitzuen inplikazioetan, zeintzu lehen mailako zentruak beren tutoria, kirol ekipamendu, ikasgela ekipamendu, jangela, liburutegi laborategi edo ikasleen elkarketa malgutasunez eramateko espazioz eta guztiz, OHOKo

hezkuntz proiektura homologatzearen ondorioz etorri bait ziren.

Aniztasunaren tratamendua. Euskal Herrian, Goi Zikloan azken burura eramanez diren esperientziak garbi aski utzi dute ikasleen formazio interesak jokatzen duen paper bitartekari eta motibatzailearen inportantzia, ikasgelaren antolaketa malguaren eta Lehen Zikloko (7.-8. mailak) kurrikulumean oinarriturik. Ziklo honenganako ulerkortasuna defendatzeak, OHOKo espezializazioaren aurrean, ziklo honetako (12-14) irakaslegoaren erlazio eta tutori rola berreskuratzea esan nahi du. Halere, bigarren zikloko irakaslegoaren rola, beren heziketa espezializatuaren arabera (lizentziatuak) ematea kontradikzioan erortzea da, nahiz Lehen Mailako edo Bigarren Mailako ziklotan irakatsi. Izatez, Batxilergo irakaslegoak IEBaren (Irakaskuntza Ertainaren Berrikuntza) aurrean hartu duen jarrera kontuan badugu, kontura gaitzeko beraiek izan zirela proiektu experimentalari oztopo handienak jarri zizkietenak edo polibaliadun teknologia "lepo luzedun" teknologietarantz, zailtasun teknologiko eskasduetarantz edo artistiko-artesanoetarantz eramatearen proposamena moztu zutenak. Halere, LOGSE proiektuan bigarren mailako irakaslego lizentziatuaren aldeko apustua egin da, eta horrek zalantza serio bat dakar bigarren ziklo honi (12-14) begira, zeina izaera korporatibo edo politikodun zio

Mec-en Merantzukizuna airean geratzen da"

koiunturalen bidez zuri daitkeen (Europar sartzeara), baina inolaz ere ez, zio pedagogikoen bidez.

Bigarren Zikloari (9.-10. maila) dagokionean, IEB delakoak izan duen esperientziak aniztasunaren tratamenduan sakontzeko bide ematen digu, ez bakarrik ikasgelaren antolaketa malguan oinarriturik, baizik eta, baitipat, aukeraketa eta kurrikulumaren diseinuaren modulo antolaketan oinarriturik. Zentzu honetan, Administrazioak egin duen proposamena nahiko penaga-

ria da, dauden curriculumetako akademikeria errepikatzea esan nahi duelako alde batetik, eta bestetik, Administrazio Zentralak zentruen autonomian eta Administrazio Autonomikoan egiten duen mutur sartzeara esan nahi duelako. Zentruaren autonomia huskeria bihurturik geratzen da, kurrikulum minimo bat ezartzen delako (9 arean gehi hizkuntza autokotonoa baino besterik ez); komunalitate areak, espezialitateak, definitzen direlako; aukeraketa aipatzerakoan, artikulaketa erizpide bezala aipatzen dira enbor berekoak ez diren esparruetako probetxamenduak, hizkuntza klasikoak eta hizkuntza modernoak ezartzen dira. Azken finean, zentru bakoitza, berak duen irakaslegoarekin konpon dadila. Horretarako, Delval-ek (90) esaten duen bezala, soberan zegoen oinarritzko kurrikulumaren diseinuari buruzko, aniztasunari buruzko edo zentru proiektuari buruzko hainbeste eta hainbeste eztabaida.

Oinarritzko heziketa teknologikoa eta teknologi arloa. Hasiera batean positiboa dirudi 2. Ziklo horren behin behineko oinarriak LHlean jartzeak, horrek esan nahi duelako BIOren inplizituki dagoen heziketa proiektuarekin ados dagoen azpiegitura teknologiko bat dagoela, hala nola, teknologiaren soslaioak eta preteknologi eta brikolageko tailerretan teknologi arloaren mozketak ekiditzen direla, IEB-Batxilergoko lineekin gertatu zen bezala.

IEB delakoan eta Heziketa Okupazionalen izandako esperientziak bide eman dute, teknologi arloko posibilitateak globalizazioaren eta disziplinar-tekotasunaren elementu aglutinatzaileak direla demostratzeko edota adin horretako (15-16/18) gazteriaren autoafirmazioaren, motibazioaren eta eskola porrotaren katalizatzaile direla demostratzeko. Bistakoa da LOGSE Proiektu barruan, BIOren helburu bezala, oinarritzko heziketa teknologikoaren aipamen esplizitoak egiten direla, bizitza aktiboan txertatzeari buruz egiten diren bezala, baina, arlo-asignatura hutsera mugatzerakoan, bere tratamendu kurrikularrak ez du gauza handirik eskaintzen. Teknologiak, denontzako oinarritzko eta normalitatearako arlo bezala, eskaintzen dituen posibilitateen aurrean, ikasle errepititzaileentzako (18 urte) edo ikasketarako zailtasunak dituzten ikasleentzako ikastarorako proposatzen diren egokipen kurrikula-

rrren tratamendurako posibilitateak aldarrikatzen dira.

Halere, Euskal Herrian ADARRA bezalako pedagogi berrikuntzarako mugimenduak (gogora dezagun teknologi arlorako 8 orduak eskatzen zituen bere errebindikazio plataforma) eta euskal gizarteak sentiberatasun berezia dute teknologiak eskaintzen dituen posibilitateenganako, zeina, teknologi kulturatzat hartuz gero, brikolage, artisautila eta okupazio edo lanbide baterako abilezi eta trebetasunen ikasketak hutsa baino urrutirago doan.

Nola nahi ere, ezin dira bazterrean utzi, polibaliotasunaren eta IEBeko tailerren errotazioan izan diren esperientziak ez eta horrek gazte hauen motibazio eta autoafirmazioari buruz eta beren lanbide eta akademi edo gizalabidean txertatzeko posibilitateen gehiketari buruz dituen posibilitate zoragarriak.

Era berean, teknologi arloan dituen posibilitateak onartu beharra dago ulerkortasunean eta disziplinarrekotasunean oinarriturik dagoen diseinukurrikularrean, kontuan izaten bada,exigitutako titulazio minimoa lortzen ez duten 2. Ziklo honetakoen izaera terminala.

C) Instituzionalak:

Administrazioa, irakaskuntz eskabidea BUPerantz eta Unibertsitaterantz desbideratu duen eskola tra-

dizio akademikeriarekin topatu da; alternatiba bezala desprestijiatuta dagoen Lanbide Heziketarekin; ia kronikoa den eskola porrotaren maila oso altuekin eta inolako titulaziorik gabe sistema eskolarra abandonatzen duen portzentaia altuarekin, zeina gazteriaren langabeziaren tasa altuarekin eta graduatutakoen paroarekin areagotu egiten den. Guzti horrek desenkatu eta Europako textuinguruko dema sozio-ekonomikoei eta teknologikoei aurre egiteko sistema eskolarrak duen ezintasun esparru bat definitzen du.

Guzti horrek BIOren Berrikuntzaren premia zurrizten du, baina gaur eguneko eskola eta irakas sarea ez dator bat BIOren proposamenarekin, horren ondorioz BIO eta Bigarren mailako irakaskuntza Postobligatorioa biak batera hartuko dituzten zentru espezifikoa (12-16/18) aukeratu dira. Panorama konplexu horri demografiaren deklabe larria gehitzen badiogu, ez gaitu harrutako irakaskuntza inguruetan ondorengo galdera hau denen buruan egoteak, Zer gertatuko da gaur egungo EGBeko zentruarekin eta Goi Mailan espezialista den Irakaslearekin?

Administrazioak explizituki baino besterik ez du hitzegiten Eskola Publikoari buruz, zeinarentzat Irakasleak irabazitako eskubideenganako begirunea proposatzen duen 1996. urtera arte eta Lehen zikloa EGBeko zentruetan ematea eta 2. zikloa LH1eko zen-

truetan. Halere, zehaztu gabe gelditu da Zentru Kontzertatuetakoa, Ikastolak kasu, irakaslearen auzia. Era berean, aipatu zentruetan BIOren maila asigantzeko erizpidea anbiguo gelditu da, Bigarren Xedapen Iragakorrean autorizazio "ezohizkoa" eta "parteentzako instantziara behin behinekoa" bezala definitzen delako.

Administrazioak sortutako anbiguetate eta arbitrariedadegoera honen aurrean, galdera hau egin beharra ikusten da, ba ote du zentzurik BIOren lehen zikloa zentru kontzertatu guztietan eta ikastoletan ezartzeak?


Hona hemen jarrera hori abala dezakeen zenbait arrazoi:

Orain dagoen irakaslearen lanak iraupenik izango duena ziurtatzea. Hezkuntz kontzertuek 14 urte arte iraungo dutena ziurtatzea.

Guraso eta haurren ikuspegitik, xamurrago dirudi zentru aldaketa 14 edo 16 urtekin egitea, 14 urtekin baino.

MEC delakoaren arabera, positibogotzat jotzen da, zentru bakoitzak ikasleei akademi bide bakar bat eskaintzea, horrekin indartu egiten delako zentruen demanda irakaskuntza obligatorio guztirako.

Zentru pribatuen esperientziatik badirudi matrikulaketa hobeto garrantzitzen dela eta, beraz, eskolaren bizitza, zentru guztiek badute ziklo obligatorioak eta postobligatorioak.



Arrakasta akademikoaren ikuspuntutik begirata, ikus daiteke selektibitatean izandako arrakasta handiago zela maila guztiak dituzten irakaskuntza pribatuan, irakaskuntza publikoan baino, non ikasleak 2 edo 3 leku aldaketa egin behar duen: Eskolaurrea, OHOa eta Batxilergoa.

Pertsonalki, ulertzen ditut hauek eta antzeko beste arrazoi batzu, baina uste dut BIOren hezkuntz proiektuari seriotasunez heltzen diogula, bere helburuei, bere antolaketari, irakaslearen eta bere ekipamenduen ahalbideratzeari dagokienean "ez da eskolaratzearen luzapen hutsa, aldaketa sakon bat baizik" delakoa onartuz edota aipatu berrikuntza, ez da inongo berrikuntza, eta horretarako soberean zeuden hainbeste bidaia eta hainbeste gastu sozial.

2.- KONKLUSIOAK

BIOren berrikuntzaren alde positiboena, bere Hezkuntz Proiektua da:

Obligatorietatea: irteeretan berdintasuna.

Terminala: egiten jakitea.

Ezagumenen eraikuntzatik, hauxe da, haztea eta pentsatzea.

Ebaluazioa etengabea eta zikloka.

Heziketa konpentsatorioko egitarauak eta garantia sozialekoak integratzea.

BIOren alde kritikagarrienak:

Administrazio Zentralaren prepotentzia eta interbentzionismoa eta Zentrueri, diseinu kurrikularri dagokionean, Hezkuntz Proiektuari begira, ematen zaion autonomi murrizta: edukin minimoak, ezagupen eta aukeramenaren esparruak.

BIOren amaierako titulazioa, titulazio bikoitza gordetzen duen tranpa bat da.

Egokipen kurrikularren murrizketa 10. ikasturterarte egitea.

Bigarren Mailako irakasle lizentziatuen aukera, proiektuko zati handi batekin kontradikzioan dago, Fakultateetan hasierako heziketan neurri berri batzuk ezpadira elkar etortzen.

Helburuen zehaztasuna homogeinazazio kulturalaren faltan dago, kultura autonomikoak ez dituelako aintzakotzat hartu: "gure tradizioa eta ondare kulturala".

Bizitza aktiboan txertatzeari buruzko helburuak ez du inolako garapenik Lege proiektuaren barruko edukietan.

Kultura teknologikoa, teknologi asignatura batetara mugatzen da, egokipen pedagogiko bat baino besterik egiten ez denean.

Ekintzarako eta baloratzeko sormena eta inizatiba ez dira proiektuan zehar aipatu ere egiten.

Zeintzuk izango dira BIOren lehenengo zikloa emateko kriterio eta baldintzak?

Zer nolako azpiegitura exijituko da?

Felix Basurko

BIBLIOGRAFIA

CASAL, J./MASJUAN, J.M./PLANAS, J. (1989) La inserción profesional y social de los jóvenes. Barcelona: ICE-UAB/CIDE.

DELVAL, J. (1990) "La reforma de la palabras" Rev. Cuadernos Pedagogia 182, junio, pp.75-80.

GOBIERNO VASCO (1990) Reforma de la enseñanzas medias (REM. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco).

MAURI, t. (1983) "Dels 12 als 16 anys" Rev. Perspectiva Escolar 79, nov, pp.2-6.

M.E.C. (1970) Ley General de Educación Madrid: Magisterio Español.

(1973) EGB: Nuevas orientaciones Segunda Etapa. Madrid: Magisterio Español.

(1982) Programas renovados de la EGB: Ciclo superior. Madrid: Escuela Española.

(1987) Debate sobre la reforma de la enseñanza no universitaria. Madrid: MEC.

(1989a) Libro blanco para la reforma del sistema educativo. Madrid: MEC.

(1989b) Diseño curricular base: Educación Secundaria Obligatoria I-II. Madrid: MEC.

(1989c) Ejemplificaciones del diseño curricular base: Secundaria. Madrid: MEC.

ORDOÑEZ, E. (1984) "12tik 16 urte arteko zikloaren alde" Rev. Eskola 6, dic, pp.10-11.


PSOE (1990) Proyecto de Ley Organica de la Ordenación General del Sistema Educativo (LOGSE).

(1986) "Reforma del Ciclo superior: Impresiones de profesores y alumnos" Rev. Eskola 14, dic, pp.14-18.



Erreformaren Historia

LOGSEaren gaur eguneko proiektuari eta DCBri buruzko eztabaidak badirudi, eritziak eritzi, hezkuntz agente guztiak elkartu dituela, egungo Irakaskuntz sistema aldatu beharraren inguruan.



Aldaketarako jarrera baikor hori ezin izango litzateke ulertu ausnarketa teoriko, bakarti eta puntual hutsa bezala begiratu; aipatu jarrera hori ondo ulertu ahal izateko, joan den hamarkadaren lehen urratsetan Estatu osoan, eta maila politiko, sozial, ekonomiko, kultural, etabarretan eman ziren aldaketa sakonen ondorioz hasi zen prozesuaren amaiera bezala ikusi behar da. Prozesu horren eraginez etorri ziren, hain zuzen ere eta besteak beste, ondorengoak:

Gizartearen hezibiderako beharrian handiagoak, era berean, gizartea bera ere Hezkuntz Sistemaren kalitate handiago eskatzen hasi zelarik.

Gizartea Heziketari, sustapen profesional eta pertsonalerako premiazko elementu bezala, bere balioa ematen hasi zitzaion.

Profesionalizatzeko bideen sailkapen berri bat, hala nola, lan merkatuan sartzeko adin minimoa 16 urtetan jartzen duen araudi berri bat.

Hizkuntza eta kultura autoktonoak berpiztea eta indartzea ekarri zuen aurrerakuntza teknologiko izugarri bat.

Aldaketa horiek izan ziren, azaldu

nahi dudana bezala, hezkuntz ahalmenak zituzten EEAAk egungo Hezkuntz Sistemaren desfaseak gainditzeko erronkari aurre egitera eraman zituztenak (esan behar da Sistema horrek garai hartan eskola porrotaren, analfabetismo funtzionalaren, masifikazioaren, etabarren nahiko indize altuak erakusten zituela jada), hala nola gaur eguneko R.C.S. eta I.E.E. bezala ezagutzen ditugunak egituratzera. Azken honek, izan dituen laguntza instituzionalengatik batipat, hala nola, esperimentazioa jarri zen garaiagatik -82-83ko ikastaldia-, gure Autonomi Elkarte metodologiaren, kurrikulumaren eta organizazioaren berrikuntza sakona izan nahi zuenaren eta gaur eguneko Obligaziozko Bigarren Mailan sartuta dagoenaren aintzindari bihurtzera eraman du, Estatu Mailan. (IEEeko Bigarren Zikloaren kasuan, Postobligaziozko Bigarren Mailari buruz ari gara).

Esperientzia horien inguruan emandako urratsak zernolakoak izan ziren garbi gera daitezkeen, ondorengo sekuentziaketa eskaintzen da:

1982-83 Ikastaroa.- Esperimentazioaren hasiera irakaskuntza Ertainen eremuan, Ahalmenen araberrako

Irakaskuntz Sistemaren oinarritutako Metodologiaren bidez. SAC delakoa Durango inguruko ibarrean kokaturiko 6 zentruetan ezarri zen, osotara 2.000 ikaslerengan iristen zelarik.

MEC delakoak IEEeko 1. go zikloaren esperimentazioa 83-84 ikastaroan hasi zuen

1984-85 Ikastaroa.- Bi urtetan zehar esperimentatu ondoren, SAC delakotik ardatza edo oinarritzko edukin blokeak atera ziren eta esperimentazioa Euskadin zehar zabaldu zen. IEEk, ezaguna denez, bai printzipioei, helburu nagusiei, metodologia aktiboiei edo ebaluaketa sistemari dagokienean, ahalmen bidezko irakaskuntz sistemaren oinarri sendoak ditu. Ikastaldi honetan bertan, EUI Departamentuak R.C.S.a Diseinatzen hastea erabaki zuen helburu eta norabide batzutan oinarrituz, gaur egungo OHOrekin alderatuz, aldaketa bat suposatzen dutelarik, eta ez bakarrik egitarauetan, pertsonalean ere baizik.

1985-86 Ikastaroa.- Erizpide erdi geografikoak, linguistikoak, etab... jarraituz, gure lurralde osoko 8 zentru aukeratu ziren lehendik diseinatua zegoen C.S. Berrikuntza praktikan jarri asmoz.

1986-87 Ikastaroa.- Bigarren zikloari ekin zitzaion, aurreko urte eskolarrean 1.go zikloa gainditu zuten ikasleekin. 14-16 zikloarekin egin zenaren kontra, 2. ziklo honen egitura esperimentalak ez zen gure elkarte autonomoan sortu, baizik eta MECek diseinatu izan zen manu izaz. Hala izateak, postobligaziozko irakaskuntza zehazten duten ezaugarri bereziekin batera, elkarrengandik autonomoak diren bi ziklodun IEEa osatu zuten.

Bere beharrezana justifikatzen zuten helburu asko eta asko, gaur egungo oinarrizko diseinu kurrikularran jaso dira”

1987-88 Ikastaroa.- Ikastaro honetan IEEko lehen promozioa aurkeztu zen Froga Homologatua, Berrikuntzako edo erreformako ikasleek ondorio onak atera zituztelarik. Era berean, Goi Zikloko Erreforma hasi zuten ikasleek lehen taldeak ikasketak burutu zituen eta Departamentuak esperimentazio horren esparruak beste bederatzi zentruetara zabaltzea erabaki zuen.

(1987. urtearen hondarretatik 1988aren erdi aldera arte doan bitarte horretan, bi esperientzi horien laguntza eta segiziorako zeuden taldeak desegin ziren -koordinadora, laguntzaile..., funtzio horiek betetzen zituzten bi pertsona baino besterik ez zelarik mantendu Goi Zikloan).

1989-90 Ikastaroa.- Goi Zikloko Erreformaren esperimentazioa bukatu zen, bertan parte hartu zuten 17 zentruak aukera eman zitzaiztelarik, 1990. urtean zehar Departamentuak eragindako berrikuntza pedagogiko eta kurrikularreko 3 deialdietan integratzeko.

Bienbitartean, Irakaskuntza Ertainen Erreforma esperimentazioarekin aurrera jarraitzen duela dirudi, bertan beste zentru batzuek ere gehitu direlarik.

Ikastaldi honetako estatistika datuek aipatu bi Erreformatan inplikaturik dauden ikasle kopurua adierazten digute, ondorengo taulan azaltzen den bezala:

Zentru Kopurua	Ikasle kopurua	
G.Z.E.	17	2.894
1.go I.E.E. Zikloa	94	17.259
2.go I.E.E. Zikloa	52	3.780

C.S.E.ko eta 1.go IEE zikloko Erreformek, zeintzu, esan nahi dudana bezala, Departamentuak berak potentziatu zituen, edo zehatzago esateko, Irakaskuntza Ertainen eta OHoren lehengo Zuzendaritzak potentziatu zituen, aipatu azken zuzendaritza bi horietako Antolakuntza Akademikorako Zerbitzuek koordinatu zituzten. Hori lortzeko, ondorengo aukerak eskaini ziren:

A.1. Ikaslea ikaskuntzaren sujetu aktibotzat hartzea; horretako, irakaskuntzaren prozesua Motibazio-Orientazio parametrotan oinarritu behar da batipat, hala nola, ikaslearen bilakarearekin bat eginez, bere interes eta bere beharrezanekin, ikasleari bere ingurua menderatzen eta bizi behar duen gizar-tean aktiboki parte hartzen lagunduko dioten ahalmenak garatzen eta fomentatzen ere oinarritu behar da.



Era guztietako hezkuntz elementuen konputoa (pedagogi printzipioak, antolaketa, materialeak...), planteamendu hau praktikan jartzea posibilitatzen dutenena, Ahalmen bidezko Irakaskuntz Sistema bezala ezagutzen da. Eta bere adierazpen berritzailea ikasle bakoitzak sustatu behar dituen ahalmen bakoitzarentzako Metodologia espezifikoak dira.

A.2. Disziplinartekotasuna eta disiplinantzitasuna, gizadiaren ezagutza batzeko eta integratzeko bide bezala.

Integrazio bi maila horiek hezkuntz planifikazioarako ikuspegiaren aldatzea ekarriko dute, kurrikuluma ren kontzeptuaren arabera egituratuz. Eta kontzeptu hori, hain zuzen ere, disziplina multzo batek osotuz agertuko da, disziplina bakoitza, erlazio instrumentala, denborazkoa, etab... diren bezalako erlazio extrinseko edo paralelo batez elkartuko delarik edota prozesu intelektual berberak, etabar erabiltzearen bidez elkartu delarik.

A.3. Irakaskuntza aktiboa, non ikaslea bere ikasketaren agente bihurtuko den, eta non, ondorioz, irakasleak ikaslearen hezkuntz prozesuan kolaboratzaile, orientatzaile eta katalizatzaile papera jokatu duen.

A.4. Azkenekoz, eta aipatutako hezkuntz aukera horien ondorioz, inplikaturik dauden hezkuntz zikloko egitarauen erreforma etorriko da.

Era berean, Postobligaziozko Bigarren Maila edo IEEko 2. zikloa, independentea aipatu arrazoiengatik, goian azaldutako oinarri metodologikoetan

baino gehiago oinarritu da ikasleari jakintzaren ezagutza teknikoak emateko beharrezan, jakintza hori izango baita ikasleei beren ikasketak jarraitzeko (Unibertsitatea, Moduloak...) edota, lortutako kualifikazio batetan oinarriturik, lanpostu bati heltzeko bidea irekiko diona.

Prozesu guztiaren eta bere ondorioen azken balorazio bat egin aurretik, komenigarri litzateke adieraztea Erreformaren 8 urte hauetan zehar, Administrazioak bi jarrera berezi izan dituela Erreforme buruz:

A. Bata 87aren aurrekoa, garape-nerako eta potentziaziorako jarrera. Garai horretan aurrakusia zen jada, 87-88 ikastaldirako esperimintazioaren jeneralizazioa. Jeneralizazio hori fase esperimintalaren ebaluazioaren ondorioz etorriko zen kurrikulum diseinu bat gauzatzean oinarriturik egin behar zen (Ildo horretan, Hezkuntz Sistemaren kanpo ebaluaketak adibide garbiak dira Departamentuak ikasle talde eredu bati igorri zizkion hastapeneko, erdiko eta amaierako proba batzu).

Asmo horiekin irakaslegoaren hobekuntzarako hainbat eta hainbat ikastaro antolatu ziren, asignatura espe-zifikoen erreziklaiari bere tematikan, metodologian, etabarretan heldu zitzaio-larik (Adibidez: 1985-86ko ikastaroan zehar 40 ihardunaldi baino gehiago anto-latu ziren, bertan 1.500 irakasle baino gehiagok parte hartu zutelarik).

Era berean, esperimintazioaren emaitzen segizioa egin ahal izateko, hala nola, emaitza horiek bermatu ahal izateko, irakasleoa asesoratzeko tal-deak antolatu ziren, eta baitere esperi-mentazioaren koordinatzaileak, eta eredu didaktikoak eta ebaluaziozkoak diseinatzeko eta gauzatzeko talde teknikoak.

B. Bestea 87an hasi eta gaur eguneko ikastaro honetara artekoa, zeina batera datorren Hezkuntz Departamentuko eta Unibertsitate eta Ikerkuntzako titularren

aldaketarekin, hala nola, Hezkuntz eta Zientzia Ministeritzak hartutako erabakiarekin, hau da, irakaskuntza ez unibertsitarioaren maila eta modalitate guztiei dagokien Hezkuntz Sistemaren erreforma orokorra egiteko erabakiare-kin.

Departamentuak beharrezkotzat jo zuen autonomi elkarteetan mailan ematen ari zen Eztabaidaren dinamikan parte hartzea eta bukatutzat eman zuen fase esperimintala, laguntza ekipoak desegi-nez.

* Une hauetan Erreforma hauei buruz argitaratu diren datu bakarrak ICEek 1.go zikloari buruz egindakoak dira.

OHO eta IIEEetako Goi Zikloaren Erreformak (nahiz eta gure A.E.an egindako aurrakuspen jeneralizazioak, esan nahi dudan bezala, esperimintazio ereduak zuzentzeko eta egoera berrira egokitzeko eskatzen zuten ausnarketa sakon eta guzti, inoiz ez egin) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-rako Departamentuarentzat, berrikuntza pedagogiko eta kurrikularrerako esperi-mentazio garrantzitsu bat ekarri du. Bestalde, bere beharrezana justifikatzen zuten helburu asko eta asko gaur egungo Oinarrizko Diseinu kurrikularrean jaso dira. Etorkizunerako Diseinua egi-terakoan, Euskadiko Erreformatan parte hartu duten ia guztiek onartuko dituzte ondorengo elementuak:

Ikasketa helburuen egituraketa

ikasleak bere hezibidearen oso-tasunerako garatu behar dituen ahalme-netan oinarritzea.

Proposatu den metodologia di-daktikoa.


Esparruen araberrako kurrikulumaren egituraketa.

Postobligatorioan batxilergoaren mo-dalitateak.

...

Horrela, aipatu bi Erreformatan akti-boki parte hartu duten Zentru nahiz irakasleek, maila honetan, Hezkuntz Sistema berrira aldatu ahal izango dira erreztasun handiagoz, eta urte guzti hauetan zehar hartutako esperientziaren ondorioz, era konszienteago batetan gauzatu ahal izango dute ezinbestekoa den zerbait eta, bide batez Zentruarentzat bere eskumen eksklusibokoa dena, hau da, bere Proiektu kurrikularra.

Itziar Etxeberria





Hizkuntzaren Ikuspegia

Oinarrizko Diseinu Kurrikularrean

Hasieratik garbi utzi behar da Oinarrizko Diseinu Kurrikularrean euskararen arazoa zuzenki ez dela ukitzen. Baina Komunitate Autonomoen hizkuntzaz arduratzean euskarak ere badu bere tokia, katalana eta galizierarekin batera. Horregatik euskara hitza zuzenki erabiliko dut gauzak errazteko.

Irakaskuntzan- ikaskuntzan hizkuntzak duen tratamenduaz aritzean atal desberdin eta ugari aztertu behar dira. Zer esanik ez dago atal desberdin hauek elkarrekiko loturan dihardutela eta alderdi batetan hartzen diren erabakiak beste alderdiak baldintzatzen eta zernolaketzen dituztela pedagogi eta didaktikaren ikuspegi sistemikoak adieraziko lukeenez.

Ondorengo lerroetan, batez ere Haur Hezkuntza eta Irakaskuntza Primarioa izango ditut gogoan.

1- EUSKARAREN LEKUA ETA INTENTSITATEA

Hizkuntza eta Literaturaren arlo edo esparruan ez da berezitasunik egiten gaztelania eta euskari dagokionez. Bi hizkuntzek tratamendu berdina dute. Irakur ditzagun, adibidez, Irakaskuntza Primarioarako helburu orokorretan agertzen diren bi helburu hauek:

1- Ideiak, esperientziak eta sentimenduak elkartrukatzeko gaztelania eta euskara erabili besteen erakarpenen aurrean begirune joerak izanik eta elkarrizketa, solasketa eta eztabaiden komunikaziozko egoerek berezkoak dituzten arauak mantenduz (atentzioa mantendu, hitza ez kendu, txandak errespetatu, galderak egin, erakarpenak egin, e.a.).

2- Gaztelaniaz eta euskaraz idatziz adierazi, komunikaziozko egoera desberdinen berezitasunak kontuan izanik eta hizkuntza idatziaren oinarrizko formak errespetatuz (zuzentasun sintaktiko, ortografiko eta lexiko progresiboa, e.a.)

Baina agertzen diren hizkuntz helburuetan ez dira bakarrik agertzen ikasleak aurreratu eta bizi behar dituen hizkuntz kompetentziak. Ondorengo ataletan azaltzen diren adierazpen desberdinak irakurtzean, euskara buruan badugu, gure hizkuntza propioaz Oinarrizko Diseinu Kurrikularrak zer dioten konturatuko gara.

Kurrikulumaren azterketek diotenez kurrikulumaren testuingurak, baldintza legalak, praktikak, ikastetxeko definizioak, e.a. kurrikuluna bera definitzen dute. Horregatik, nahiz eta gauza ugari aztertzekeko posibilitatea izan, gu bi puntutxoetan fijatuko gara:

1- Komunitate Autonomoek zehazteko, egokitzeko eta egituratzeko duten ahalmena. Gure kasuan ez dakigu, ez delako argitara eman, nondik nora bideratuko den hizkuntzaren

tratamendua. Oinarrizko Diseinu kurrikularraren zirriborroak edo proposamen sendoak aspalditik esku artean ditugu. Euskal Herriko Komunitate Autonomoan ikusten den atzerapena, nahiz eta horretarako konpetentzia eduki, ez da ongarri euskerarentzat.

Hitzaldi, mahai inguru, dokumentu, telebista saio eta abarren bidez Madrilgo Diseinu Kurrikularraren berri badakigu edo zerbait enteratzen ari gara. Edo horrek halako kultura, ardura, ikuspegi, kezka batzuk suspertzen eta bideratzen ditu.

2- Aurreko puntuari lotuta ikatetxeko proiektu kurrikularrak izango duen tokia, markoa, mekanismoen prebisioa eta erabaki maila. Alberdi hontan ere ez dugu definizio publikorik. Lehen esandakoaren arabera, badakigu hizkuntzen edo beste edozein arloren tratamenduan zerikusi handia dutela zentroak bere buruaz egiten duen identitatearen definizio eta praktikak, ikastetxeak dituen helburuak, mamitzen duen proiektu kulturalak, erabiltzen duen metodologiak, nagusi diren ebaluazio sistemak, ikasleekiko erlazio erak, erakundean dauden zuzendaritza erak, eratu diren ikasleekiko atentzio eta laguntza erak, e.a. Eta hor kokatzen da euskerarekiko galdera. Hizkuntzarekiko jarrera, postura, erabakiak, intentsitatea, euskararen zergatia eta euskararen nolakotasuna ikastetxearen proiektuan agertu behar dute.

2- HIZKUNTZAREN IRAKASKUNTZA ETA HIZKUNTZEN TEORIAK

Ministeritzaren proposamenak, ezinbestekoa denez, hizkuntzaren teori batzuk suposatzen ditu. Hemen teori hauen zabalera osoaz ez gara ihardungo, puntu jakin batzuk bakarrik ukituko ditugu baizik.

Zeintzuk dira ikasleen garapenean betezen dituen funtzioak, nahiz eta elkarrengandik ezin aldendu?

1- Komunikazioa: beharrak, pentsamendu, esperientzi, sentimendu, iritzi, informazioak, e.a. agertu eta jaso, igorri eta hartu.

2- Errepresentazioa. Errealitatea errepresentatzeko eta isladatzeko baliabide garrantzitsuena hizkuntza da eta besteekin komunikatzeko posibilitatea errepresentazio modu amankomunatu batzuk daudelako suertatzen da. Ikaslearen hurbileko gizarreak errealitatea era komunikagarrian ulertzen eta interpretatzen bait du.

3- Beste eta norberaren jokabide eta portaerak gidatu eta erregulatu. Funtzio hau komunikazio eta errepresentazioaren bidez osa ohi da.

Ikuspegi teoriko honek eragin bat du hizkuntz kurrikuluma antolatzerakoan. Kurrikulumarekiko zerikusi hau bi eratara azter dezakegu:

1- Hizkuntzaren garapena ezagupenen eraikuntzan, ikasketen buruketan, integrazio sozial eta kultural baten lorketan oinarritzko tresna da. Esate baterako, komunikazio bezala

hizkuntzaren unitate esanguratsuak benetako komunikazioen testuinguruan sortzen dira. Adibidez elementu lexikalak, morfosintaktikoak, e.a. benetako diskurtsoaren barnean hartzen dute komunikaziozko edo errepresentaziozko esanahia.

Hizkuntz teoriak interesgarriak dira hizkuntza deskribatzeko baina hizkuntz deskribapen hori ez da irakaskuntza primarioarako eginkizuna. Hizkuntza ikastea ez da teoria gramatikala ikastea. Lehen etapan hizkuntza ikastea hizkuntza erabiltzea, birsortzea, aberastea da. Garrantzia hizkuntzaren alderdi funtzionalei ematen zaio. Honek ez du esan nahi irakasleak hizkuntz teoriaren aurkako jarrera hartu behar duenik edo ikasleei hizkuntzarekiko erreflexio bidea itxi behar zaienik. Ikaslearen garapen eta gelako giro didaktikoaren arabera irakasleak hizkuntzari buruzko erreflexioak planteatu ditzake. Erreflexio horiek hizkuntzaren ohizko erabilpeni loturik izan behar dute. Hizkuntz erreflexioak, ikasleak eta ikasle taldeak entzutean, hitzegitean, irakurtzean eta idaztean erabiltzen duten hizkuntza hartu behar du gaitzat.

Hizkuntza ikastea ez da teoria gramatikala ikastea... erabiltzea, birsortzea, aberastea da"



hizkuntza kontsideraruz, ikaslearen komunikaziozko gaitasuna garatzen da, hizkuntzaren erabilera egoera eta ingurune desberdinetara hedatuz eta egokituz, hizketalagunak eta entzuleak desberdinduz. Hori dena ez al da giza integrazioaren ezinbesteko oinarria?

2- Disziplinarki hizkuntz iaiotasunak ez diren beste gaitasun batzuren lorketa eta hizkuntza hestuki loturik daude.

Adibidez, klimak eta gure lurraldeko nekazaritzak duten zerikusiaz jabetzeko, "esnea" (gai didaktiko bat) aztertzeko egiten dugun planifikazioa burutzeko, gure jokabideen norabide etikoa eraikitzeke hizkuntza oinarritzko tresna da. Honela hizkuntzaren irakaskuntza- ikaskuntzak pentsamendu garbi eta organizatu baten formakuntzan era erabakikor batetan parte hartzen du.

Norabide didaktikoa baldintzatzen duen hizkuntzaren beste dimentsio bat aztertu beharrezkoa da. Hizkuntzak unitate desberdinez osaturiko barne egitura bat du eta unitate edo elementu horiek arau batzuren arabera organizatzen dira. Eta unitate horien esahania orokortasunaren baitan dago eta

Zentzu honetan ongi datoz beste batetan idatzi nituen lerro hauek: "Adin honetan hizkuntzaren funtzionaltasunak eta erabilera lehentasun bat dauka. Ikasleak oraindik meta-hizkuntzaren arauak, paradigma aspergarriak ez dauka erreflexiboki ikasi beharrik. Lan horretara heldu aurretik ahoz eta idatziz ongi menderatu behar ditu egitura sintaktikoak eta abar. Egitura sintaktikoen lorketak ondorengo beste lorketak bal dintzatzen ditu. Adibidez, irakurketa ulerker bat izan dezan esaldi txertatuen garapen eta menderatze bat beharrezkoa du. Hizkuntz adierazpidea erabat murriztua geratzen da esaldi txertatuak erabiltzeko iaiotasunik ez badago" (1984)

3- IKASLEEN HIZKUNTZATIK ABIATU

Oinarritzko Diseinu Kurrikularrean, behin baino gehiagotan aipatzen da ikasleak eskolara dakarren hizkuntzatik abiatu behar dela. Baieztapen honen inguruan beste zenbait xehetasun egitea komenigarri da:

1- Ikasleek, eskolara datozenean, normalki hizkuntza

mende ratzen dute. Ideiak, iritziak, beharrak adierazteko gai dira eta beste pertsoneri erantzuteko ere gai dira. Hortik abiatu behar da, ikasleak etxetik dakarren hizkuntzatik. Ez erabilpen hortan geratzeko, hizkuntzaren beste erabilpen eta aberastasunak suspertzeko, bultzatzeko eta errazteko baizik. Hizkuntzaren garapenerako kaltegarri da didaktika bidez eragindako aurrerapide eta benetako hizkuntz errealitatearen hausketa. Ikaslearen garapen mementu eta irakaskuntzaren lotura eta dialektika ezinbestekoa bait da. Ikasleak etxetik dakarren hizkuntz mailak ez du esan nahi hizkuntz menderaketa oso bat duenik.


2- Etxean, kalean eta eskolan erabili ohi den hizkuntzaren artean distantzi bat dago. Komunitate zehatz batetan hizkuntz aldaera edo barianteak daude. Aldaera hauek era askotarikoak izan daitezke. Euskal Herrian fixatuz, euskalkiak hor ditugu. Euskalkien hiztunen arten ere beste aldaera batzuk daude. Euskalki mintzatu eta euskalki arautu edo normalizatuaren artean distantziak egon ohi dira. Ikaslea euskalduna denean, etxetik euskaraz jakinik datorrenean, lehen mailatan euskalki horiek kontuan izatea, euskalki horietatik abiatzea saihestu ezin daitekeen betebeharrak didaktiko bat da. Baina euskara normalizatu baten menperaketa euskararen iraupenerako ezinbesteko baldintza da.

3- Oinarrizko Diseinu Kurrikularrean ez dute tratatu berdina euskaraz eta euskalkiek. Hizkuntz aldaerei buruz honelako baieztapenak irakurtzen dira: "Hizkuntz ofizialaren ondoan mintzamen mailan erabiltzen den hizkuntz aldaerak daude". "Lurralde elebidunetan, bi hizkuntzek eskolako errealitatean berdintasun baldintzetan lekua behar dute" hizkuntzaz ari da, ez dialektotaz). "Erakarmen kultural garrantzitsu bezala hizkuntz desberdintasunak balioztatzen ikasleak gaitu behar dira". Baina helburuetan fixatzen bagara gaztelaniarekin batera, Komunitatearen hizkuntzaz ari da. Ikusi besterik ez dago, adibide gisara aurrean transkribatu ditugun bi helburuak.

4- Hizkuntz ingurunearen arabera ikasleen artean hizkuntz desberdintasun haundiak daude. Hizkuntz desberdintasun batzuk aldagai ekonomiko, sozial eta kulturalen baitan daude. Eta eskolako hizkuntz estandarrei buruz etxean eta bere ingurune sozialean pribazioak jasaten dituzten ikasle batzuk desabantail haundiak izan ditzateke hizkuntzari eta beste zenbait apendizaierei begira. Eskolak eginkizun konpensatorio hau ere bere gain hartu behar du. Askotan esan ohi da gizarte maila apaletatik datozen ikasleek hizketa kaskarrago bat dutela. Baina gure eskolako egoera didaktikoak egokiak al dira ikasle horien hizkuntza suspertzeko eta aberasteko? Adibidez, Ikasle horiei benetako informazioa eskatzen ez zaienean (denek ikusten duten irudi bat deskribatu, denek ezagutzen duten gertaera bat kontatu), ikasle horiek 3 edo 4ko taldean hitzegiteko baimena dutenean (irakasle galdetzailerak eta ikasle erantzulearen arteko menpekotasun erlazioak arinduz), adierazpide zailtasunetan beste ikasle gomentarioak eta laguntzak onartzen direnean esandakoa zehazteko edo erreformulatzeko, desabantail sozial eta kulturalak dituzten ikasleak hizkuntzari errazago ekiten diote (CRESAS, 1984). Halere konpensazioaren ideiak beste dimentsio bat du gelako jokabide didaktiko kanpo: gutxiago duenak berdintasunera gerturatzeko ekonomikoki, sozialki eta kulturalki gehiagoren beharrea aurkitzen dela eta horren baitan gehiago jaso behar duela.

4- HIZKUNTZA ETA IKASLEEN INTERESA

Hizkuntzaren irakaskuntza ikaskuntza bideratzeko pentsamendu batek bideratu behar du. Hizkuntzaren menperaketa ez da soilik gurasoen eta irakasleen gauza bat. Ingurunean eragin normalak eta egokiak badaude haurrak hizkuntzaren beharra du. Lehen esan bezala, hizkuntzaren alderdi funtzionalak kontuan baditugu, ikasleak komunikatzeko beharra du, ingurunea ezagutzeko, modu egokian pentsamendua egituratzeko



eta zehazteko hizkuntza beharrezko zaio. Ondorengo ataletan hobekago zehaztuko da aipaturiko dimentsio hau.

5- LITERATURA ETA HIZKUNTZAREN IRAKASKUNTZA

Ikastetxean, gelan ikasleak mezu eta testu esanguratsuak entzun, sor eta irakur ditzan giro, lan era, baliabide, erlazio eta gelaren disposizio egoki bat eratu behar da. Testu literarioetan esanahiaren eraikuntza da helburu nagusietariko bat. Ipuin batek interesgune baten inguruko agerpenak, egunkarietako artikuluko batek, bideoeko produkzio batek, antzerki batek esanahi erreala edo fantastiko baten eraikuntza dute helburu nagusi. Hizkuntzak duen funtzionaltasuna jasotzen da literaturan. Hizkuntzaren sorrera eta aberastasuna hizkuntz irakaskuntzaren helburu nagusietarikoak bada hizkuntza eta literatura batera ikasi behar dira. Literaturan hizkuntza testu

H

izkuntza eta literatura batera ikasi behar dira”

esanahikorretan gaurkoturik dago. Iraskaskuntza primarioan literaturaren historia eta teoria ez dago ikasi beharrik. Testuen aukerak garrantzi handi bat du: haur literatura, aho tradiziozko testuak edo ikasleen posibilitateetara egokitzen den edozein testu. Literaturaren bidez gauza ugari kurrikulari bidera daitezke: munduaren ikuspegia, analisia eta kritikaren garapena, atsegintasun eta gozamenaren lanketa, hizkuntza beraren aberastasuna, e.a.

Baina literaturaren dimentsio sortzailea hizkuntz didaktikaren erdigunean egongo da. Teknika sistematikoak erabiliz (beraz ez da ikaskuntza espontaneo huts bat) ikaslea sar daiteke sormen munduan.

Testuen erabilpen eta sormenak gutxienik beste hiru helburu izan behar ditu:

1- Koherentzia: esaten denaren eta erreferentziaren arteko koherentzia. Sortutako testuak isladatzen duen errealtate mota ongi adierazi dezala. Koherentzi honek badu beste dimentsio estruktural bat ere: testu beraren elementuen arteko lotura landu nahi da. Testuak dituen konposagaien egitura hizkuntzaren arauak jarraiki egina egon dadila. Adibidez, "nekazariak landatzen ditu tipulak" esaldi arruntaren egitura dauka. "Zuhaitzak landatzen ditu tipulak" elementuen egituraketa on bat ez dagoela epaitzeko esanahira jo dugu. Esanahiak erabaki du esaldien egitura gramatikala. Gramatika esanahiaren baitan dago.

2- Hizkuntz zuzentasuna: hizkuntzaren arauak errespetatuz, erabilpenaren bidez arautu eta normalizatu diren elementuekin loturik dagoela adierazi nahi da.

3- Adierazpen edo espresiozko propietatea: egoera kontuan izanik diskurtsoak egituratzeko gai izan dadila, egoera jakinetan egoera horri dagokion moduan hitzegiteko gaitu dadila eta hitzegien den gaiari ongi atxikirik egon dadila.

6- AHO HIZKUNTZA ETA HIZKUNTZA IDATZIA

Oinarrizko Diseinu Kurrikularrean bi hizkuntza mota hauen artean dauden desberdintasunei buruzko erreflexio batzuk egiten dira:

1- Hizkuntza idatziak kode berri baten ikaskuntza eskatzen du. Eta kode honek aho hizkuntzaren kodearekin zerikusi haundiak izan arren, ez da itzulpen huts bat.

2- Aho hizkuntzan egoerari loturiko indizeak erabiltzen dira (hizketalagunaren beharrak, erreakzioak...) eta beste komunikazio era batzuk erabiltzen dira (begirada, keinuak, gorputz jarrerak...)

3- Hizkuntza idatzian kontestuari loturiko indizeen laguntza txikiagoa da: idazlea ez dago aurrean, mezu jasotzailea ez dago bertan eta diskurtsoa egituratzeko markak erabiltzen dira (parrafo edo lerroaldean aldenketa, puntuazio zeinuak...)

4- Hizkuntza idatzian hitzezko eta hitzezko ez diren zenbait elementuren presentzia haundiagoa bat dago (eskemak, ilustrazioak...) eta hauen aukera, prestakuntza, planifikazio eta egituraketa haundiago bat dago.

5- Normalki hizkuntza idatzian lexikoaren zehaztasun bat dago eta egitura konplexoagoak eabili ohi dira.

Oinarrizko Diseinu Kurrikularra batez ere ondorengo lau iaotasunetan fixatzen da Irakaskuntza Primarioan:

6.1- ULERMENA

Zer suposatzen du ulermenak? Ez da soilik esanahia eta zentzua jasotzea. Ikasleak aurretik dituen ezagupenekin eta esperientziarekin lotzen da esanahia. Lotura berriak ezartzen ditu eta inguruneari (gauzak, pertsonak, egoerak, gertaerak...) buruzko errepresentazio berriak eraikitzen doa.

Eguneroko hitz eta diskurtsoetan jasotzen diren mezu ugariak ongi interpretatzeko, erlazionatzeko, baloratzeko strategi egokiak garatu behar dira ikasleengan. Hau lortzeko halako orientabide eta zuzenbide batzuk adierazten dira:

1- Diskurtsoak dituen elementuen arteko loturak ongi jaso. Lotura hauen bidez denbora eta espazioan ongi koka gaitzke, zatikiak eta osotasuna bereizi eta elkarlotu behar dira, kausalitatezko eta menpetasunezko erlazioak testuan ulertu behar dira.

2- Honekin batera edo ondoren explizitoki adieraziak ez dauden ideien zentzu eta esanahia interpretatu behar da, objektiboki ebaluatu (gertakizunak, ekintzak eta iritziak bereiziz), irudimenezko edo errealtatezko edukinaz ari den baloratu eta erizpide pertsonalen arabera errekzionatu (gustatzen den ala ez, adostasuna edo errefusaketa eragiten duen, tristura, alaitasuna edo beste zenbait sentimendu sortzen duen...)

Ulermena honela ulertuz, ez da suertatuko joera pasibo bat, adimen ireki eta zentzu kritikoa garatzeko bide bat baizik.

6.2 ADIERAZPENA

Adierazpena edo espresioa lantzeko biderik egokiena mintzatzea, adieraztea, espresatzea da. Adierazpena praktikatzea ezinbestekoa da adierazmenaren garapenerako.

Zer suposatzen du adierazmenaren garapenak?:

1- Ideiak sortzea.

2- Gai baten inguruan atentzioa zentratzea.

3- Gai edo edukinaren egitura antolatzekeo gai izatea.

4- Forma edo itxura ematea eta lehen aipaturiko koherentzia, zuzentasuna eta adierazpenezko propietatea ongi moldatzea.

Adierazmen atalean originaltasun eta konbentzionalismoaren arazoari ekiten zaio. Bien arteko oreka baten aldeko apostua egiten da. Hizkuntza gizarte batek erabiltzen duen sistema denez eta bere eginkizun nagusia komunikatzea bada erabilpen forma eta arau batzuk errespetatu beharrean gara. Bestalde hitzunek eta idazleek erabiltzen dugun sistema denez erabilpen pertsonal eta sortzaile baten aldeko apostua egiten da. Arazo honen bi dimentsiotan pentsatzean zenbait puntu kontutan hartu beharko ditugu: diskurtsoen egituraketa eta antolaketa era, ortografi alderdiak, komunikazio egoera eta kontestua, hizketalagun edo audientziaren izaera eta haiekiko erlazioak, sortzenden mezu era, erabiltzen den ahozko edo hitzezko kodea...

7- IRAKURKETA ETA IDAZKETA

Irakurketa eta idazketaren ikaskuntza -irakaskuntza primarioan burutu den zerbait da (jakinik bizi osoan garatzen jarraitu behar duela). Beraz irakurketa eta idazketa goiztarren aurkako apostua egiten da.

Iraskaskuntza Primarioan lortu behar da hizkuntza idatzi eta aho hizkuntzaren fonemen arteko korrespondentzi automatikoa, erraza eta bizkorra baina irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan komunikazio kontestua kontuan eduki behar da: egoera desberdinetan suertatzen diren komunikazio beharrak, hizkuntza idatziak erabiltzen dituen euskarri eta baliabideak (liburuak, egunkariak, kartelak, eskutitzak...), kode mintzatu eta kode idatziaren arteko erlazioak. Ulermena eta adierazmena da ardatz eta helbururik nagusia.

Irakurketa-idazketaren ikaskuntzarako oinarrizko baldintza aho hizkuntzaren menderaketan jartzen da. Beraz mintzamen mailan halako heldutasun bat eskatzen da mundu idatziari ekin aurretik. Baina luzarora, ikasturteetan zehar, aho hizkuntza eta hizkuntza idatzia elkarrekintzan dihardute, elkar errefortzatuz. Aho hizkuntzaren aberastasunak hizkuntza idatzia aberasten du eta alderantziz.

9- IRAKASLEAREN ZEREGINAK

Oinarrizko Diseinu Kurrikularrean irakaslearen zereginari buruzko zertzelada batzuk adieraziak daude:

1- Diaganostikatzailea. Diagnostikora bideratutako ebaluazioan behaketa garrantzizko tresna izango da ikasleak zein hizkuntza mota duen jakiteko. Behaketa lan hori ohizko egoera normaletan bidera daiteke: eskolako ekintzetan, taldeko lanetan, irteera eta sarreretan... Diagnostiko hori ikasle taldeak

eta ikasle bakoitzak hizkuntzaren erabilera eta asimilazio maila aztertzeke izango da: ulermen eta adierazmen maila, hizkuntzaren bidez komunikatzen dituzten edukinak, erabilpen horren helburuak (esperientziak kontatzeko, gertakizunak adierazteko, ekintzak eta gertaerak aurrez pentsatzeko, egoerak irudikatzeke), darabiltzaten hizkuntz formak aztertzeke (diskurtsoaren egitura, hiztegia, esaldien egitura, konkordantziak...)

2- Egoera sortzailea. Irakasleak komunikazioa eta errepresentazioa eta planifikazioa eta/edo kontrol funtzioak bideratzeko gelan egoera egokien sorreran ardura berezi bat du. Egoera horiek ohizkoak edo teknifikatuagoak izan daitezke. Egoera horien bidez irakasleek hizkuntzaren funtzio desberdinak eragingo ditu (ahoz eta idatziz) ikasleen hizkuntz gaitasunak garatzeko.

3- Ikaslearen errealitate eta hizkuntz arauen arteko bitarteko. Eskolan eragin nahi den hizkuntza mota (ikastetxeko proiektuan definitua) eta ikasleak etxetik dakarren mintzaiararen arteko zubi eta aurrerapide suertatuko da irakaslearen irakaskuntza. Ikasleen ohizko egoeretan bali-



agarriak diren formak gutxietsi gabe, komunikazio egoera bakoitzean hitzun edo idazlearen formak egokiak diren ala ez irakasleak epaitu beharko du eta forma aproposak suspertu eta eragin. Irakasleak, k o n t u r a t u z hizkuntzak erregistro desberdinak dituela, ikasleak iaio t u k o d i t u "kaixo arteko" ohizko hizkuntzara

eta beste egoeretan erabili ohi den hizkuntz erabilerara.

4- Desberdintasunen erantzule. Ikasleek jatorrizko eta egoera sozial eta kultural desberdinenak medio, hizkuntz garapen desberdinak dituzte. Hezkuntza berezian esan ohi da integrazio bidez dibertsitateari erantzuten zaiola. Aurrerapideak eta ikasleen aurrerapenak abiapuntuak eta maila bakoitzean dauden egoera errealei begira bideratuko beharko dira.

5- Komunikaziozko eskenatoki aproposen sortzailea. Nahiz eta ikastetxea eta gela sortu diren erakunde artifizial xamarrak izan, komunikazioa eragin nahi bada, elkartrukaketa posible egingo duen egoera soziala sortu behar da: ikasleek zerbait esateko izan dezatela, partizipazioa ez dadila ito mehatxu, ixeka eta begirune faltaz, ikuspuntu desberdinak konfrontatzeko posibilitateak eraiki daitezela...

6- Ikastetxe eta gelako espazio desberdinen banatzaile eta erabilpenari begira antolatzaile. Txukuntasuna, bitartekoen ardura, liburutegiaren antolaketa eta erantzukizuna, baliabide desberdinen sorkuntza edo ardura (hiztegiak, ikasleen testuak, ortografi fitxak), ikastetxeko beste zenbait espazioen era-

bilpena, kartel eta ormirudien prestakuntza elkartrukaketa errazteko bide egokiak izan daitezke.

7- Egin beharren antolatzaile. Gelan egiten diren aktibitate desberdinei zentzu eta esanahi orokor bat damaiete egin behar esanguratsuek. Dramatizazio edo antzerki bat prestatu, esnearen produkzio, zerbitzu eta komertzializazioaz mintzaldi bat gertutu, irteera didaktiko bat antolatu, idazle jakin baten obra aztertu, e.a. egin behar esnguratsuak dira. Egin behar hauek bideratuko dituzten egoerak espontaneoak (taldean sortuak, gai baten inguruan) edo egituratuak (testuen analisia, edukin zehatz eta jakin baten inguruko idazketa, mintzaldi eta erreflexioak...) izan daiteke.

8- Ikasle munduaren zabaltzaile. Nahiz eta beti ikaslearen ingurugirotik abiatu, ingurugiro horren ulermena eta analisi gaitasuna zabaldu egin behar da eta kontestu zabaletarako prestatu. Hizkuntzak mundu zabal eta desberdinu horren ulermen eta menperaketan zerikusi haundia dauka. Mundu hori era askotakoa izan daiteke geografia barne: kulturala, soziala... Gertuko zaizkien arazoak ukituz, ikastetxeko eta beste ikastetxeetako irakasle, ikasle talde, monitore, guraso eta abarrekin mintzatuz, eztabaidatuz, informazioak jasoz... munduaren ikuspegia zabaltzen doakie.

9- Hizkuntz eredu. Irakaslearen mintzaera eta idazkerak, hautatzen diren testuen hizkuntzak eredu balio bat dute. Hautatzen dituzten testuetan arraza eta sexu estereotipomarjintzaileak egon ez daitezen zaindu behar da. Zentzu honetan irakaslea hizkuntza eta etika eredu bilakatzen da.

Atal honetan beste dimentsio bat ere aztertuko dugu: irakaslearen hizkuntzarekiko jarrera. Jarrera baikor eta inplikatu bat ikaslearen hizkuntzarekiko harremanak modu sortzailean, praktikoan eta atseginean antolatzen lagungarri izango dira.

10- Teknologi berrien erabilpen egokia: magnetofonia, bideoa, irratia, telebista, ordenagailua.

10- LABURPEN ETA ONDORIOAK

1- Gaztelaniak eta euskarak Oinarrizko Diseinu Kurrikularran tratamendu berdina dute.

2- Tratamendu berdina esatean Oinarrizko Diseinu Kurrikular baten atal desberdinak ukitzen dira eta uki daitezke: helburuak, edukinak, komunikazio erak, antolakuntza, arloari zuzentzen zaion denbora, ebaluaketa, irakaslearen zeregina, e.a. Hemen benetako arazo larri bat agertzen zaigu. Tratamendu desberdina esatean gauza askotan fixa gaitzke: adibidez, denbora eta helburuetan.

Ikasleek etaparen bukaeran, helburu aldetik begiratuta, iaio-tasun berdinak lortu behar badituzte gaztelaniaz eta euskaraz, mintzamen eta irakurmen mailan, nahiz ulermen eta nahiz adierazmen aldetik, gure egoera zehatzean, batez ere gaztelania nagusi den lurraldetan, denboraren dedikazio berdina eska al daiteke? ¿Zer esan nahi du, kasu honetan, tratamendu berdinak?

3- Oinarrizko Diseinu Kurrikularrak hizkuntzari zeregin tresnakoi edo instrumental bat itsasten dio: komunikaziorako helbide nagusi, pentsamendu eta jokaeren erregulatzailerik, ingurune oharketaren eta ingurune bizi sozial eta kulturalean itsasteko errazle, edukin kurrikular orotan irakaskuntza ikaskuntza bideratzeko nahitaezko tresna.


4- Ikuspegi komunikatzailea. Ongi ulertzeko eta adierazteko irakasten eta ikasten da hizkuntza lehen etapa hauetan. Garapen komunikatzailea bideratzeko ikaskuntza pasiboak ez dira nahiko, hizkuntza erabili egin behar da. Eta komunikazioan, ahozko komunikazioan behintzat, hizkuntzak, keinuak, begiradak, e.a. parte hartzen dute.

5- Helburu nagusienak ondorengoak dira: aho hizkuntza eta hizkuntza idatzia aberastu eta lau iaio-tasunen menperamen funtzionala lortu (entzumena, mintzamina, irakurmena, idazmena).

6- Literaturaren norabidea lehen etapa hauetan. Arlo honetan literaturak beste materialek duten esanahi bera du: hizkuntza aberastu testuak meneiatuz eta erreflexioak eraginez. Beraz Literaturaren historia eta Literaturaren teoria, disziplina bezela kontsideratuz, ez dira ikasgai lehen etapa hauetan. Testuak aberasbide bezela hartuz, zenbait joera eta postura eragin nahi dira (aisealdirako eta gozamenerako tresna, informazio bide...)

7- Heziketan behar bereziak dituzten ikasleei proposamen mota honek posibilitateak eskaintzen dizkie. Egoera desberdinetara egokitu daitezkeen proposamen malgu edo flexiblea da. Tenporalizazioan aldaketak sar daitezke eta Kurrikuluneko elementuren bati lehentasuna eman diezaiokegu. Adibidez, aho hizkuntzan agertzen diren zailtasun batzuetarako (lotsatiak, arazo emozionalak, artikulazioa arazoak) irakaslearen zeregina garrantzitsua da, onarpen eta errespeto giroak bultzatuz, denak hiztun bilaka daitezkeen egoerak sortuz...)

8- Niretzat, hizkuntzaren tratamenduari begira, arazo larrienak ez dira Diseinuak duen formatotik etorriko. Gure Herriaren kasuan eragozpenek bide ugari urratuko dituzte egoera soziolinguistikoko hain desberdinak, gurasoen borondateak, irakaslearen heziketa proiektuak, irakasle euskaldunen eskasia, bideratzen diren errekurtsioak, administratzailearen eragina, kulturalki eskastasunak dituzten ikasleekiko helbide eta jarrerak. Eta ikastetxe aldetik begiratuta beste hainbeste eragozpen egon daitezke: hizkuntza irakasteko betiko ohitura akademikoak, ikaslearen partizipazio eskasa geletan pasibitateara eraginez, testuen jarraipen desmotibatzailea, hizkuntz irakaskuntza eragiteko antolakuntza kaskarra, hitzegiteko eta irakurtzeko ikasleek dituzten oportunitate eskasak, e.a.



*Pello Aierbe Etxeberria
UPV-EHUko Irakaslea*



Zer dago L.O.G.S.E.ren azpian?

L.O.G.S.E. legearen bidez Espainiako Hezkuntza Ministeritzak ezagutzera eman digun hezkuntza erreforma azterterakoan erabili diren aldeko eta aurkako erizpideak eta adierazpenak kontutan izanik kezka larria sortu zaigu, Euskal Herriko "indar biziak" erakunde politiko, pedagogiko, zein kulturek erreformaren zama politiko-pedagogiko-kulturala asimilatzeke izan duten erraztasunagatik baino errazkeriagatik.

Espainiako indar "progresistek" urteak zeramatzatenez hezkuntza sistemen aldaketa esijituz, bidezkoa eta ulerterraza gertatu zaigu P.S.O.E.ren proposamenaren defendatzaile sutsuenak bihurtzea, eskuin indarren aurrean.

Baina kezka handiagoa sortu digu Euskal Herriko erakundeengan somatu dugu Erreformarekiko posibilitate eta asimilazioak. Euskal Herriko eskola, ikastola, hezkuntz eta pedagogi elkartetan merke saldu zaigu produktua eta administrazioaren hezkuntz arduradunak buru direlarik, irakasleok burubelarri sartu nahi izan gaituzte eta lortu dute, batipat, emango diren aldaketa formalak erarik erosoenean, nola egokitu aztertzerara. Aldiz, Erreforma legearen sakoneko azterketa kritikorik ez da bideratu, baztertu egin dira, ez da denborarik galdu. Apostua eskola konpetizera egokitzea izan da eta, ez kritikan denbora galtzea.

Ez dugu ukatuko lege honek kritikarik izan ez duenik Euskal Herrian ere, baina, "indar progresisten" kritikak oso gutxi bereizi dira Estatu Espainolean egin diren etatik, hau da, legearen alde formale-tara mugatu dira; dohantasuna, zikloen

banaketa, haur hezkuntza, bigarren mailako irakaskuntza, lanbide heziketa, e.a. Bainan kritika moeta hau egin beharrekoa eta zuzena bada ere, ez da larri-enetakoa, legea airoso atera da eztabaida horretatik. Ez da gehiegi esatea, kritika gehienak jarrera ofizialistaren babesle izan direla, lege proiektuaren zuritze hutsa izan da.

Gure ikuspuntuak "progresista" izateaz gain, abertzalea izan nahi luke, hau da, Euskal Herriaren nazio izakera errekonozitzen duen irakasle talde batena hain zuzen ere.

Eta ikuspuntu honetatik, onartezina zaigu lege honen aurrean erakutsi den baikortasuna. L.O.G.S.E. aztertzerakoan ezin dugu Euskal Herriaren izakera horren abstrakziorik egin. Lege hau Euskal Herriari ukatzen zaion burujabetasunaren adierazle eta eragile bat dugu.




Ez dugu ahaztu behar, azpimarratzen zaizkigun hezkuntz konponente pedagogiko-kulturalen gainetik osagarri politikoa eta beronek mugatzen duela lege osoa eta ondorengo garapena.

Gure ustez, ez da arazo larriena kurrikulum pedagogikoak egokitzeko edo hezkuntz sistema administratzeko eta garatzeko, Euskal Herriak zer gaitasun izango duen jakitea, hori ere bai noski, bainan larriena deritzogu eta Lege honek, Euskal Herriari bere Hezkuntz sistema autonomoa gauzatzeko eta tajutzeko ahalmenari egiten dion ukazioa, hain zuzen ere. Lege honen bidez Euskal Herria, Espainiako hezkuntz sisteman eroso sentiarazteko bidetik eraman nahi da. Nori dagokio "mea culpa"?

Irakasle Talde Bat



CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREKIA




- ▶ Euskal Herri osoan ordezkari goen Kutxa bakarra gara.
- ▶ Euskal Lehen Enpresa-Talantzatzaile garen Entitatea.
- ▶ Eta gainera... hona gure g

1959	19
Lehen Bulegoa	190
Lehen Bezeroa	725.00
Lehen Milioia	221.000 Mil

...29 urtetan soilik.

- ▶ Zatoz elkarlanean parte h

**Horrexegati
Lan Kide Aurre
"Euskadiko Kut**



Euskadiko Kutxa

IRAKASKUNTZA
EUSKARAZ



IRAKASLE ELKARTEA